

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton* Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande* Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue* Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre* Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu* Biziaeren Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia* Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant* Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister* Jesü Kristen imitazioea. 2010
14. *Gorka Aulestia* Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile* Xiberoko antzertia edo pastoralak. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu* Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant* Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012

Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque



Laguntzaileak:



20



GRATIEN ADEMA ZALDUBI

GAINERATEKOEN BILDUMA

Argitalpenaren paratzailea: **Henri Duhau**



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



HENRI DUHAU

Beskoitzen sortua 1942an.

Laborari semea; laborantzako ikasketak.

Soldadutzatik landa, lur berri egiten Donapaleutik teknikari gisa, Jean Errecart senatoriaren zuzendaritzapean.

1968an Senpererat ezkondu merkatartizan erretretarat heldu arte. Lehen artikulua euskaraz, 1961eko urtarrilean, **Gazte** kazetan (duela 50 urte!).

Gaur Euskaltzaleen Biltzarreko kide.

Elkarteburu ere izana: Euskaldun Gazteria, Zirikolatx,

Senpereko Gure lurrak, Euskal Dantzarien Biltzarra...

Elkarte sortzaileetarik izana: Senperen Aro Berri, Senpereko ikastola,

Aide Familiale Rurale, Izan eta Gure Herria talde politikoak,

Elkarri, Egunkaria sortzen...

Idatzi du aldizkari hauetan : **Herria, Otoizlari, Dantzariak,**

Ekaina, Denak Argian, Enbata...

Liburukiak :

- **Hasian-hasi** (lehen, 1993) ;

- **Euskal aditz batua** (1996) ;

- **Aupa batasuna** (2000) ;

- **Hasian-hasi** (bigarrena, 2002) ;

- **Hortzak izerdi** (2005) ;

- **Dufau bi anaiak** (2006) ;

- **Saindu batzuen biziaz** (Gratien Adema, 2007) ;

- **Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak** (Gratien Adema, 2008) ;

- **Kantikak** (Gratien Adema, 2009) ;

- **Prediku zenbait** (Gratien Adema, 2009) ;

- **Bidegileak** (Jean Barbier, 2009) ;

- **Bidegileak** (Dominique Dufau, 2009) ;

- **Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundea** (2009).

- **Alegiak eta bertze neurtitzak** (2011).

- **Bertze prediku batzuk** (2011).

- **Gaineratekoen bilduma** (2012).

GRATIEN ADEMA
"ZALDUBI" (1828-1907)
GAINERATEKOEN BILDUMA

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-95438-91-1
Lege-gordailua: BI-I883-2012

GRATIEN ADEMA “ZALDUBI” (1828-1907)

GAINERATEKOEN BILDUMA

Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2012

Eskerrik bizienak laguntzaile eta sustatzaileei :

- Pierrette Dourisboure, artxiboen begiralea,
- Arnaud Dourisboure,
- Jean Dourisboure,
- Bernadette Mazet Dourisboure,
laurak Gratien Adema-Zaldubiren ilobaren arra-haurrak.

Esker bereziak :

- Ales Bengoetxea, « Eskualdun peleginaren bidaltzailea », interneten paraturik ;
- Xabier Altzibar, lan asko denen meneko ezarri dituen interneten ;
- « Lapurdum » aldizkaria ;
- « Koldo Mitxelena kulturunea », Hemeroteka digitala.

Bai eta :

- Andres Urrutia, Euskaltzainburua ;
- Aurelia Arkotxa, Euskaltzainburuordea ;
- Piarres Charritton, Euskaltzaina ;
- Euskararen Erakunde Publikoa ;
- Euskaltzaindia.

AURKIBIDEA

GAINERATEKOEN BILDUMA

— I —

Andres Urrutia (1954)	
“Finis coronat opus”	I
Henri Duhau (1942)	
Gratien ADEMA-ZALDUBIREN (1828-1907)	
zazpigarren liburuki hau argitaratzean	3
Idazkera eta grafia kontuez oraino	4
1. liburukia : “Saindu batzuen biziaz”	6
2. liburukia : “Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak”	7
3. liburukia : “Kantikak”	8
4. liburukia : “Prediku zenbait, Hazparnen eginak”	9
5. liburukia : “Alegiak eta bertze neurtitzak”	10
6. liburukia : “Bertze prediku batzuk”	11
7. liburukia : “Gaineratekoen bilduma” (eskuarteko hau).....	12

— II —

GRATIEN ADEMA “ZALDUBI” (1828-1907)

Mendiko artzain beltxaren neurtitzak	17
Bildotxa eta Otsoa.....	19
Belea eta Axeria.....	24
Axeria eta Akerra.....	28
Asto errelekiz kargatua.....	33
Adixkide hartz moldegaitz.....	37
Abereetan izurritea.....	41
Kuia eta Ezkurra.....	49
Aita xuhurregi, Seme barraiari.....	53
Hartz bat eta bi ihizlari.....	57
Eltzea eta Tupina.....	63
Xauxundegiko Xakurra.....	68
Etxeko gerla.....	74
Erreboluzione eta Errepublika.....	81
<i>Une partie de rebot à Irun en 1847</i>	93
Santa Luzia (1872-1890)	98
Aita Beneditanoeri (1875)	100
Eskualdun beilariaren bidaltzailea (1877)	101
Aintzin hitzak, irakutzaileari.....	102
Mirakuiluez.....	102
Beilak zer diren.....	104
Beilak zertako diren.....	105
Beiletan nor eta nola behar den ibili.....	107
Andredena Maria Pilarrekoa.....	109
Jondoni Jakobe Konpostelakoa.....	112
Jerusalem, Betleem, Nazareth, eta Ama Birjinaren sortetxea.....	113
Erroma.....	116
Betharram.....	119

Bugloseko Andredena Maria, eta Puy-en San Bizente Paulo[ko]a ..	I22
Andredena Maria Salette-koa	I24
Lurde	I26
1875ean, Jubilau urte sainduan, Lurderat eta Betharramerat	I32
Meza Sainduko otoitzak.....	I35
Ama Birjinaren Bezperak	I41
Sakramendu Sainduaren benedizionean.....	I41
Kantikak.....	I42
Amodio Birjina Mariari	I44
Otoitz bat	I45
<i>Appendice</i>	I47
Tribunaletako Gurutzefiken kentzeaz (1880-1890).....	I49
<i>Sainte-Engrâce (1886)</i>.....	I51
<i>L'église romane (gravure)</i>	I51
<i>Montagnes et église (gravure)</i>	I55
<i>Côteaux et église (gravure)</i>	I57
<i>La caserne des douaniers (gravure)</i>	I61
<i>Kakueta</i>	I62
<i>Le moulin de Kakueta (gravure)</i>	I66
<i>Le ravin de Kakueta (gravure)</i>	I70
<i>Holtzarte</i>	I71
<i>Les traditions du Pays Basque (1887)</i>.....	I76
Eskualdunek Aita Sainduari (1888)	I83
<i>Bibliographie : le nouvel ouvrage du père Joanateguy (1890)</i>	I85
Eskualdunen sorterriko kantua (1892).....	I88
R. M. Azkuerekilako harremanak (1894-1901)	I90
1894-04-01 Adema-Zaldubik Azkueri.....	I90
1896-08-22 Adema-Zaldubik Azkueri.....	I91
1901-10-11 Adema-Zaldubik Azkueri.....	I94
1901-10-26 Azkuek Adema-Zaldubiri.....	I95
Eskualdun bestak (1894).....	I97
<i>Notice sur le jeu de paume au rebot (1894)</i>	200
Donibane Lohizuneko pilota partida errebotekoa (1896).....	218

Laborariak ez oraino etsi, irakurrazue hau (1896)	221
Donibaneko erreboteko partida (1897).....	223
Larresoroko kantu berriak (1898)	226
Leon XIII. Aita Sainduaren otsaldia (1898).....	228
<i>Quelques règles de la prosodie ou art poétique basque (1899)</i>	<i>231</i>
(Eskualduna 1899-02-10)	231
(Eskualduna 1899-03-03)	232
(Eskualduna 1899-03-17)	235
(Eskualduna 1899-04-07)	237
(Eskualduna 1899-05-05)	241
(Eskualduna 1899-06-02)	244
(Eskualduna 1899-07-21)	247
(Eskualduna 1899-08-25)	250
(Eskualduna 1899-10-20)	252
Eskual Herriko eliza bestak (1899).....	257
(Eskualduna 1908-06-25)	257
(Eskualduna 1908-07-03)	259
(Eskualduna 1908-07-10)	261
Eskualtzaleen Biltzarrari (1901).....	265
Déroulède (1902).....	270
Biba Bidarraï ! (1906).....	271
<i>Curiosités synonymiques basque-japonais (1906)</i>	<i>275</i>
Jesu-Kristoren Pasionea	278
San Joanes Batista Salhakoia	281



Gratien Adema "Zaldubi"
(1828-1907)
Jaun Kalonje senpertarra

“Finis coronat opus”

Hala esan ohi da aspaldi-aspalditik, lan luzea bezain gaitza finitzerakoan. Alegia, azkenak ontzen eta borobiltzen duela lana. Gauza bera esan daiteke egun ere, Henri Duhauk ondutako zazpigarren liburukia argitaratzen denean.

Urtez urte, Henri Duhauk garatu digu, bost urtez, Gratien Adema Zaldubi-
ren testuak. Egin ere, esku trebea erabilirik egin du, jatorrizko testuak alderatu
baitzikigu gaurko transkripzioarekin. Hartara, gure ezagutza handitu digu
modu ezin egokiago batez, orrialde horietan ikusi baitugu *Zaldubi* hura, idazle
handia izateaz gain, bazela gauza kontuak modu erakargarri batez ontzeko bere
idatzietan.

Luze-zabal murgildu gara, Duhau gidari, Ademaren kezka eta nekeetan. Oro-
bat, haren bertso zorrotzetan eta olerki gozagarrietan. Sermoiak irakurri ditugu
eta irakurri ahala, iduri luke haren ahots euskaltzalea entzuten genuela gure
aurrean.

Hitz batez esateko, *Zaldubi*ren giza irudi osoa eman digu Duhauk. Orain,
azken liburu honetan, lana bukatu ondoren, ezin besterik eskatu aurrerantzean
ere, bere luma ederraz gozatzeko aukera izan dezagula. Zorionak, Henri adix-
kidea, burutu duzun lan bikainagatik!

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Gratien ADEMA “ZALDUBI”-ren zazpigarren liburuki hau argitaratzean

Haren biziaz eta lanez xehetasun gehiago eman dugu lehen sei liburukietan, hots, ‘Euskaltzainak’ sailean jadanik argitaratuak diren I. (2007), 4. (2008), 10. (2009), 12. (2009), 15. (2010) eta 16. (2011) zenbakidunetan.

Argi eta garbi errepikatzen dugu: liburuki hauek, jadanik publikatuak ala hau bera, ez direla edizio kritiko edo arakatzaille batzuk; doi-doia zenbait xehetasun laburrekin datoz, nor edo nor irakurtzen laguntzeko gisan; hots, publiko zabal-zabal batentzat apailatuak dira.

Hizkuntzari dagokionez erran dezagun lapurtera deitzen den euskalkiari tinko atxikitzen zaiola Adema-Zaldubi, nahiz hitz batzuk hartzen dituen bertzerenetan, Hegoaldeko zenbait barne.

Hitz batzuk beti berdin erabiltzen ditu, behin ere hutsegin gabe; haietan: **gare, zare, zarezte, dire**, eta holakoak; ez dugu-eta ikusi, ez ‘gira’, ‘zira’, ‘zirezte’, ‘dira’ bezalako formarik. Salbuespen bat, gure ustez eta guziz egokiro ezarria: ‘gira’ bat aurkitu dugu bidarraitar bati solasa eman dionean; ikus ‘Biba Bidarrai’ bertsoetan, 271. orrialdetik goiti.

Guk ez dugu deusik idatzi berak, noiz edo noiz, idatzi ez badu; (ohargabeko haiek barka!). Egin duguna da, Adema-Zaldubiren lanak ikuskatu ondoran, adibidez, **berdin** eta **bardin**, biak erabili baitzituen eta gure ustez adiera ñabardurarik sentiarazteko gogorik gabe, **berdin** hautatu dugula, batuan hala jarria delakotz.

Egin dugun hitz aldaketa garrantzitsuena liburuki huntan da, ‘pelegrin’, ‘pelegrinaia’ eta holakoen ordeztuak **‘beilari’, ‘beila’** eta gisa hortakoak hobetsi baititugu, Iparraldean gehienki holaxe diogulakotz. Bainan Adema-Zaldubik, berak ere, bere lana **‘Beila’** hitzarekin hasten du. Horrek berak ez ote du zilegitzen gure ausartzia?

Puntuazioa ere doi bat antolatzerat saiatu gara; lan arriskutsua, haatik! Idazterakoan, puntuazioa dukegu Adema-Zaldubik gutienik artatu duen alorra.

‘Erljio’ hitza ere asko gisetarat darabil: **erlijione, erligione**, bai eta **erlisio-ne** ere; guk azken hau atxiki dugu, holaxe ahoskatzen baita gehienki Lapurdi Baxenabarreko inguruetan bederen.

Idazkera edo grafia kontuez oraino

Adema-Zaldubiren lan hauek literario alor zabalerat erakarri beharrez ari izan garenaz gero, jadanik aipatu 'berdin'-en gainerat, bertze keinu batzuk ere egin dira euskara batuari buruz, bereziki idazleak berak, forma haiek, han edo hemen, baliatuak zituelarik:

- irakusten > **erakusten**;
- bezen > **bezain**; bezenbat > **bezainbat**...
- zonbeit > **zonbait**; nolazpeit > **nolazpait**; nunbeit > **nunbait**...

Halarik ere, desberdinki dabiltzan forma bakar bat edo bertze, hala-hala utzi ditugu, adibidez: **zein** eta **zoin**, orobat **zenbat** eta **zonbat**, **balin** eta **baldin** haien berdintzeak, lana itxuralda zezaketelako beldurrez...

Halaber **hola** erakuslea, batzuetan **horrela** bihurtzen duena eta beraz denetan sartzen ahalko zena guk hartu bideari jarraikiz gero. Baina diren bezala utzi ditugu; noiz edo noiz estetika hunkitzen edo adiera desberdintasun zerbait sendiarazten baitute beharbada.

Diren bezala utzi ditugu ere:

- ixuri** (isuri); **xoil** (soil); **gaixto** (gaizto); **girixtino** (girstino);
- nausi** (nagusi);
- orai** (orain), eta bertze andana bat...

Hek eta **heiek** izenordeak nahasten ditu Adema-Zaldubik. Iparraldean, 20. mendeko idazle hoberenek, ederki bereizten dituztelarik: 'hek dire' eta 'heiek hura dute'.

Oraingo grafiari jarraiki gatzazkio >h< hizkiarekin. >r< batzuen ondolikako zenbait utzi ditugu halere, Iparraldeko ahoskera errespetatzeko eta ulermena laguntzeko:

- erhokeria** (erokeria);
- erhi**: (behatz), 'eri' (gaixorik, erran nahiarekin bereizteko bertzalde);
- orhoit** (oroit), bi >r<-rekilakoa desegokia baitzaigu ohituratik eta eus-kara batutik urruntzen gaituelakotz;
- garhaitu** (garaitu);
- >h< hitz hastapeneko batzuk kendu ditugu: hainitz > **ainitz**; hari > **ari**; herrecha > **errex**a; hauzo > **auzo**, eta abar.

Bertze >h< batzuk utzi ditugu kentzen ahalko zirelarik, 'joan' aditz saillekoak bereziki: **doha** (doa), **dohakon** (doakion)...

—>p< eta >b<-ren aitzinean >n<: dembora > **denbora**, mempean > **menpean**...

—>ts<-ren soinua ixa-rekin adierazten baitzuen idazkirik zaharrenetan, gaurkotu dugu: 'exaia'-ren orde '**etsaia**' ezarriz.

Halaber >ch<-ren orde >x< ezarri dugu: herrecha > **errex...** (erraza)

Adinean joan arau, Adema-Zaldubiren idazkera aldatuz joan da euskarak berak egiten zuen bilakaera lagun. Hala gertatzen da, adibidez, ‘eduki’ aditzean, eta **-agoka-** bihurtu dugu **-auka-**, halaxe agertzen baitzaigu haren zenbait eskuizkributan ere, hala nola: **naukala, daukatenak, daukana...** Hori, bistan da, hitz laxoetan, bertsoetako zangoen errespetatzerik ez dagoenean.

—**ken** eta **-kela** ‘ahala’ moduaren adierazleak bihurtu ditugu : **-keen** eta **-keela**, bertso zangoen errespetatzerik ez dagoenean, erran gabe doa;

—**ra** eta **-rat**, bi formak erabiltzen zituen, iduriz hiztegietakoa ñabardurarik adierazi gabe: BaionaRA doa (joan-etorria) eta BaionaRAT doa (han egoteko). Guk **-rat** hobetsi dugu, Iparraldekoagotzat baitaukagu eta Euskaltzaindiko hiztegian ere aurkitzen baita (**nehoRAT**, 325.orrialdea, 2008ko argitalpenean) euskara baturako ere onartua. Gainerat, ‘**hara** nun den’ eta ‘**harat** doa’ ederki bereizten direlarik holaxe.

Bertze hitz batzuentzat, ohar bat ematen dugu, euskararen ikasten ari direnen lagungarri, indar bertsoak direla adieraziz, adibidez:

— **ilki, jalgi** eta **atera(tu)**;

— **zeroni** eta **zuhaur**;

— **iguzu** eta **emaguzu**, eta abar.

Ordea, bakoitza ohar bedi ez dugula deus aldatu “Azkuerekilako harremanak” deitu zatian (190. orrialdetik goiti). Hortxe, Adema-Zaldubik idatzi eta ‘Euskera’ aldizkariak argitaratu bezal-bezala datorkizue guzia; orduko idazkeraren ddasta bat ere izanen duzue horrela...

Dena den, uste dugu, guzien gozamenerako, hizkuntza zabala erabili duela Adema-Zaldubik, bere bihotzaren arabera, hunek Euskal Herri guzia besarkatzen baitzuen...

Guzien gaintik miresgarri dago haren idazkera.

Hots, euskarazko lan horiei eman artak erakusten digu gure hizkuntzaren alderako estimu eta maitasun bat neurrigabea: deus ez zaio sobera gure hizkuntzari emateko eginahalako ospea eta indarra!

I. liburukia:

Saindu batzuen biziaz		
	Hilabete/ egunak	Non eginak
Jondoni Bixintxo	01-22	Beskoitze? Hendaia? Uztaritze? Ziburu?
Jondoni Joanes Batista	06-24	Hazparne
Jondoni Petri	06-29	Senpere
Jondoni Juliano	08-02	Ortzaize
Andredena Maria	08-15	Ainhua? Aldude? Ahurti? Armendaritze? Arnegi? Azkaine? Bardoze? Bidarte? Baionako Katedrala? Heleta? Urepele?
Jondoni Zipriano	09-16	Lekorne
Jondoni Martine	11-11	Ahetze? Arrosa? Biriatu? Domartiri? Miarritzeko San Martin? Sara?
<i>Que soy era Immaculada Counceptiou</i>	12-08	
Santa Luzia	12-13	Atharratze
Jondoni Eztebe	12-26	Baigorri? Donoztiri? Ezpeleta? Makea? Urketa? Zalgize?

2. liburukia:

Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak	
	Nondik idatzi zituen
Ohore laborantzari Axeria eta akerra (1850 inguruan) Kuia eta ezkurra (1850 inguruan) Martin eta Katalin (1851) Ameriketarako bidean (1854) Otsoa eta xakurra Gatua eta arratoinak Haitza eta ihia	Apezgai zelarik edo Larresorotik (1850-1854)
Hitzuntzi (1857) Pilotariak (1857-1890)	Hazparnetik (1854-1860)
Xuriko (Mehetegiko xakurra) (1867) Asto bat errelekiekin (1864) Abereak izurritearekin (1866) Aita biltzaileari seme barreiarri (1865)	Bidarraitik (1860-1872)
Amaxo (1879) Mende jende mendre (1882) Pattin dirudun ez fededun (1880) Bildotsa eta otsoa (1873) (lehen saria) Belea eta axeria (1873) (lehen saria) Hartz bat eta bi ihiztari (1876) Hartz pereka latz (1882) Burdina eta baxera (1879) Beharraren indarra (1882) Otsoa eta amiamokoa (1887) Pello ikazkina (1889) Erleak eta liztorrak (1887) Elhez ez, nahiz biz (1888) Bettirisants (1875) (“Utsalegi” izenpeturik) (Biba) Errepublikak (!) (1876)	Atharratzetik (1872-1890)
Eskualdunak (1892) Gauden gu eskualdun (1893)	Baionatik (1890-1907)

3. liburukia :

Kantikak
Bada Jainko bat
Trinitate Saindua
Aingeruak
Munduaren hastea eta gure lehen burhasoak
Inkarnazionea
Jesusen bizia
Adora dezagun
Andredena Mariari
Amodio, ohore
Lurderat heltzean
Harpe Sainduaren aintzinean
Uholde baten pare
San Josep
Jondoni Petri
San Frantses Asisekoa
San Bernat/ San Bernardo
Santa Engrazi/ Santa Grazi
Sarrantzeko Andredena Maria
Betharrameko Andredena Mariari
Oi Gurutzea
Izar distiranta
Aita Sainduari
Eguberri (Gau min huntan)
Apez soberanoa

4. liburukia :

Prediku zenbait (Hazparden eginak 1854-1860)
[Eguberri : Jesusen sortzea]
[Jesusen izen saildua]
[Katixima jakin behar]
[Haurren giristinoki altxatzea]
[Haurren irakaskuntza eta hezkuntza]
[Lehen Jaun-hartzea edo komunioea]
[Trinitate Saildua]
[Mihi zikinak]
[Oraiko giristinoen lazakeria]
[Fedea ahuldu Frantziako Iraultzaren ondorioz]
[Euskaldunen fedea histen ari]
[Debozioea]
[Herio eta heriotze]

5. liburukia :

Alegiak eta bertze neurtitzak	
E n e l o r e a k	<p>Belea eta Axeria Kuia eta Ezkurra Akerra eta Axeria Abereak izurritearekin Otsoa eta Bildotsa Axeria, Otsoa eta Zaldia Dupina eta Eltzea Betirisants [1846] Betirisants [bigarren bertsioa] Denboraz Moro-Sarasinen eta eskualdunen artean gertaturika-ko gudu batez Eskualdunaren omore oneko kanta Eskualdunen omore txarreko kanta Primadera Zumalakarregi Andredena Mariari Zeruko Erreginari Aita Saindu, fedezko gauzetan ezin tronpa daite[kee]nari [Pilotari gazteak] [Chesnelong Jaunari] [Murde Diharassarry-ri] [Bidarrain nintzelarik] [Ene auzotegian bi senar emazte]</p>
[Bertze batzuen lorategietan bilduak]	<p>Zaldi zahar baten gainean Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak Zumalakarregi Alexisen heriotzearen gaineko bi artzainen solasak Lehen Errepublikako denboran egin zen besta baten gainean Bare baten gainean Eri baten gogoetak Eri baten liraren auhenak Ikazkinaren mandoa [Ezkerraren zamaria] [Solbezio arratsaldian, Arnegin, etxe batian] [Zer egin zare koplari zaharra ?]</p>

Paratzailearen oharra: beti bezala, makoeak [] erran nahi dute titulua guhaurk asmatua dela.

6. liburukia :

Bertze prediku batzuk
[Bataioa]
[Haur ttipien irakaskuntza]
[Haurren heziketa]
[Abitua, girixtinoaren zaindari]
[Jaunaren egoitza sakratua]
[Jainkoaren etxea errespeta]
[“Gure Aita zeruetan zarena...”]
[Girixtinoaren duintasuna]
Igande egunaz
Jesu-Kristoren Pasioneaz
[Ortzirale Sainduz]
[Nola bizi, hala hil !]
Jujamendu partikularraz
Azken judizioaz

7. liburukia (eskuartean duzuna) :

“Gaineratekoen bilduma”

Adema-Zaldubiren zazpigarren liburukia dugu hau eta oraingo ustez azkena. Horrek ez baitu erran nahi haren obra erraldoia osoki agortu dugunik. Jadanik errana dugu badirela kopiak doblezka, badira ere, han edo hemen eta bereziki apez egon den herrietan lerro anitz oraino biltzekoak.

Halarik ere, uste dugu mamitsuenak zazpi liburuki hauetan dauzkagula. Hain xuxen, eskuartean duzuna deitzeaz dugu “Zazpiak bat”: zazpigarrena delakotz, bistan dena, baina ere aldarrikapen hori edo horren erran-nahia orrialde hauetan indartsu errepikatzen delakotz; ikus:

—“Eskualdunen sorterriko kantua”, 188. orrialdean;

—“Eskualdun bestak”, Gernikako Arbola”-rekin batean! 197. orrialdean;

—“Eskualtzaleen Biltzarra”, ‘berebertasuna’ aipatzen du 265. orrialdean...

Hor dugu oraino ‘Mendiko artzain beltzaren’ azken bertso, aski adierazgarria 88. eta 92. orrialdeetan:

Frantseseriak sopra apaltzen bagaitik,

Hobe ginikek jarri berex Frantziatik,

Ai ai ai mutillak, berex Frantziatik !

Bereiz Frantziatik! Eta ez da apalago mintzo gure Adema-Zaldubi erdarazkoetan! Irakur otoi “*Les Traditions du Pays Basque*” Maulen egin zuen mintzaldi orhoitagarria bezain mirezgarria, 176. orrialdetik goiti!

Baina, jadanik aski aldiz errepikatua dugun bezala, idazki asko erlijioaren eta politikaren ingurukoak izanagatik, edizio hauek euskararen eta euskaldungoaren sustatzea dute helburu lehen. Hori gogoan izanik, hastapenetik aipatua genuen: “Gaineratikoak” atxiki dugu eta “bilduma” erantsi, gramatikalki egokitu ondoan, hau da “Gaineratekoen bilduma”.

Lehen sei liburukiak eskuizkribuetarik zetozen. Aldi huntan ere bada eskuz idatzizko zati bat, eta ez txarrena!^(*) baina gehienak datoz lehenago hain famatua izan zen ‘Eskualduna’ kazetan agertuetarik (1887-1903 eta 1908-1944; ‘Eskualdun Ona’: 1904tik 1907rat), bera bizi zelarik han publikatuak, edo hil ondoko urteetan berriz, egundainokotan, plazaratu zituztenak. RIE-Veko ikerlariak ere, beren aldetik, berdintsu egin zuten.

Berriki, ‘Lapurdum’ aldizkariak ere, arta handiz, interneten denen eskuko ezarri ditu lan horietarik gehienak.

Ikusiko dugu zazpigarren huntan gure Adema-Zaldubi, langile amorratua, beti bezain idazle ona, bai euskaraz, bai eta ere erdaraz; neurtizlari zorrotz eta jakintsu handia, geroztikako ikerkuntzek, batzuetan, haren iritziez bertzerik

badioskute ere. Ikusiko dugu oraino, ohargarria baita ene ustez, euskararen akademia baten beharra zein argi zeukan, 1894an jadanik, Azkueri idatzi zio-nean; ikus 190. orrialdetik goiti.

Argitaratu gabe geldituko dira aurkitu ez ditugun lan batzuk, hala-nola Aldude herriaz edo Sakramendu sainduaz... Geldituko da argitu gabe bereziki bere egutegi pertsonala, bederatzi tomo! Ezin agertua: etxeko aferak ere baitakartza. 9.a eskuan izan dugu. Ikaragarria da, egunean eguneko hainbertze xehetasunekin! Hil arte artoski bete zuen... Bakarren xehetasunak aurkituko dituzte hor, ondoko belaunaldiek, noizbait... agian...

Orain, milesker zuri, Gratien Adema-Zaldubi, holako lekukotasun aberatsa bezain kartsua utzirik: bortzpasei urtez zurekin bizi izan naiz, ondoan izan bazintut bezala! Ni ez bezalako langilea mereziko zuen zure obrak, baina! Argi eta garbi daukat orain, euskararen eta Euskal Herriaren alde maitasun hutsez egin lanak, noizbait bederen, ahantziaren ilunpeak nolabait zilatzen eta zilatuko dituela.

Milesker bihotz-bihotzez Ales Bengoetxea, Xabier Altzibar eta Piarres Charritton jaunei: horien lanak begien aitzinean izan ditut azken urte hauetan, gero guziak ene jakintza maila apalaren arabera paperean paratu baldin baditut ere.

Milesker zuri Andres Urrutia Euskaltzainburu jauna, burutik buru, zuk egin didazun konfidentziak gain-gainetik sustatu bainau.

Ez dut ahanzten, bistan dena, Euskararen Erakunde Publikoa diruztatzailetarik bat izan dena haste-hastetik.

Eta zuri, Irakurle, hau guzia, zerbaitetan, probetxugarri izan dakizula.

2012ko uztailean.

Henri Duhau


(*) 'Mendiko artzain beltzaren neurtitzak' deitu zatiaz ari naiz hor. Hain xuxen, duda galantak izan ditugu eskuizkribu horiek liburuki huntan sartzerakoan, jadanik agertuak ditugun bertso batzuen lehen bertsioak baitira (ikus: "Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak", Euskaltzaindia, Bilbo, 2008). Ordea, desberdintasun handiak badira hauen eta haien artean eta iruditu zaigu interesgarria izan zitekeela desberdintasun horien ikerlarien bistan ezartzea. Bertzalde, hain dira ederki idatziak eta apainduak, nolaz utz zoko batean?

Gaineratekoen bilduma


Mendiko artzain beltzaren neurtitzak
Une partie de rebot à Irun en 1847
Santa Luzia (1872-1890)
Aita Beneditanoeri (1875)
Eskualdun beilariaren bidaltzailea (1877)
Tribunaletako Gurutzefiken kentzeaz (1880-1890)
Sainte-Engrâce (1886)
Les Traditions du Pays Basque (1887)
Eskualdunek Aita Sainduari (1888)
Bibliographie: Le nouvel ouvrage du Père Joanateguy (1890)
Eskualdunen sorterriko kantua (1892)
R. M. Azkuerekilako harremanak (1894-1901)
Eskualdun bestak (1894)
Notice sur le jeu de paume au rebot (1894)
Donibane Lohizuneko pilota partida errebotekoa (1896)
Laborariak ez oraino etsi, irakurrazue hau (1896)
Donibaneko erreboteko partida (1897)
Larresoroko kantu berriak (1898)
Leo XIII. Aita Sainduaren otsaldia (1898)
Quelques règles de la prosodie ou art poétique basque (1899)
Eskual Herriko eliza bestak (1899)
Eskualtzaleen Biltzarrari (1901)
[*Déroulède*] (1902)
Biba Bidarraï ! (1906)
Curiosités synonymiques basque-japonais (1906)
Jesu-Kristoren Pasionea
San Joanes Batista Salhakoia

Gratien ADEMA “ZALDUBI” (1828-1907)

Gaineratekoen bilduma




Paratzailaren oharra: « Mendiko Artzain beltzaren neurtitzak » eskuizkribuaren estalki ederra dugu hau. Idazkuna, haatik, guhaurk ezarria da ondoko orrialdean agertzen den marrazkikoari jarraikiz (Old English). H.D.



Paratzailearen oharra: marrazkiak Adema-Zaldubi berarenak dira. Lehenik forma ematen zien arkatzez gero tintatzeko. Hizkien goratasuna eta zabaltasuna halaber ongi neurturik. H.D.


Bildotcha eta Oxoá.

Primadera goix bateg
chirripa batera
Bildotch bat ama gabe
gan cen edatera.
Hantchet ari celaric
churga churga bera,
Oihanetic oxoa
citxaion athera.



- « **Anaia** huen hura
 « hi ez balin bahair. »
 - « **Ex** dut nic anaiaric;
 « ume bakharra nair. »
 - « **Xuetaric** bat xuan
 « entzun dudara maiz
 « **Arneguz** desiratzen
 « niri cer nahi gaitz. »

Kortan cen bildotchari
 oldartu oxsa...
 Eta bi clascax xuen
 irexi gaichoa.
 - **Arrearrac** duenean
 partida flacoa
 Hoancia xoinena den
 erran gabe doha.



Bildotxa eta Otsoa

Primadera goiz batez xirripa⁽¹⁾ batera
Bildotx bat ama gabe jua zen edatera
Hantxe ari zelarik xurga-xurga bera
Oihanetik otsoa zitzaion atera.

Otsoak goraxago xirripan sarturik :
« Ur hau erraiten dio zikintzen dautak hik »
Bildotxak arrapostu : « Jauna, nik segurik,
Hemendik ez dezaket zikin zure urik. »

« **Kixkil** txarra orhoit nauk jaz hi ari hintzen
Ene fama onaren orotan funditzen. »
« Jaz ni oraino, Jauna, sortzekoa nintzen,
Amaren ttittira naiz orai ere heltzen.»

« **Anaia** huen hura hi ez balin bahaiz ! »
« Ez dut anaiarik ume bakarra naiz.»
« Zuetarik bat zuan entzun dudana maiz,
Arneguz desiratzen niri zernahi gaitz.»

Hortan zen bildotxari oldartu otsoa
Eta bi klaskaz zuen iretzi⁽²⁾ gaixoa.
Azkarrak duenean partida flakoa,
Auzia zoinena den erran gabe doha.

Otsoak bildotxari egin zioena
Jainko legetik kanpo nork orai kondena ?
Ez galda gehiago noren den zuzena,
Bainan bai zoinek duen indar gehiena.

⁽¹⁾ erreka (ttiki) bat


⁽²⁾ bi ahotara indartsu eta ozenez irentsi

Belea eta Acheria .s

Zasan ahalicaco
citi bat mocoan
Belea geldi xagon
haitz baten cascoan.
Acheria ihicin
han gairdi baitzohan,
Usainca eta beha
tricatcen xais han.

« Egun on, Musde Bele,
 « cein edes xaren zu!
 « Luma beltch pullit hortaz
 « ni choratcen nauzu.
 « Cantari charmant baten
 « ere sama duxu :..
 « Entzun nahi cintuxket
 « othoi canta xazu. »

- Coac-coac! hor hasten xai
 belea cantatcen,
 Moco duclaxic
 cehe bat largatcen.
 Haragi pusca xai
 lurrerat erortcen:
 Acheria hain chuchen
 altchatceco han cen!



Acheriac: « Moilester,
dio Beleari,
« Zaki hau hartzen daiat
« hitz on hunen sari:
« Ex gaitela to fida
« laudorioari,
« Ex eta guhaurrexco
« ederrusteari. »

Belea eta Axeria

Jasan ahalikako zitzi bat mokoan
 Belea geldi zagon haitz baten kaskoan
 Axeria ihizin han gaindi baitzohan
 Usainka eta beha trikatzen⁽¹⁾ zaio han.

« **Egun on** Musde Bele⁽²⁾ zein eder zaren zu !
 Luma beltz pullit hortaz ni xoratzen nauzu.
 Kantari xarmant baten fama ere duzu ;
 Entzun nahi zintuzket otoi kanta zazu. »

Koak, koak ! hor hasten zaio belea kantatzen
 Mokoa duelarik zehe bat largatzen⁽³⁾
 Haragi puska zaio lurrerat erortzen :
 Axeria hain xuxen altxatzeko han zen !

Axeriak « Milesker dio beleari,
 Jaki hau hartzen daiat⁽⁴⁾ hitz on hunen sari :
 Ez gaitzela fida laudorioari,
 Ez eta guhaurezko eder usteari.

(1) gelditzen zaio han

(2) Bele Jauna

(3) pixka bat irekitzen

(4) diat

Acheria eta Akherria.

Akher zahar bat eta
Acheria behin
Bidaiar barohacin
biac elgarrekin.
Egarritu-ta gero
nun edan ez jakin:
Putru barna batera
zuten jauzi egin.


Wantchet ase ondoan
beren egarría,
Putxutic goiti beha
dago acheria.

« Hauche da lana, dio,
« hauc cilho bitchia!
« Noichtian hain sar errech,
« orai chutegia!

« *Er gaiten* biac hemen
« seculacotx geldí,
« Jodi zac to gogora
« cer jen xaitan niri.
« Daretari chut-chuta
« hortche eman hadi,
« Upa nadien hire
« adarratan gaindi.

Akherrac lorietan :
baitz bai gogotie .
Erran bezala beraz
pharaten da chutic :
Acheria campora
hola da putzutic : ...
Orai ather gaizoa
ilkhi bedi hortie .

Acheriac campotie
akherrari oihu :
« Bizar ducan becembat
« cosco izan bahu
« Sartean behar hinteen
« atheraz orhoitu .
« Adios , nie hemendie
« gan behaiat xalhu .



Axeria eta Akerra

Aker zahar bat eta axeria behin
Bidaiaz bazohazin biak elgarrekin
Egarritu-ta gero nun edan ez jakin
Putzu barna batera zuten jauzi egin.

Hantxe ase ondoan beren egarrria
Putzutik goiti beha dago axeria
« Hauxe da lana, dio, hau zilo bitxia !
Aixtian hain errex orai xutegia ! »

« **Ez gaiten** biak hemen sekulakotz geld
Adi zak to gogora zer jin zautan niri :
Paretari xut-xuta hortxe eman hadi
Hupa nadien hire adarretan gaindi.»

Akerrak lorietan baietz bai gogotik ;
Erran bezala beraz paratzen da xutik.
Axeria kanpora hola da putzutik
Orai aker gaixoa ilki⁽¹⁾ bedi hortik.

Axeriak kanpotik akerrari oihu :
« Bizkar dukan bezenbat kasko izan bahu
Sartzean behar hintzen jalgitziaz⁽²⁾ orhoitu
Adios nik hemendik juan behaiat zalu⁽³⁾. »

Oi ! zenbat azeri den oraiko mendean
Gobernatzaile berri horien artean
Gure gostuz indarra hartu dutenean
Errekan eman eta uzten gaituzte han.

(1) jalgi / atera

(2) ateratzeaz


(3) joan behar diat berehala

Asto errelekiuz cargatua.

*Asto bat cargatua
erreleki sainduz
Bi fraidec eramaten
pampalina soinu .
Zendeac erreleki
saindu hoier buruz
Belhaunicatzen ciren
ohorezco moduz .*

Astoa ustex eta
hari ari zaizcon, ...
Urquilia burua
horra nun dohacon.
-Nor gare qu? - fierrez
ex daqotie nikon.
Oro baino gorago
ahal cela cion.

Forbeit chartu baitcen
engario horri,
Jo eta erran cion
« Ah! cer astoa hi!
Ex gaituc ex agurca
hiri buruz ari
Bainan bai bizcarrean
deramacanari.



*Cembat den bazterretan
asto horren pare!
Aberax direlacotz
baitute ohore.
Sosdunac izaitecotz
ohorea bere
Behar luke diruar
bertcerican ere.*

Asto errelekiz kargatua

Asto bat kargatua erreleki sailduz⁽¹⁾
Bi fraidek zeramaten panpalina soinu
Jendeak erreleki saildu hoier buruz
Belaunikatzen ziren ohorezko moduz.

Astoak ustez eta hari ari zaizkon,
Urguilua burura horra nun dohakon.
Nor gare gu ? fierrez⁽²⁾ ez dagoke nihon,
Oro baino gorago ahal zela zion.

Norbeit ohartu baitzen enganio horri
Jo eta erran zion : « A ! zer astoa hi !
Ez gaituk ez agurka hiri buruz ari,
Bainan bai bizkarrean deramakanari.»


Zenbat den bazterretan asto horren pare,
Aberats direlakotz baitute ohore.
Sosdunak izaitekotz ohorea bere
Behar luke diruaz bertzerikan ere.

(1) *relique(s) sainte(s)*

(2) harrotasunez


Adichkide hartz moldegaitz.

Zaun batec omen zuen
hartz escolatu bat :..
- Hartz maitagarria cen
jin hori mundurat.
Zaunac manatu gabe
harat edo humat
Hartzac oro cioxcan
ematen escurat.



Hartzaren nauzi hori
behin baratzean
Ahoz gora lo ragon
etxara lurrean.
Hartzac han dagolaric
haren zain aldean
Uli bat hor icusten
dio sudurrean.

Behar diola hortie
uli hori khendu,
Hartzac bi kintaleco
harri bat hartzen du.
Hartzac jo eta du bai
ulia lehertu
Bainan jaunari ere
burua chehatu



Aichkide moldegaitce
holache daucute
On baino gehiago
maix egiten calte.
Bihotzarekin balitz
buru-ta berthute,
Atchikimendu ona
orduanteche laite !

Adixkide hartz moldegaitz

Jaun batek omen zuen hartz eskolatu bat :
Hartz maitagarria zen jin hori mundurat.
Jaunak manatu gabe harat edo hunat,
Hartzak oro ziozkan⁽¹⁾ emaiten eskurat.

Hartzaren nausi hori behin baratzean,
Ahoz gora lo zagon etzana lurrean.
Hartzak han dagolarik haren zain aldean
Uli⁽²⁾ bat hor ikusten dio sudurrean.

Behar diola hortik uli hori kendu,
Hartzak bi kintaleko harri bat hartzen du
Hartzaz jo eta du bai ulia lehertu
Bainan jaunari ere burua xehatu.


Aixkide moldegaitzek holaxe daukute⁽³⁾
On baino gehiago maiz egiten kalte.
Bihotzarekin balitz buru-ta bertute,
Atxikimendu ona orduantxe laite⁽⁴⁾.

(1) zizkion

(2) euli

(3) digute

(4) litzateke



Aberetan izurritea ∞

Izurrite gorria
baitcen aberetan,
Zustecoac ciren
oro ikharetan.
Hobendun handi cembeit
bide cela hetan;
Gogora jin citraien
gucieri betan.

Wamicaho lehoia
errege baitxuten,
Harc manatzen diote
guciac bil diton.
Koin den hobendunena
atcheman dexaten :..
Deren hiltzea baino
hobe dela baten.

Biltzarre hoi haren
gana bildu eta,
Kuna Wamicahoren
mintzatce onhesta :
-« Jaunac, izurrite hau,
« dudarican ez da,
« Mercei ez baginu
« ez liteke gertha. »

« *Noren* saltax gaitz hoxi
 « sarthu den gutara ;...
 « Bakhotchac gure huxac
 « detragun declara.
 « Gaichtoena bicixic
 « urten balin bada
 « Ezurrite hau nihoix
 « ex daitete bara. »

« *Ar* hasten naiz neureen
 « aithorteen lehenic.
 « Ardi, aithiro, asco
 « hil eta jan dut nic ;
 « Artrain combeit ere bai
 « gerla hec emanic.
 « Ex dut uste badudan
 « nic bertce hobenic. »

« *Biba* Lehoia, xai
Acheria hasten,
« Aordi eta artzainac
« cintuela jaten!...
« Ez dut uste nie hori
« hain crima gaitza den.
« Zuc janio iratea
« eder baitcixaien. »

Acheriac arroxin
duela diote ...
Lehoinari: « Hoben duc, »
nehhex eran daite.
Kartec eta oxoc
berdin aithor dute
« Nec ere bai eginio
asco lan tchar suerte.

Bainan horiee ere
handi eta axcar:...

Holaco: ihicier

nor daithe jaxar?

Hoi en huxac ex dire
deusie ixan behar;...

Hambat dute churitsen
handi hoie elgar.

Gero haaxpeherax hor
astoa heldu da.

« Contcientian, dio,


« Hau dut errencura:

« Igortzen baininduten

« etchetie barura,

« Bideco belharretie

« jan dut nie ardura .»



Asto horren aithorra
duteia bai entzun
Denec oihux diote :
« Hoi haix hi hobendun.
« Seculan nor ixan dan
« Hoin ohoir, hoin ficun ?
« Horra gure gaitx txarrac
« nor eman dauxtigun.

Sixagairzo astoa
hantche berehala
Hiltcen dute gaichtagin
handi bat bexala.
— Munduaren artean
ere hala hala
sacrificatua da
maix jende aphala.

Aberetan izurritea

Izurrite gorria⁽¹⁾ baitzen aberetan
Ikustekoak ziren, ori, ikaretan
Hobendun⁽²⁾ handi zenbeit bide zela hetan ;
Gogora jin zitzairen guziera betan.

“Hamikaho” lehoia errege baitzuten,
Hark manatzen diote guziak bil ditzen.
Zoin den hobendunena atxeman dezaten,
Denen hiltzea baino hobe dela baten.

Biltzarre hori harengana bildu eta,
Huna Hamikahoren mintzatze onesta :
« Jaunak, izurrite hau dudarikan ez da,
Merezi ez baginu ez liteke gerta.»

« Noren faltaz gaitz hori sartu den gutara,
Bakotzak gure hutsak detzagun deklara.
Gaixtoena bizirik uzten balin bada,
Izurrite hau nihoiz ez daiteke bara.»

« Ni hasten naiz neureen aitortzen lehenik :
Ardi, zikiro asko hil eta jan dut nik ;
Artzain zenbeit ere bai gerla hek⁽³⁾ emanik
Ez dut uste badudan nik bertze hobenik.»

(1) izurrite ikaragarria

(2) errudun

(3) haiek

« **Biba** lehoina ! zaio axeria hasten,
Ardi eta artzainak zintuela jaten !
Ez dut uste nik hori hain krima gaitza den :
Zuk janik izaitea eder baitzitzaien.»

Axeriak arrazoin duela diote⁽⁴⁾
Lehoinari hobendun nekez erran daite⁽⁵⁾
Hartzek eta otsoek berdin aitor dute,
Hek ere bai eginik asko lan txar suerte.

Bainan horiek ere handi eta azkar
Holako ihizier⁽⁶⁾ nor daiteke jazar ?
Hoi en hutsak ez dire deusik izan behar
Hanbat dute xuritzen handi hoiek elgar.

Gero haspeheraz⁽⁷⁾ hor astoa heldu da:
« Kontzientzian, dio, hau dut arrangura :
Igortzen baininduten etxetik barura,
Bideko belarretik jan dut nik ardura.»

Asto horren aitorra duteia ba entzun
Denek oihuz diote : « Hi haiz hi hobendun !
Sekulan nor izan den hoin ohoin, hoin frikun ?
Horra gure gaitz txarrak nork eman dauzkigun.»

Gizagaizo astoa hantxe berehala,
Hiltzen dute gaixtagin handi bat bezala.
Munduaren artean ere hala-hala
Sakrifikatua da maiz jende apala.

(4) diotsote (?)

(5) erran daiteke

(6) ihiziei , ehizei


(7) hasperenaz

Khuia eta Hexcurra.

*Haitz baten itzalean
onxa jan edana,
jaun sabant bat baxagon
gogotan etzana.
« Haitzac hexcurra eta
« Khuia nun emana! »
Ex citraioen chuchen
gaincoaren lana.*

«*Ai* Jainco ixan banintx,
cion bere baithan,
«*Khuiac* beharcs cian
«*haitx* adar hoietan.
«*Hexcur* picor hoi aldix
«*gisago* xuketan
«*khuiaren* girthoinetic
«*lurrean* estecan.»

Gogota hortan jauna
noixbeit da lokhartcen:
Hexcur bat suduxerera
hor xais exortcen: ...
Odola dariola
da laster atxartcen: ...
Beharic hexcur hoi
khuia bat ex baitcen!



*Zaincoac egin gauzac
chuchen dire denac,
Gorenac becein onxa
berdin aphalenac.
Gizon abil batxuen
asnu sabantenac
Dire mundu hau bethi
mahirteen dutenac*

Kuia eta Ezkurra

Haitz⁽¹⁾ baten itzalean ontsa jan edana⁽²⁾
Jaun sabant bat bazagon gogotan⁽³⁾ etzana
Haitzak ezkurra eta kuia nun emana !
Ez zitzaion xuxena Jainkoaren lana.

« **Ni** Jainko izan banintz, zion bere baitan,
Kuia beharko zuan haitz adar hoietan.
Ezkur pikor hoi aldiz gisago zukeian⁽⁴⁾
Kuiaren girtoinetik lurrean estekan.»

Gogota hortan jauna noizbeit da lokartzen
Ezkur bat sudurrera hor zaio erortzen
Odola dariola da laster atzartzen :
Beharrik ezkur hori kuia bat ez baitzen !

Jainkoak egin gauzak xuxen dire denak
Gorenak bezein ontsa berdin apalenak
Gizon abil batzuen asmu sabantenak
Dire mundu hau beti makurtzen dutenak.

(1) haritz

(2) jana eta edana

(3) gogoetetan

(4) zatekeen, toka

*Aita chuhurregi,
Seme barraiari .*

*Aberax cikhhoitz batec
metaca diruac
Bethi cutchan xagozcan
onxa galkhatuac.
Semetto bat baitruen,
hor atrebituac
Harrapatcen diozca
oro urdinduac.*

Muthico fricun horrec
diruaren plazan,
Osi kintaleco harri
sartcen ditu kutchan.
Aita heldu da bainan
dirurican ex han!
Phenxatcen du semea
xaiola han ixan.

«*Ah!* seme gaichtagina!
« cer egin dautac hic,
« Neure diru maiteac
« ebaxiz cutchatic!
« Nola nagoxcaian hor
« bain oso badatic.
« Changrinez hil behaiat
« orai hire gatic!

Semeac: « Bainan, aita
 deus ex duxu galtcen:
 Harri hoiee xaitxitru
 berdin baliatcen.
 Dos hec ex ciren xure
 begientzat baicen,
 Ex cintuenax geroz
 secularan ukhiteen.

Erran-zahar hau ex da
 arroxoin gabea:
 Cikhoitxaren semea
 maix chahutxailea.
 Chuhur ex chuhurregi,
 da zucen legea
 Jeneros ex moldegaitz,
 horra berthutea.

Aita xuhurregi, Seme barraiari

Aberats zikoitz batek metaka diruak
Beti kutxan zerauzkan ontsa gakatuak.
Semetto bat baitzuen hor atrebituak
Harrapatzen diozka oro urdinduak⁽¹⁾.

Mutiko frikun⁽²⁾ horrek diruaren plazan
Bi kintaleko harri sartzen ditu kutxan
Aita heldu da bainan dirurikan ez han !
Pentsatzen du semea zaiola han izan.

« **A !** Seme gaixtagina ! zer egin dautak hik ?
Neure diru maiteak ebatsiz kutxatik !
Nola nik nauzkaian⁽³⁾ hor hain oso badakik
Xangrinez hil behaiat⁽⁴⁾ orai hiregatik.»

Semeak : « Bainan, aita, deus ez duzu galtzen,
Harri hoiek zaizkitzu berdin baliatzen.
Sos hek ez ziren zure begientzat baizen
Ez zintuenaz geroz sekulan hunkitzen.

Erran zahar hau ez da arrazoin gabea :
Zikoitzaren semea maiz xahutzailea.
Xuhur ez xuhurregi da zuzen legea
Jeneros ez moldegaitz horra bertutea.

(1) herdoilduak


(2) doi bat ohoina edo lapurra

(3) neuzkaan

(4) behar diat

Hartz bat eta bi ihixlari.

Larrugin bati behin
bi Santanracitar:
- « Oihanian duqu hartz bat
« hil gogoa bihar.
« Haren larrua xuri
« duqu saldu behar »
Gratia egin xuten
hamar untza cilhar.



Hartza lurcan dagon
 horren gana doha.
 Galtzetarat eginic
 han zagon gairca!
 Hartzac usainca dio
 hurbiltcen ahoa...
 «Ihu! dio, hau hila da:
 hauc urrin gaichtoa!»

Aphix bat ibilic
 higi-ta ingura,
 Gibel aldetic cion
 sendi usteldura.
 Uteci zuen jan gabe
 ex baitcen barura.
 Beharrie cen hain ñaphur
 goix hartan hartz hura.

Hila celacoari

Hartzia urrundu.ta
Laguna heldu zaio :
« Erac to, ez utiha ;
« Hartzia ari baitzuan
« hiri mandatuca :
« Cer erran othe daucan
« emac erreputa.

« Beharritat hurbilduz »

« sudur eta hortzac
« Huna cer erran dautan
« alimale gaitzac :
-« Bertce aldi bateco
« hau gogoan har zac :
« Larrua saldu gabe
« hil behar die hartzac »

Hartz bat eta bi ihiztari

Larrugin bati behin bi santagrazitar :
 « Oihanian dugu hartz bat hil gogoan bihar.
 Haren larrua zuri dugu saldu behar »
 Tratua egin zuten hamar untza⁽¹⁾ zilar.

Bi ihiztari hoiek biharamunean,
 Harzketa ziren goizik sartu oihanean :
 Iduri hitzarturik orduan berean,
 Hartz eder bat xut-xuta agertzen zaie han.

Hartza hek uste baino handixago baitzen,
 Gure ihiztariak hor dire izitzen
 Bat pago bati gora zalu da hupatzen⁽²⁾
Bertzia alegia hila lurrean etzan zen.

Hartza lurrean dagon horrengana doha,
 Galtzetarat eginik han zagon gaizoa !
 Hartzak usainka dio hurbiltzen ahoa,
 « Pu !, dio, hau hila da : hau urrin⁽³⁾ gaixtoa !»

Apur bat ibilirik higi-ta ingura,
 Gibelaldetik zion sendi usteldura
 Utzi zuen jan gabe ez baitzen barura
 Beharrik zen hain ñapur goiz hartan hartz hura.

(1) *once* ; deus guti

(2) igaiten, igotzen

(3) usain

Hila zelakoari hartza urrundu-ta
Laguna heldu zaio : « Errak to ez uka :
Hartza ari baitzuan⁽⁴⁾ hiri mandatuka ⁽⁵⁾
Zer erran ote daukan emak errepusta.»⁽⁶⁾

« **Beharriat** hurbilduz sudur eta hortzak,
Huna zer erran dautan alimale gaitzak :
Bertze aldi bateko hau gogoan har zak
Larrua saldu gabe hil behar dik hartzak.»

⁽⁴⁾ baitzen (toka, Senpereko molde berezian)

⁽⁵⁾ galdezka

⁽⁶⁾ ihardespena, erantzuna

Eltcea eta tupina.

*Eltce lurrexco bati
burdin tupina bat
Bethi galdex xagocon:
«haugi nere ganat;
Neure dor herriraino
orai gan behainat.
Guacen' dgarretilan
hi Gaña ni Bernat.*


Eltceac errepusta :

« Bernat, ni zurkin,
« Ex bainix asti arcar,
« Ex naitkeru jin.
« Bideco harri batec
« huntin gerox behin,
« Adio! hamar pusketan
« nindete desegin. »

« *Paña*, dio tupinac,
« ex hoin beldurixan.
« Cer gogoratu xaitan
« huna no, adixan.
« *Barries* ex hausteco
« ni berme har' naxan
« *Atchitico* haut bethi
« nic neure gerixan.

Bidean bincun trancun
 dire abiatcen.
Cupina eltceari
 sahexez da jartcen:
 Bainan aus arkichegi
 baitcen balambatcen,
 hise eta cose eltcea
 laster du cilhatcen.

Eltceari turinac
 egin malecia
 Jendetan ere usu
 dut nie icusia.
 Munduco uraxetan
 huma zuhurtia:
 Edo xoin lagunekin
 ex qaiten abia.



Eltzea eta Tupina

Eltze lurrezko bati burdin tupina bat
Beti galdez zagokon⁽¹⁾; « Haugi nereganat ;
Neure sor herriraino orai jua behainat⁽²⁾
Guazen elgarrekilan hi Gaña, ni Beñat.»

Eltzeak errepustaz : « Beñat ni zurekin
Ez bainaiz aski azkar ez naitekezu⁽³⁾ jin
Bideko harri batek hunkiz geroz behin
Adio ! hamar pusketan nindeke⁽⁴⁾ desegin.»

« **Gaña** dio tupinak ez hoin beldur izan
Zer gogoratu zaitan huna no adizan :
Harriek ez hausteko ni berme har nazan
Atxikiko haut beti nik neure gerizan.»

Bidean trinkun-trankun dire abiatzen
Tupina eltzeari sahetsez da jartzen.
Bainan ausarkixegi baitzen balanbatzen
Kisk eta kosk eltzea laster du zilatzen.

Eltzeari tupinak egin malezia
Jendetan ere usu dut nik ikusia ;
Munduko urratsetan huna zuhurtzia :
Edozoin lagunekin ez gaiten abia.


Handien konpainian munduko bidetan
Ttikia badabila maiz bere kaltetan.
Ez ote luke hobe hein berekoetan ?
Hein bereko lagunak ongi duatzi betan

(1) zegokion

(2) behar dinat

(3) naiteke, zuka

(4) nintzateke



Chauchundegico chakhurra.

*Chauchundegico chakhurra
Kangoz errainex makhurra,
Berga bat luce muthurra,
Larrutic hurbil hechurra;
Urthe gucian barurra,
Ceren cen lekhu chuhurra.*

Amaç Hikitic utcia,
 Esneric gabe hacia,
 Gripa errainei josia,
 Ulicc jaten hasia;
 Churicoc bere bicia
 Xola derama gucia!

Mahainpetic cocorico
 Guardian dago Churico
 Artho achaltto bat noixco
 Othe xaion erorico :..
 Nausiac ematen daixco
 Dohan hortie bi ostico.

Chathurraren deihadarra,
 Xausi diola xangarra:
 Ex du hori min batxarra
 Ingoitic jasan beharra:
 Xaxca bethi cirri-xarra,
 Larrutua du bixarra.

Baratcean oilo baitcen,
Churico dute huiatcen;
Baterex ditu haixatcen,
Ex eta ere saingatcen.
Buxtara apha! da jartcen,
Eta ihes abiatcen

Etchea Andrea bera
Da sukhaldeic athera
Chakhur tcharraren jotcera.
Bainan Churico gorde da,
Gordeca juañ da etchera
Goseric baitcen jaterra.

Sukhaldean nihor ex da:
Sartcen da chakhur herresta:
Ceren cen elixa besta
Exetia cen prespresta.
Usain milica' ta jasta, . .
Dena jaton du has eta .

Eteheco andre khechua
 Hoor heldu da haxhauntua :
 « Potxo madaricatuia ,..
 « Eia hor usu usua ,
 « Nic haxxi gabe burua
 « Eginexac ordenua . »

Estamentac du lan beltza ,
 Oro utzteia bertcentza !
 Churicoren hil emaitza ,
 Cer izan cen , gaiten mintza .
 Etchecanõriarentza gantza
 Nansiari axken putza !

Bician gose egonic
 Xiltceon sobera janic
 Churicoc daucu emanic
 Jobisu bat onxa onic .
 Behi gosearen ganic
 Ex ñaite nahi den lanic .

Xauxundegiko⁽¹⁾ Xakurra

Xauxundegiko xakurra zangoz errainez makurra
Berga bat luze muturra larrutik hurbil hezurra
Urte guzian barura zeren den toki xuhurra.

Amak ttikitik utzia esnerik gabe hazia
Tripa errainei josia uliek jaten hasia
Xurikok bere bizia hola derama guzia !

Mahainpetik kokoriko guardian dago Xuriko
Arto axaltto bat noizko ote zaion eroriko :
Nausiak ematen daizko dohan hortik bi ostiko.

Xakurraren deiadarra hautsi diola zangarra
Ez du hori min bakarra ingoitik jasan beharra
Hazka beti zirri-zarra larrutua du bizkarra.

Baratzean oilo baitzen Xuriko dute huiatzen
Batere ez ditu haizatzen ez eta ere saingatzen
Buztana apal da jartzen eta ihes abiatzen.

⁽¹⁾ 'Xauxuna' da gauza ttiki-ttikienari ere kasu egiten diona.

Paratzailearen oharra: kantu hau jadanik argitaratua dugun "Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak" liburukian ere aurkitzen dugu, doi bat hobeturik eta osaturik. Hemengoa, kantu famatu horren lehen bertsoietarik bat dateke. Bertso guzietan barna, ikusgarria da zoin ederki betetzen duen lerro Erdiko rima ere :

Xauxundegiko xakura zangoz errainez makurra
Berga bat luze mutura larrutik hurbil hezurra
Urte guzian barura zeren den toki xuhurra.

Etxeko andrea bera da sukaldetik atera
Xakur txarraren jotzera bainan Xuriko gorde da
Gordeka jua da etxera goserik baitzen jatera.

Sukaldean nihor ez da sartzen da xakur herresta
Zeren zen eliza besta errekoa zen prest-presta
Usain milika-ta jasta dena jaten du has-eta.

Etxeko andre kexua hor heldu da hatsantua :
« Potzo, madarikatua eia hor usu-usua
Nik hautsi gabe burua egin ezak ordenua !»

Testamentak du lan beltza oro uztea bertzentza[t]
Xurikoren hil emaitza zer izan zen gaiten mintza :
Etxekandriarentzat gantza nausiarri azken putza !

Bizian gosez egonik hiltzean sobera janik
Xuriko dauku emanik abisu bat ontsa onik :
Sehi gosearengatik ez daite nahi den lanik.

Etcheco gerla

Nic baditut hauzoan
bi senhar emaxte,
biac jori-ta azcar,
ex zahar ex gaste.
Bethi goix goixa balitz
bater ase laixte:
Ariacaldetan dute
gerla bethi haste.

Piarres itho laite
 arnoan gogotic ;
 Catalinec behar du
 garratchagocotic.
 Nun nahi exagun da
 gizona harotic ;
 Emarteia ichilca
 ari da chokhotic.

Piarres ostatutic
 gorri eta bapio
 Etcherat uste gabex
 heldu da beranchico .
 Catalin hein bat khechu
 beha han dagoco
 Axtkenic edan ttotta
 burura dohaco .

- « *Hox* hiz'a gormant txarra?
« hor hiz hordi handi?
« Ah! cer etche jalea
« hartu hindudan hi!
« Nic baicen noxe hindutke
« etchian jasan nahi?
« Gixontrat baino hobe
« hindetken zahagi. »

- « *Hox!* Cattalin gaichua,
« ex bada hasarra:
« Kuc eta nic badugu
« elgarren beharra.
« Zu nere bihotcean
« cintuxket bakharra,
« Zu baino estichago
« ex balitz nafarra!

« **Hic** irexi nafarrac
 « ex naic ni exiteen :
 « Hure hasac cerantac
 « bihotra ttigitcen.
 « Hoi hor habilalaric
 « asetcen horditeen,
 « Gosex eta egarriz
 « ari nauc ni hiltcen.

« **Cho!** cho! hox, ichil hadi,
 « hil gabe Catalin.
 « Emadan bakea no,
 « hire mocoekin.
 « Berlac deus onic ex din
 « hiretxat enekin ;
 « ja nola hautan heci
 « frangotan badaikin.

Emaxteac furian
hartzen du erkhatra.
Gizona bihurtzen da,
iduri du hartza.
Bat bertceari joca
biac hor dabiltra
Harrigarri da hoi
haro harramantra.

Emaxtea: hel hel hel!
oihuca hasiric
Banohacote loxaz
ixan xadin hilic.
« Xox bada othoi, biac
« zaudexte geldiric! »
Biee xampatu naute:
Hoi dut mercei nic.

Etxeko gerla

Nik baditut auzoan bi senar-emazte
Biak jori-ta azkar, ez zahar, ez gazte
Beti goiz-goiza balitz bakez ase laizte⁽¹⁾;
Arratsaldetan dute gerla beti haste.

Piarres ito laike⁽²⁾ arnoan gogotik
Katalinek behar du garratxagokotik⁽³⁾
Nun-nahi ezagun da gizona harotik⁽⁴⁾
Emaztea ixilka ari da xokotik.

Piarres ostatutik gorri eta bapo
Etxerat ustegabez heldu da beranxko
Katalin hein bat kexu beha han dagoko
Azkenik edan ttotta burura dohako.

« **Hor** hiza gormant txarra ? hor hiz hordi handi ?
A ! zer etxe jalea hartu hindudan hi !
Nik baizik nork hinduke etxian jasan nahi ?
Gizontzat baino hobe hindeken zahagi⁽⁵⁾.»

(1) lirateke

(2) liteke

(3) biziagoa, alkoholtuagoa

(4) arrabotsetik

(5) zahako handi

« **Hots !** Kattalin gaixoa ez bada hasarra :
Zuk eta nik badugu elgarren beharra.
Zuk nere bihotzean zintuzket bakarra
Zu baino eztixago ez balitz nafarra⁽⁶⁾! »

« **Hik** iretsi nafarrak ez naik ni eztitzen
Hire hatsak zerautak⁽⁷⁾ bihotza ttipitzen
Hi hor habilalarik asetzen, horditzen
Gosez eta egarriz ari nauk ni hiltzen.»

« **Xo !** xo ! hots, ixil hadi, hil gabe Katalin !
Emadan bakea no hire mokokekin⁽⁸⁾.
Gerlak deus onik ez din hiretzat enekin
Ja nola hautan hezi frangotan badakin.»

Emazteak furian hartzen du erkatza
Gizona bihurtzen da iduri du hartza
Bat bertzeari joka biak hor dabilta
Harrigarri da hoiien haro harramantza.

Emaztea : hel hel hel ! oihuka hasirik
Banohakote lotsaz⁽⁹⁾ izan zadin hilik
« Hots, bada otoi biak zaudezte geldirik ! »
Biek zanpatu naute : hoi dut merezi nik.

⁽⁶⁾ arno ona (Nafarroakoa?)

⁽⁷⁾ zidak (dit, toka)

⁽⁸⁾ erasiekin

⁽⁹⁾ beldurrez

*Errebolucione,
eta
Errepublica.*

*Errebolucione
et. Errepublica !..
Emazue hor denec
itzuliphurdica.
Ai ai ai ! mutillac,
itzuliphurdica.*

*Liberté ! Égalité !
eta Fraternité !
Oi ! hirur gezur hoiee
egiac balizte !
Ai ai ai ! mutillac,
egiac balizte !*

Erepublica ez den
ez dakienari :
Kuna hoxe nic egia :
oroc nausi nahi !
Ai ai ai ! mutillac,
oroc nausi nahi !


Lehengo denboratan
errege batto cen ;
Orai denac errege :..
hori duc hoi xucen !
Ai ai ai ! mutillac,
hori duc hoi xucen !

Ni ere errege nair
bainan ez aisian :
Bertecac gainian eta
ni bethi aspian !
Ai ai ai ! mutilla,
ni bethi aspian !

Baxteretan gizonic
 ez omen cen lehen:
 Eta orai gizonac
 oi cein merke diren!
 Ai ai ai! mutillac,
 oi cein merke diren!

Podore- ta carquac
 lehen oi cer gaurac!
 Orai indarrac ditic
 ciri baten bozac.
 Ai ai ai! mutillac,
 ciri baten bozac!


Buruxagitzat lehen
 handi behar xuan;
 Orai tiki-ta tcharrac
 nausi tuc multxuan.
 Ai ai ai! mutillac,
 nausi tuc multxuan.



— *Errepublikanoak,*
 oi cein cargutiar!
 Hoi en jooa duc hau:
 hi khen eta ni jar.
 Ai ai ai! mutillak,
 hi khen eta ni jar.

Cargu handi horie.
 laster gal beldurrez
 baliatu nahitec
 demora laburrez.
 Ai ai ai! mutillak,
 demora laburrez.


— *Bertzen* gustuz hainbertec
 aise bici nahix,
 Baxter quicac dire
 bethe aintcindarix.
 Ai ai ai! mutillak,
 bethe aintcindarix.



Ustex heien franxesa.
 ederragoa den
 Debecatcera xoacic
 gure esuararen.
 Ai ai ai ! mutillac,
 gure esuararen.

Ex jaun bainan jaunchkila
 Jaincoric gabeac, ...
 Horra cer diren gure
 lege egileac.
 Ai ai ai ! mutillac,
 lege egileac !

Jainco legetic campo
 ex duc ex gixonie
 gixoneri xucenex
 deus mana dironic
 Ai ai ai ! mutilla,
 deus mana dironic.



Nausi goragoekin
lehen usatuac
Oraico aphan hoies
gaituc nardatuac.
Noi ai ai ! mutillac,
gaituc nardatuac.

Franxeriac sobra
aphaltcon bagaitic
Noie qinikeli jarri
berech Frantciatic
Noi ai ai ! mutillac
berech Frantciatic

Erreboluzione eta Errepublika ⁽¹⁾

Erreboluzione et'Errepublika !
Emazue hor denek itzulipurdika
Ai ai ai mutillak, itzulipurdika !

Liberté ! Igualite ! eta Fraternité !
Oi hiru gezur hoiek egiak balizte !
Ai ai ai mutillak, egiak balizte !

Errepublika zer den ez dakienari
Huna, hots, nik egia: orok nausi nahi !
Ai ai ai mutillak, orok nausi nahi !

Lehengo denboretan errege batto zen
Orai denak errege hori duk hoi zuzen
Ai ai ai mutillak, hori duk hoi zuzen !

Ni ere errege naiz bainan ez aisian
Bertzeak gainian eta ni beti azpian !
Ai ai ai mutillak, ni beti azpian !

Bazterretan gizonik ez omen zen lehen
Eta orai gizonak oi zein merke diren !
Ai ai ai mutillak, oi zein merke diren !

⁽¹⁾ Kantu hau jadanik argitaratua dugun "Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak" liburukian ere aurkitzen dugu, doi bat hobeturik eta bertso anitzez osaturik. Hemengoa, bertso famatu horien lehen bertsoetarik bat dateke. H.D.

Podore-ta karguak lehen oi zer gauzak !
Orai indarrak ditik ziri baten bozak
Ai ai ai mutillak, ziri baten bozak !

Buruzagitzat lehen handi behar zuan⁽¹⁾
Orai ttiki-ta txarrak nausi tuk⁽²⁾ multzuan
Ai ai ai mutillak, nausi tuk multzuan !

Juanes Astaputz oihuz ari zuan behin
« Biba Errepublika orai denak berdin !»
Ai ai ai mutillak, orai denak berdin !

Eta nik errepusta « Errepublikak to,
Hi segurik hor hago beti berdin asto⁽³⁾»
Ai ai ai mutillak, beti berdin asto !

Juanes Astaputz hori Errepublikari
Merexi dik dezogun para buruzagi
Ai ai ai mutillak, para buruzagi !

Errepublikanoak oi zer kargutiar !
Hoi en joko duk hau : hi ken eta ni jar !
Ai ai ai mutilla, hi ken eta ni jar !

(1) zen, toka

(2) dituk (dira, toka)

(3) beti berdín petzero

Kargu handi horiek laster gal beldurrez
Baliatu nahitek⁽⁴⁾ denbora laburrez.
Ai ai ai mutillak, denbora laburrez !

Bertzen gostuz hainbertzek aise bizi nahiz
Bazter guziak dire bete aintzindariz.
Ai ai ai mutillak, bete aintzindariz !

Biba libertatea ! erran eta gero
Hoiien nahirik baizen guk deusik ez libro !
Ai ai ai mutillak, guk deusik ez libro !

Lehengo gobernuez errenkura⁽⁵⁾ hintzen
Oraikoeekin Pattin ikasak bizitzen
Ai ai ai mutilla, ikasak bizitzen !

Eskualduneri eiki ez zaikuk itsusi
Xanfarin frantximantak baititugu nausi !
Ai ai ai mutillak, baititugu nausi !

Ustez heien frantsesa ederragoa den
Debekatzera zoazik gure eskuararen
Ai ai ai mutillak, gure eskuararen !

⁽⁴⁾ nahi ditek (dute, toka)

⁽⁵⁾ arrangura

Ez jaun bainan jaunxkila Jainkorik gabeak
Horra zer diren gure lege egileak
Ai ai ai mutillak, lege egileak !

Jainko legetik kanpo ez duk ez gizonik
Gizoneri zuzenez deus mana dironik⁽⁶⁾
Ai ai ai mutilla, deus mana dironik !

Nausi goragoekin lehen usatuak
Oraiko apal hoiez gaituk nardatuak
Ai ai ai mutillak, gaituk nardatuak !


Frantseseriak sobra⁽⁷⁾ apaltzen bagaitik⁽⁸⁾
Hobe ginikek jarri berex Frantziatik⁽⁹⁾
Ai ai ai mutillak, berex Frantziatik !

⁽⁶⁾ mana dezakeenik, mana diezaiokeenik

⁽⁷⁾ sobera, gehiegi

⁽⁸⁾ bagaitu, toka

⁽⁹⁾ Paratzailearen oharra: kantu hauek noizkoak diren xuxen ez dakigu (1890 ingurukoak?), alta, balio luke jakitea: hizkuntza berria, hizkuntza abertzalea baitugu hemen argi eta garbi. Ikus bereziki azken bertso hori ! H.D.



Une Partie de Rebot à Irun en 1847



On a parlé longtemps et avec enthousiasme, dans notre Pays Basque, de la partie de rebot qui se joua, en 1847, à Irun, entre Français et Espagnols. On disait *Irungo partida*, la partie d'Irun, sans date ni autre désignation, car elle fut pour les Basques le plus grand événement sportif du siècle.

Jamais encore les Basques de France ne s'étaient mesurés avec ceux d'Espagne, sur une place espagnole, dans une de ces joutes internationales auxquelles nous avons été habitués depuis. A sa seule annonce, tout le Pays Basque s'émut. Il n'y avait pas alors de chemin de fer ; les routes carrossables elles-mêmes étaient rares. Les gens les plus éloignés du théâtre de la lutte durent, pour s'y rendre, les uns à cheval, la plupart à pied, quitter leurs villages deux ou trois jours d'avance. La veille et toute la nuit qui précéda la partie, des groupes de plus en plus compacts traversaient, en chantant, les localités du bas Labourd. A travers landes, champs et bois, leurs irrintzinas égayaient leurs solitudes. C'est surtout leur arrivée à Irun, en bandes serrées, leurs vestes suspendues à leurs épaules, espadrilles légères aux pieds, au pas toujours alerte, qu'il faisait beau voir par un beau soleil matinal de juillet. Du côté de l'Espagne l'entrain était encore plus mouvementé : c'était l'enthousiasme des jours

— 379 —

de corridas. Tamborilleros, chirolaris, guitaristes, agré-
mentaient, à l'envi, l'animation de la multitude, du sein
de laquelle émergeaient des cavaliers haut montés sur
des mules richement caparaçonnées et ressemblant à
des chefs d'armée.

Avant les dix heures, douze mille hommes étaient mas-
sés sur les quinze gradins échaffaudés des deux côtés de
la vaste place. Aux maisons environnantes, toutes les
fenêtres, tous les balcons étaient bondés de spectateurs.
Les arbres pliaient sous des grappes humaines ; les toitures
mêmes étaient envahies. L'arène vide n'attendait que
les athlètes.

Les cinq champions d'Espagne, sveltes, élégants à
raver, s'avancent les premiers, salués par les vivats de
leurs compatriotes. Quatre français les suivent à quelques
pas, accueillis, eux aussi, par des hurras retentissants.
L'immense foule distingue surtout la beauté du visage
et de stature, la noble prestance de notre Domingo Har-
riague.

Le cinquième et principal joueur français se fait atten-
dre ; on est impatient de le voir apparaître. Le voici qui
arrive à pas lents et lourds. C'est le célèbre Kaskoina,
avec son épaisse corpulence, sa grosse tête moitié couverte
par un petit béret, son cou épais, ses gros yeux gris qui
le feraient ressembler à un hibou, si le reste du corps
n'était d'un ours. De son vrai nom il s'appelait Darritchon
(d'Aritz on, Beau Chêne). Le surnom de Kaskoina lui
avait été donné par ses camarades d'enfance, parce
qu'il était resté quelque temps à Sauveterre ou à Bidache
pour apprendre le gascon.

Cette apparition soulève des acclamations assourdis-
santes, auxquelles l'étonnement des Espagnols mêle
maints lazis dédaigneux. Kaskoina, tout en parcourant
d'un air ahuri le spectacle qu'il a sous les yeux, affecte
de se mouvoir plus lourdement encore : bouvier de son
état, il se garde d'en dissimuler les allures. Ce sont des

— 380 —

finesses à lui, auxquelles sourit doucement son copain Harriague.

Si Kaskoina arrive en retard, c'est d'abord son habitude, l'effet d'une morgue qui lui est particulière ; mais, cette fois, un riche hidalgo l'a entrepris secrètement et à l'écart, lui offrant cent otšinekos ou quadruples (8000 francs) pour obtenir sa trahison. Huit mille francs, pour un bouvier, ont l'aspect séduisant ; mais Kaskoina a répondu au solliciteur : « Pour le moment, je suis pressé ; avant deux heures vous aurez ma réponse. »

Or, outre la grande gageure de la partie, il y a déjà des paris formidables qui ont été engagés parmi les spectateurs, qui pour les Français, qui pour les Espagnols. On cite un chaudronnier de la province guipuzcoanne qui a parié non seulement tout son argent, mais encore ses chaudrons avec ses deux mulets.

Sept juges sont nommés par les deux camps en présence pour tous les coups et points, en litige. Les pelotes qui doivent servir dans la partie sont contrôlées et essayées de part et d'autre. Kaskoina voudrait récuser les pelotes espagnoles qui, pour lui, sont trop vives, trop volantes, et dont il n'a pas l'habitude ; il finit par céder.

Enfin la partie commence au milieu d'un silence général. Favorisé par le sort, Kaskoina tient le rebot. Le buteur espagnol le déconcerte avec ses pelotes très volantes et par des buts vertigineux. Kaskoina, pour le coup, doit maudire son trop lourd embonpoint, et la galerie espagnole siffle son embarras. Il perd les deux premiers jeux, sans sortir du rebot, usant de son truc d'arrêter dans le carré du rebot toutes les pelotes qu'il ne peut repousser. Cela, à cette époque, était selon les règles admises par tous.

Au troisième jeu, un peu plus disputé, une chasse de *quarenta* le fait sortir du rebot. Harriague se met au but, et s'apercevant que, en Espagne, le butoir est plus éloigné que dans les places de France : « Quoi ! dit-il inquiet, est-ce au lachoa que nous jouons ? » — « Fais ton possible »,

— 381 —

lui répond Kaskoina, en s'éloignant soucieux vers le fond de l'arène !

Harriague, dès les premiers buts se montre superbe de vigueur et d'adresse ; sa pelote française est toujours péniblement relevée par le repousseur espagnol, qui bientôt laisse échapper deux chasses et doit céder le rebot à Kaskoina. Celui-ci se déchausse afin de jouer plus à l'aise. On le siffle, on lui jette sous les pas des poignées de petits clous qu'il se hâte, du reste, d'écarter patiemment de ses pieds nus. Il ne peut encore avoir raison du but endiable de l'espagnol. Une série de malchances, qui lui font perdre d'autres jeux, lui vaut d'être remplacé dans son rôle par Gamio, un de ses partenaires qui, quoique espagnol d'origine mais ayant vécu émigré à Sare, fait aujourd'hui partie du camp français. Mais Gamio, qui jadis s'était tant illustré, se montre ici très inférieur à lui-même ; il joue lui aussi de malheur et est mis en suspicion. (Don Gamio était un très digne prêtre, carliste, qui déjà avait été un rival de Kaskoina dans quelques parties jouées à Sare.)

Les Espagnols ayant déjà pris une avance énorme, Gamio cède sa place à Kaskoina qui reprend le rebot. Hué, sifflé, plus que jamais qualifié de tronc brut et inerte, notre bouvier se transforme en athlète puissant. Il rechausse ses sandales et levant avec vivacité son gant : « Joka (joue) », crie-t-il de sa mince voix de colère au buteur étonné.

Buteur et retourneurs espagnols ont beau lui lancer et relancer leurs coups les plus redoutables, Kaskoina ne manque plus une pelote. Il bondit et s'élançe maintenant comme un lion. Ses jets vigoureux, précis, variés, ses ras de terre surtout, surprennent et mettent en désarroi le camp adverse. Ses compagnons électrisés par son exemple, font merveille. Les acclamations deviennent assourdissantes, frénétiques. A la suite de points et de jeux vaillamment disputés, les deux camps s'égalisent, et, sans désespérer, les Français gagnent leurs treize jeux.


— 382 —

C'est la victoire ; c'est le triomphe surtout de Kaskoina qui, d'un pas lourd, se dérobe aux empressements d'un public, où quelque perdant au couteau effilé aurait bien pu se rencontrer. Plus de 20.000 francs, dit-on, devinrent la proie des tenants du camp français.

Outre le gain de son parti personnel, Kaskoina bénéficia de maintes libéralités particulières. Entre autres, M. Lahirigoyen-Garat de Bayonne, en lui serrant la main, lui remit une somme suffisante pour, l'achat de la plus belle paire de bœufs du marché de Hasparren. Quant à l'hidalgo aux onces d'or offertes avant la partie, il ne vint pas demander la réponse promise par le héros incorruptible.

Cette victoire fut chantée, le jour même, par un barde à belle et joyeuse verve, et, plusieurs années après encore, cette chanson d'improvisation instantanée était en vogue dans bien des localités du Pays Basque. On peut dire que cette partie internationale d'Irun fut, pour tous les Basques, un événement dont l'éclat n'a été depuis ni ne sera jamais éclipsé.

Récit d'un contemporain. (1)



(1) Ce contemporain n'est autre que le poète Zaldubi (Chanoine Adéma), ancien vicaire d'Hasparren, ami personnel de Kaskoina, auquel il a porté les secours de la religion au moment de sa mort. Ce récit nous a été transmis par le neveu de l'auteur, M. le Chanoine B. Adéma, de la Cathédrale de Bayonne.

Santa Luzia ⁽¹⁾

Jesus, Birjinen esposa, oi zu heien bizia !
Zein eder zure aldean dagon Santa Luzia,
Garbitasunaren artak martir hilarazia.

Luzia gazte, aberats, dohainez gainditua ;
Loriaturik zagon zuri beha mundua.
Bainan zure loria zen garbitasun saindua.

Santa Agatarat beilaz joanik amaren lagun,
Ama eri maite hura han sendatu zitzaizun ;
Zure birjina botua han onetsi zerautzun⁽²⁾.

Luzia agindua zen pagano printze bati.
Entzunik utzia dela, printze hori bekaizti,
Luziaren odolez du ezpata gogo busti.

Luziak hilen dutela laster baitu aditu,
Jadanik bereak oro probreari eman ditu,
Bertutez, edertasunez, aberats da gelditu.

Girixtinoen etsaiek egin zuten zernahi,
Arnegarazi beharrez Fedea Luziari.
Lausenguz ala bortxaka debalde dire ari.

⁽¹⁾ Ikus 'Klasikoak' sailean 47.a, « Gratien Adema Zaldubi, Kantikak eta Neurtitzak », Ales Bengoetxea.

⁽²⁾ zizun

Prefeta bere tronutik, burregoak aldetik,
Zu ere, printze gaixtoa, errabian barnetik.
Nehork ez diro aldaraz Luzia bertutetik.

Ez gizonetz, ez idiez, ez su emanik ere,
Ez dezakete Luzia higiaraz batere.
Ezpata lepotik sartuz hiltzen dute halere.

Zeruan baitzaude handi, gure Patroin Maitea,
Beira zazu beti azkar gure baitan Fedea ;
Ez dezagula nehoiz utz zerurako bidea.

Aita Beneditanoeri ⁽¹⁾

(Errefaua) Ongi etorri, Aita onak, Jainkozko gizonak.

Nor dire hau heldu direnak, desertuaren barnetik,
Gu salbatu beharrez jinak, iduri bertze mundutik ?
Gure bekatuen hobenak berek pagatzeagatik,
Hoiek dire ez daitezkenak bara penitentziatik.

Badu hamalau ehun urte San Benedit⁽²⁾ sortu zela.
Aberats, eder eta gazte, guti zen hura bezala.
Munduan salbatzea neke izanen zitzaiola,
Mundutarrek entzuten dute desertuan gorde dela.

Zer zoriona, zer bakea Beneditek desertuan !
Seguretik han salbatzea, zein gozo zaion orduan !
Hargatik, non zagon gordea jakin baitzuten munduan,
Osteka sartu zen jendea haren batasun saildian.

San Benediten familia geroztik zein den hedatu !
Legegabeen askazia hark du jende on moldatu.
Familia haren hazia gure lurretan da sartu.
Zerutiar hoiien bizia orori zaiku gorestu.

Munduko gozoen ondotik herratuak gabiltzanak,
Ikusten dugu oraikotik nor diren dohatsuenak,
Jainkoa maitatuz gogotik zerurat xuxen doatzinak.
Hala-nola oroz gainetik, baitire Beneditinak⁽³⁾.

(1) 'Eskualduna' [1125. zenbakia] 1908-10-30. Kazetaginearen oharra: « *Ce cantique fut composé pour l'installation des Pères Bénédictins à Belloc (Urt)* » Paratzailearen oharra: Beneditarrak 1875ean jarri ziren Beloken.

(2) San Benedikto

(3) Beneditanoak edo Beneditarrak. 'Beneditinak' deitzen ditugu handik hurbil geroztik jarri diren sineste bereko monja edo serorei.

Eskualdun beilariaren⁽¹⁾ bidaltzailea

Gr. ADEMA apezak egina

1877

Andredena Maria
Betharramekoa,
otoitz egizu
guretzat !



Baionan, André Lamaignère alarguntsaren inprimerian Chegaraiko karrikan, 39ean.

Imprimatur: Franchisteguy, vicaire général

⁽¹⁾ Paratzailearen ohar garrantzitsua: Adema-Zaldubik 'Eskualdun peleginaren bidaltzailea' deitu zuen orain irakurriko duzun idazki famatu hau. Guk, ordea, aspaldi huntan ez ditugu 'pelegrin' eta 'pelegrinaia' bezalako hitzak batera erabiltzen: 'beilari' eta 'beila' hitzekin bagabiltza (Hegoaldean, 'erromesa' eta 'erromesaldi' darabiltzatarik). Funtsean Adema berak ere 'beila' hitzarekin hasten du bere laneko lehen lerroa bera... H.D.

Aintzin hitzak irakurtzaileari

Beila edo pelegrinaietako deboziorik zaharrentzat lehia handia dute orai girixtinoek bazter guzietan.

Gu ere, eskualdunak, gure aintzinekoen fede berarekin bagabiltza hain auzo ditugun beila leku saindu horietan.

Ordean askok harat dohazinean ere deus guti dakite han gertaturikako gauza miragarriez, eta hango asko manerez.

Liburu eskuara bat⁽²⁾ eskas ginuen deboziorik eta ibilbide hoieri zagokotena⁽³⁾.

Eskualdunek ere zerbait gure gurerik beharrez, lehenbizian hasi ginen Lurden⁽⁴⁾ kantatzeko kantika batzuetarik.

Gero Jubilau urteko gure beila handi haren orhoitzapenetan, Jaun Apezpikuaren nahikariak liburu ttikitto bat zautan⁽⁵⁾ eginarazi.

Ikusirik liburu ttiki horrek izan zuen errekesta, eta hain laster denak enplegatu ondoan galde asko heldu zela oraino bazterretarik, hartu nuen xedea bertze hainbertzeren eta gehiagoren ere berehala inprimarazteko.

Bainan hainbertzenarekin eman nion gogoari, hartaraz geroz hobe nuela aldi huntan, aintzinekoan baino zerbait gehiagorik eta konpliagorik⁽⁶⁾ egin, amoregatik eta eskualdunek ere izan zezaten beila horietako beren esku liburu eta bidaltzailea.

Asko gauza da beraz liburu huntan lehenekoan ez zenik. Egin ahalak segurik egin ditut zerbait onik eta gostukorik ateratzeko.

Andredena Mariak benedikata beza ene lana, eta zuk, Irakurtzaile Maitea, otoitz egizu neretzat.

- I – Mirakuiluez

Jainkoa Jainko dela nahiz ja frango ezagun den munduko gauza naturaletarik; hargatik hetarat baizik ez behatuz, eta deus bertzelakorik ez ikusiz, neke liteke⁽⁷⁾ hetarik gorago hanbat gogoaren hedatzea.

⁽²⁾ euskarazko liburu bat

⁽³⁾ zegokiena, zihoakiena

⁽⁴⁾ Paratzailearen oharra: 'Lurdes, Lurdesen, Lurdeserat...' erabiltzen du Adema Zaldubik bere lanean, baina gaur >s< gabe bagabiltza, ahoskatzean, kantatzean eta idaztean ere...

⁽⁵⁾ zigun

⁽⁶⁾ osoagorik

⁽⁷⁾ litzateke

Mundu huntaz eta hemengo gauzez bertzerik ere badela ohartzeko, behartzen zaizkigu bertze mundutikako seinale edo ageri suerte batzu eta hek dire deitzen ditugunak mirakuiluak.

Mirakuilu baten gertarazteko edo egiteko, mundu huntako gauza naturalen indarrak eta ahalak ez dire aski.

Jainkoaren boterea da bakarra, berak egin kreatureri berak eman legeak alda edo kanbia detzozketena⁽⁸⁾.

Sainduen mirakuiluak, Andredena Mariarenak berak, nehola ez daitezke Jainkoaren botere guzizkoak baizen.

Debruak ere askotan egin detzazke bere mirakuilu gisak, itxurazkoak edo alegiazkoak bederen, Jainkoarenetan sinesterik ez dutenen xorarazteko eta bere saretan are barnago sarrarazteko. Jainkoak uzten ere dio podore⁽⁹⁾ hori, batzuetan gure bekatuen gatzigutzat, eta bertze zenbait aldi justuen beren frogatzeko.

Mirakuiletan, zoin diren Jainkoaren eskuzkoak, eta zoin debruaren jokoak zoin diren egiazkoak eta zoin faltsuak, ezagun izaten dire komuzki beren sujet, xede eta ondorio on edo txarretarik.

Ez dagoko hargatik nornahiri holako gauzen gainean juje paratzea.

Elizak berak mirakuilu bat egiazkotzat ezagutu baino lehen, harritzeko da zer eta zenbat lekuko, eta argi eta froga behar zaion aintzinerat ekarri. Ez da holakotan nehor hura baino zuhurrago eta mesfidago denik, ez eta ere egia eta gezurra hark bezala berexten dakitzanik⁽¹⁰⁾.

Mirakuiluak beti izan dire, eta beti izanzen dire; bainan ez du elizak ororen sinesterikan manatzen.

Guretzat fedezko artikulua direnak eta bekatuaren pean hertxiki sinestekoak dire bakarrik Liburu Sainduetan aipaturikakoak.

Eta hetaz bertzalde baita bertze hainbertze noiznahi gertatu eta oraino gertatzen denik, nehola uka ez gezurta ez daitezkeenak, hala-nola baitire Lurde hortako mirakuiluak; holakoen sinestea ez dauku ez elizak manatzen; bainan bai zentzu komunak.

Arren, zenbaitek hori ere ez lukete nahi eta hekien arabera ez liteke haizu ere izan behar mirakuilurik. Ezik mirakuiluek dauzkigute frogatzen egia edo gauza suerte batzu batere zenbaiten gostuko ez direnak.

Egia edo gauza halakoen ez izatean interes luketenek, natural da heien frogarik ere ez nahi izatea.

⁽⁸⁾ kanbia diezazkiekeena

⁽⁹⁾ botere

⁽¹⁰⁾ daki(zki)enik

Halere aintzek gure fedez irri aixexago naski egin lirote⁽¹¹⁾, ez balakite gutartean ere badaitezkeela heien sineste gabeaz zer pentsa dakitenak, batere ez hek baino ttonttoagoak, bai eta irri-ordainaren egiteko ere heintto bat on eta gai direnak.

- II – Beilak zer diren

Beila edo pelegrinaia edo saindoraldea erraten zaio, toki saindu batera debozionez egiten den bidaiari. Ez da oraikoa beilaz norapait higitze hori.

Lehen-lehen denboretako girixtinoek Jesu-Kristo gure Jaunaren ibildegietarat, eta bereziki Jerusalemert zuten beren ikusminaren lehia.

Erromarat buruz ere laster abiatu ziren, Jondoni Petri eta Jondoni Paulo, biak han egonak, han hilak eta han ehortziak zirelaketz.

Geroxago bazohazin orobat, edo hulako apostolu, edo holako martir, edo halako apezpiku sainduen hobirat.

Saindutasunaren mirakuiluek denborarekin holako asko helburu ezagutara zuten bazterretan. Aspaldi famatuak ziren: Espainian behinik behin, Gure Señora Zaragoza Pilarrekoaren beila, eta Konpostelako Santiago Apostoluarena. Orobat Frantzian, Tours-eko Jondoni Martin-ena eta Betharrameko Ama Birjinarena.

Andredena Mariak berak, elizaren lehen mendetik hasirik, noiznahi eta han hemenka, batzuetan bera agertuz, bertzeetan bertze zerbait mirakuiluz, berexi izan ditu toki batzu otoitzerat jendearen osteka bilaraztekoak, bai arimetako bai gorpuztetako aintz eritasunen sendaraztekoak.

Zer [izan] daiteke nehun ikusgarri hanbat mirakuiluzkoagorik Italia-Loretako elizan aurkitzen dena baino? Han baita Ama Birjinaren beraren sortetxea, Jainkoaren Semea gizon egin zeneko etxea, duela bortz ehun eta berrogoita bortz urte, Nazaretetik zazpi ehun lekoa⁽¹²⁾ hunatago, aingeruek oso-osea airetan ekarria.

Frantziaren bi hegietan ez du oraino hanbat denbora gertatuak direla Andredena Mariaren agertze batzu, egundaino bezain miragarriak: 1846ean Salette-ko mendian; eta 1858an, Eskual Herritik hain hurbil, Lurdeko Harpean.

Zaragoza Pilarreko Ama Birjina, Espainiako aldetik, Betharramekoa, Lurdekoa, Buglosekoa, Frantziako bertze hiru bazterretarik, horra laurak zoin auzo ditugun, eta laurak naski Eskual Herriaren eremu ohietan.

⁽¹¹⁾ egin lezakete

⁽¹²⁾ 3.000 km inguru

Iduri du Jainkoaren Ama Sainduari egundainotik laket izan zaiola, hurbildik eskualdunari behatzea, eta alde guzietarik gure fedearen zain egotea.

Beila leku handi horien ixtorioak ezarriko ditugu haratxago liburu hunen segidan. Arte huntan, eskualdun beilarien argitzeko, bertze zerbait oraino badugu erran beharrik.

- III – Beilak zertako diren

Jainkoak mirakuilu zerbaitez bere boterea nunbait irakutsi duenean, toki haren begiz ikustea, eta mirakuiluak han utzi hatzari hurbildik behatzea bera, ez ahal da atsegin ttikia fededunarentzat!

Bagohazi harat, sendi baitugu han badela bertzetan ez bezalako bertute bat, gure otoitzeri eta izate guziari lot daitekeena.

Arimako eta gorputzeko asko behar ordutan, nehun baino hobeki han dugu uste gure ona atxeman, eta etsenpluak ihaurre dire arrazoin dugula erakusten dutenak.

Harat gohazinean, gure etxeetarik eta herrietarik urrunxko otoitzezko gogoz aldaratze hori bera, bideko neke eta eskasien jasaite hori bera, penitentzia gisa bat da eta baliatzen dena ez guti.

Egungo egunean guziz, bertze hainbertze, jo harat, jo hunat, hor baitabil-tza herratuak eta lehertuak lurreko gozo ez deusen ondotik, gu ere, gure eskualde, bagabiltza lorietan, zerutikako zerbaitto hurbiltxagotik dakusakegun tokietan.

Bertzenaz ere on da orhoit gaitezen, eta noizean behin bederen gure urratsez berez seinala dezagun, ez garela lur hunen gainean bidaiari eta beilari batzu baizik, hemen egoitza iraunkorrik ez dugunak, eta eternitateari buruz bertze baten bila gabiltzanak.

Bertze arrazoinik ere badugu, bereziki zenbait denbora huntan, hain usu eta osteka beila horietan ibiltzeko. Munduan orai zerbait indar duten gutiz gehienek, Jainko legerik ez nahiz, eliza katolikoa baitaukate begietan hartua, eta oro, batzu agerian, bertzeak esku azpiz, hor ari baitzaizko alde guzietarik, nundik lurrerat aurdikiren duten.

Gure Aita Saindu handi eta maitea bera, zuzentasunezko eta ohorezko lege guzien kontra, ken ahal zetzozketen⁽¹³⁾ guziak kendurik, hantxe baitaukate gatibo, tratatua, hertsatua eta zernahi atsekabez doloratua:

⁽¹³⁾ ken ahal ziezazkioketen

Behinere izatekotz, holakotan behar dute girixtino bihotzik duketen guziek beren burua erakutsi, ohoragarrienaren, zuzenenaren eta flakoenaren alde. Munduko indarrak eskas edo etsai balin baditugu, otoitzaren boterea bederen gure eskuko dugu.

Holakoetan, zinez lotu behar gare, ez xoilki otoitzari, baina oraino gure otoitzen indarra emenda ahal diroten⁽¹⁴⁾ arrimu guziera.

Holakoetan, otoitz bakarka eginak, otoitz ixilak edo gordeak ez dire aski: multzoan eta osteka behar gare bildu tokirik sailduenetarat, gure otoitzen batean ematerat. Beiletarat horrela gohazinean, ez da batere gaixto mundua ohart dadin gu ere bagarela.

Elizaren etsaiek, Jainko legerik gabe mundua bertze nolazpait goberna uste dutenek, ja hain dituzte bazterrak nahasi, nun orai xuxentzeak baititu lanak!

Arren, hainbertze nahasduren eta makurren xuxentze hori liteke segur mirakuilu bat handia, bai eta denbora berean gure Eliza Ama Sainduarentzat gainartze bat ederra.

Beraz holako mirakuilu baten eske, norat gohazke xuxenago, baizik ere asko bertze mirakuilu ja gertatuak dakitzagun tokietarat.

Ez da oraino hortan guzia.

Gutartean finkatu berritsuak ditugun deboziorne batzuen medioz —bategatik gure Adoraziorne egun handietan, bertzetik gure beiletan— erakusterrat ematen dugu zer heinetako girixtinoak garen.

Izan da denbora bat, zointan fede gabeko mundutar zenbaitengatik, heien irrien edo trufen beldurrez, orobat heien handi-itxuraren errespetuz edo lotsaz, fededun herabe batzu gordeka bezala baitzabiltzan bere erlisioneko urrats sailduetan.

Noizbait hargatik fededun horiek aski ernatu ziren fedegabe balentrios heieri hurbilxkotik beha paratzeko, eta gero heien gizontasunaren neurtzeko.

Orduan ohartu ginen guziak, ez zela ez girixtinoeri, halakoen aintzinean guziz, buruaren apaltzea, eta deusetaz ere gizona ez dela mundu huntan berean hain gora altxatzen, nola fede ongi pratikatu batez.

Geroztik gabiltza nehoren ahalkerik gabe, ez xoilki gure deboziornezko urrats manatuetan, baina orobat beila bide horietan, gure arrosorioak eskuan, eta gure beilari gurutzeak papoan.

Bertzenaz ere, bere tokiko berri baizik ez dakien girixtino bati ainitz on egiten dio ikusteak bertzetan ere badirela fededunak: ezik beila horietan usu hautematen dire guk dugun sineste berarekin harat joanak, munduko jenderik

⁽¹⁴⁾ eman ahal dezaketan edo diezaieketan

handienak berak. Jaunen jaunak eta guziz halakoak ere nunbait badirela, badukete eskualdun zenbaitek beren begiz han ikustearen beharra.

Bertzalde oraino, saildoralde nausi batetarat zenbait ehun edo zenbait mila arima biltzen denean, hura da hura eder eta sustagarri! Orduan erran daiteke bat bederaren bihotza berotzen dela han diren bertze bihotz guzien kar sailduaz.

Halakoetan, jende ostearen bortxaz ere, bere gisako buila iduri bat izanagatik, sorka nahas-mahas suerte hori bera, zeruko bidean, gauza hunkigarria da. Holatsu naski bertze orduz zarraizkon Salbatzaileari Judeako jendeak, eta beti mirakuilurik handienez sariztatua zen heien erresaka saildua. Hortakotz ere elizari egundainotikan laket izan zaizko bilkura saildu oste handitakoak.

Orobat ezagutua da, eliza handi batean, jendetze handia biltzen den eta funtzio konpliak egiten diren eliza batean, hobeki dela norapait inarosten eta largatzen popularen bihotza, ezenez asko herri ttikitako eliza xume eta ofizio jende gutitakotan.

- IV – Beiletan nor eta nola behar den ibili

Gure erlisionekeo bertze urrats guziek bezala, beilek ere hau dute: egiteraz geroz, behar den bezala dire behar egin, edo bertzenaz hobe batere ez egitea, guziz ez balin bada egiteko bortxa legerik.

Hetaz baliatzeko kondizioeak eskasten badire, zorokeria liteke gero ez baliatuz errenkuratzea⁽¹⁵⁾. Gehiago dena holako gauzak kalte baizik ez dire, behar ez den moldez edo xedez egiten direnean.

Hala-hala, ainitz on eta salbagarri dire, bai eta askotan mirakuilurainokotan, sailduki, federekin, bereziki kontzientzia garbi delarik, egiten dituzte nentzat.

Beila bat egin eta, beren otoitzetan berek nahi zuketean hura ardietsi ahal izan ez dutenek, on liteke pentsa balezate noren edo zeren falta den.

Maizenik geroni⁽¹⁶⁾ gare zerutikako grazien trabatzaile, gure bekatuez, gure fede eta debozione eskasaz, gure xede ez aski zuzenez, eta gure nahi naturaleriez. Bertzenaz ere, naturalezaz sobera gora diren legeri buruz arrimaturik daude mirakuiluak gure uste naturalaren arabera baitezpada gertatu behar izateko. Gauza mirakuiluzko baten bertutea ez da beti berdín agertzen, kasuak gure iduriz berdínak izanik ere. Jainkoari, dohako ikustea noiz eta norrentzat diren konbeni mirakuiluen gertaldiak.

⁽¹⁵⁾ arranguratzea

⁽¹⁶⁾ guhaur

Beila horietarat edozoin behar orduz gohazinean, ongi baliatzekotz, lehen-lehenik garbi aldi bat ona dezogun eman⁽¹⁷⁾ gure kontzientziari, eta gaiten jar adixkide gure Jainkoarekin.

Eskuara baizik ez dakitenek, beilari arrotz horietaraz geroz hirriskatzen dute han ezin kofesatzea; beraz xuhur badute, bideari lotu baino lehen, kofesa beitez beren herrietako apezeri.

Bertze nornahirentzat ere hori hobe da, guziz oste handitako beilak dohazinean, zeren eta orduko builan neke baita aldiaren ere atxematea, eta zenbaitentzat segurik, are nekeago, behar luketen astiarekin eta deskantsuarekin lan serio horren egitea. Ez du, hargatik, horrek erran nahi, ez dela beilari joan behar graziakoz estatuan denik baizen. Bekatorosak ere badohazke eta beharrik askotan dohazi.

Egungo egunean, bekatorosik etsituenak, fedea bera galdua dutenak, nun ditu hobeki atxematen, jotzen eta aurdikitzen Jainkoaren graziak, nun dire usuago eta lasterrago konbertitzen, Lurdeko Harpe eta eliza hortan baino? Eta berdin bertze holako asko beila lekuetan.

Mirakuilu hori bera hain da egia ezagutua, nun baitire beiletarat menturatu nahi ez direnak, Jainkoaren graziak han atxemanak izan beldurrez. Baitakite zinez konbertitzeak arima gozo handitan ezarrikan ere, bertze asko gauza latz eta garratz badakarkeela ondotik; horrek horrek ditu lotsatzen! Arrazoin hori zenbaitek lañoki aitortu dute, eta naski bertze zenbaitek ere ez dute gutiago pentsatzen.

Beila oste handiko bat denean, nork berak behar luke ontsa ikasi eta ontsa gogoan hartu, hartako aintzinetik erakutsia izaten den arrimua. Hango prosessionetan da arrimu hura xuxen orok atxikitzea beharrenik.

Prosesionea izan dadin bi edo lau edo orobat zortzi lerrotakoa, aintzineko buru-burukoak behin paratuz geroz, heien gibeletik dohazinek aski dute sail beraren heien ondotik makurtu gabe atxikitzea. Beraz gibeletako beha bezo⁽¹⁸⁾ usu bere aintzinekoari, eta xuxen jarraik bekio urrats baten artea hutsik utziz.

Ilunarekin egiten bada prosesion hori, guziek behar dute argi bana izan eskuan pizturik, eta hori prosesioneko bide guzian, batek bertzeari, ez argi xortarik ez surik ez emateko kasu eginez. Prosesion horietan kantuarik ez du ixildu behar. Batek edo batzuek has eta bertze guziek beren aldiko errepikaz behar dute ihardetsi. Ez kantari izanagatik, bakotxak eman beza, nehoren ahalkerik gabe, gogotik dakien edo ahal duen bezala kantatzen; ezen elizako

(17) diezaiozun eman

(18) beha biezaio

ofizio kantatueta egin dezakegun otoitzik hoberena da, elizaren xedeari juntatuz, hark bezala gure partearen kantatzea.

Abisu horien ondotik, Beilari Maitea, huna orai beila toki horietako zenbait ixtorio.

- V – Andredena Maria Pilarrekoa

Espainolen aspaldiko agurra edo salutatzea da: *Ave Maria purissima*: eta ihardesten zaio erranez: *Sin pekado koncebida...* Eskuaraz horrek erran nahi du: Agur Maria, ezin gehiago garbia: bekaturikan gabe kontzebitua.

Diote elizaren lehen mendetik hasi zela Espainiako girixtinoen artean agur eder horren usaia: eta huna zertarik.

Jesu-Kristo gure Jauna, zerurat igan berritsua zen, eta haren Ama Saindua oraino lurrean bizi zen Jerusalemen, alde hartako dizipuluekin, bere seme ordetzat zaukalarik Jondoni Joani ebanjelista. Jondoni Jakobe zaharrena, Santiago Apostolua, deitzen duguna, Jondoni Joaniren anaia zen, eta hastetsutik jina zen Espainian ebanjelioaren predikatzerat. Eskual herriak, diotenaz, denbora hartan Espainiako aldean segurik, Zaragoza barne hartzen delarik, hedatzen ziren orai baino ainitz haratago.

Santiago Apostoluak egon alditto bat egin zuen Zaragoza hortan, eta dizipulu bakar batzuekin gau oroz ateratzen zen hiritik, Ibereko ur hegi batera. Han irakasten ziozkaten⁽¹⁹⁾ fedezko egiak eta otoitzean ere han elgarrekin egoten ziren. Bainan oraino nekez zitzaion jendea biltzen girixtinotasunerat. Gau hetarik batez, haratxagoko ur bazterretik aditzen dute aingeruzko kantu bat eta aingeruek hitz hauk zituzten kantatzen: *Ave Maria gratia plena*. Santiago Apostolua berehala harat beha paratzen da belauniko. Ikusten du argi handi bat, eta argi haren erdian pilarri xuri-xuri bat, eta pilarri haren gainean xutik Andredena Maria milaka aingeruz inguratua.

Aingeruen kantua ixildu zenean, Jesusen Ama Saindua hunela mintzatu zitzaion Jondoni Jakoberi: "Ene Seme Maitea, hementxe berean ene ohoretan egin behar dautazu⁽²⁰⁾ eliza bat. Pilar hau zerutik aingeruek niri ekarria, hemen uzten dautzut⁽²¹⁾, hola-hola egon dadin munduaren akabantzaraino. Hunen ondorat bil zaitezte otoitz egiterat. Otoitzean hemen ariko zaizkidanen fagoretan, ene Seme Jainkoak mirakuilu asko eginen du, eta ez da behinere hiri hori Jesu-Kristoren adoratzailerik gabe izanen."

(19) zizkien

(20) didazu

(21) dizut

Hitz horiek erran eta, Ama Birjina aingeruek berriz ereman zuten Judeako bere egongietarat. Santiago Apostoluak bere dizipuluekin berehala hasi zuen eta egin eliza bat Pilarraren inguruan, hamasei urrats luze eta zortzi zabal, barnean hartzen zuena. Errana da Andredena Maria gero ere behin baino gehiagotan etorri zela toki hartarat bererat hango fededunen kantueri bere bozaren juntatzerat.

Pilar sainduaren eliza hortan zernahi mirakuilu gertatzen baitzen, bazter guzietarik jendea horrat biltzen zen, eta Ama Birjinaren erranak zein ziren egiak denborak erakutsi zuen.

Geroztik Espainia guzia hainbertzetan edo paganoz, edo barbaroz, edo zernahi nahasmenduz izan baita iraulia eta funditua... Askotan girixtinoek nehun ez baitzuketen otoitzerat biltzeko lekurik mendi zokoetarat ihes eginik baizen. Zaragozak bakarrik, beti salbu eta tente begiratu izan du bere Andredena Maria Pilarrekoa. Mairu denboran ere han beti berdin zelebratu dire funtzione sainduak⁽²²⁾. Hala-hala ez daiteke erran Espainolak oraino ere zenbat atxikiak diren beren Ama Birjina Pilarrekoari.

Hemezortzi ehun urte huntan zenbat bertze gisetako mirakuilu ikusi den Pilar saindu horren ondoan gertatzen, nork daki? Berritsuenetarik bat bakarra erranen dugu. Mila sei ehun eta hogoita hemezortzian, hemeretzi urtetako laborari seme batek orgen azpirat erori eta zango bat izan zuen arrodez xehakatu. Zango hori Zaragozako ospitalean behar izan zioten moztu belauaren ondoretik; eta geroxago zurezko zango orde batekin eskale paratu zen Santa Maria Pilarrekoaren atetan.

Egun guziz behin baino gehiagotan bazohan Ama Birjinaren aldare aintzinerat; otoitzean han egoten zen; eta bere zango moztuaren muturra torratzen zuen hango lanpetako olioarekin. Urte bat eta erditsuren buruan, Martxoaren hogoita bederatziko gauan, bere zurezko zango ordea oherakoan kendurik, gure inbaliera lo zagon. Ama suertatzen zaio aldetik argi batekin iragaiterat. Behatzen dio semeari, eta iduritzen zaio estalkipean bi zango oso eta berdinen bultoa⁽²³⁾ ikusten diola. Aldaratzen ditu estalkiak...

Nor harritu, hura harritu, semea egiazki bi zangoen jabe dagokola ikusiz! Aita ekarrarazten du: biak loriatuak oihuz abiatzen dire. Semea atzartzen da: harenak gehiago. Zer ote den etxe hartan auzoak ere heldu dire; hantxe daude oro espantituak: gizon gaztea jeikia han zabilan bere bi zangoz ikusten ala ametsa ala egia zen.

Argitzen hasi zuen bai, zalu bere bi zangoz laster egin zuen elizarat. Berria berehala barraiatu zen Zaragozan eta ingurune guzian; eta nola gizon gazte

(22) ospakizun erlijiosoa

(23) forma, itxura

hori guziek ezagutzen baitzuten, Pilarreko eliza-ateetan, bere zango motzarekin eske ikusirik, jendeketa handia bildu zen mirakuilu hori egia ote zen bada jakiterat. Zangoa moztu izan zion atxeterrak⁽²⁴⁾, haren moztean atxikitzaile eta ikusle izan ziren guziek, zango ebakia hortzi zutenek, denek zin eginik behar izan zuten finkatu beren lekukotasuna, Zaragozako apezpikuaren aintzinean, eta heien erranak hitzez hitz gerokotzat iskribuz hartuak izan ziren.

Andredena Maria Pilarrekoaren eliza baino aberatsago guti bide da munduan. Zaragoztarren eta espainol guzien deboziona oraino ere zein den handia Ama Birjina horrentzat eta eliza horrentzat, lekuaren gainean ikusiz baizik ez daiteke sinets. Deboziona hori, asko arrazoinez, behar liteke izan eskualdun guziena ere, eta nehork guk baino hobeki ez luke ohoratu behar Gure Andre edo Señora Pilarrekoa.

Andredena Maria Pilarrekoaren kantika

(‘Eskualduna’ [IIII. zenbakia] 1908-07-24)

Eskualdunek, O Birjina Maria, amodio, ohore dautzugu.
Zein zaren on, puxant, miragarria, nor sekulan aski erranen du?

Eskualduna zure arbasoekin jende zela diote denboraz
Zure odol bereko gare egin Zure Seme Jesusen odolaz.

Gure Ama zarela orhoit zaite, Gurutzetik Semeak emana.
Zure haurrak hain gaitutzu gu maite, Zu baitzare Jainko baten Ama.

Mundu huntan oraino zinelarik, gureganat hunat zinauzkigun⁽²⁵⁾;
Eskualdunak lehen-lehenetarik zuk gintutzun atera fededun.

Santiago zure Apostolua, gu salbatzen zinuen lagundu.
Zuk orduan utzi Pilar Saindua Zaragozan ohoratzen dugu.

Pilar hortaz, gure Ama Maitea, nahi duzu berma gaiten zuri,
Gogor eta azkar gure Fedea izan dadin harri hoi iduri.

Hemezortzi ehun urte baditu Fedearen gutan landatzeak ;
Orai arte leial gaizko⁽²⁶⁾ gelditu, gu fededun nahaste gabeak.

Eskualdunei Fedea kendu nahiz, etsai gaitzek gaituzte hertsatzen.
O Maria, zu gure alde jarriz, deusek ere ez gaitu lotsatzen.

⁽²⁴⁾ medikua

⁽²⁵⁾ zenizkigun

⁽²⁶⁾ gagozkio

Gure zuzen lurrekoak galdurik, oso dugu bederen Fedea ;
Eskualduntzat ez da ezagaturik gutartean sineste gabea.

Otoi lagun gaitzatu, O Maria, gure behar ordu guzietan,
Osagarri, ontasun, familia, zerurako gure urratsetan.

- VI – Jondoni Jakobe Konpostelakoa

Jondoni Jakobe handiena, orobat Santiago espainolek deitzen dutena, zen Jesusen Apostolu hautetsienetarik bat.

Gure Salbatzailea zerurat igan eta, Izpiritu Saindua errezebiturik, lehenik zenbait denbora ibili zen Ebanjelioaren predikatzen Judeako, Samariako eta Siriako bazterretan. Jondoni Extebe hil zutenean, toki hek utzirik, itsasoz jo zuen Espainiarat, eta ez da dudarik hura zela lehena alderdi hautarat Jesu-Kristoren legea ekarri zaukuna⁽²⁷⁾.

Hargatik Jerusalemetik Apostolu lagunek igorri zioten laster galdea, eta harat itzuli behar izan zuen heien biltzarretan ederki argitzeko. Jerusalem ez zen hanbat zahartu, ezik Agripa hango erregek hilarazi zuen Jesusen zerurat igaitetik hamekagarren urtean.

Apostolu horren gorputza, han berean lehenik ehortzia egon zen; bainan laster hartarikan gehientsua dizipulu batzuek ekarri zuten Espainiarat eta paratu *Hiria-Flabia* deitzen zen toki batean. Hiri hark orai *El Padron* du izena. Errelekia saindu horiek gerla denbora batez etsai paganoen beldurrez nunbait gorde zituzten eta galdu. Girixtino mende bederatzigarrena zen atxeman zituztenean. Leon-eko errege Alfonso Xahuak hiru lekoa hunatxago Konpostelarat altxarazi zituen. Apostoluaren izenetik da toki hori orai deitzen Santiago. Jondoni Jakoberen gorputza ekarri berria zuten Konpostelarat, gertatu zenean mirakuilu handi hau.

Logroñoko gudu sekulan orhoitzekoan, girixtinoak, Abderraman Mairuaren armada ainitz handiagoaz bentzutuak eta xehakatuak izaterat zohazin. Jondoni Jakobe zerutik heltzen zaiote zamari xuri baten gainean, gerlari puxant baten itxuran, eta guduaren aintzinean paratzen zaiote. Bai bere zamariaren oldarrez, bai bere ezpata ukaldi izigarriez, etsai lerro osoak aurdikitzen ditu lurrerat. Girixtinoak Apostoluari gogotik eta suharki jarraikitzen zaizko. Ez dire gehiago deusen beldur. Mairuek ez dirote ihardok. Batzu ihes badohazi eta bertzeak han berean errautsiak dire.

(27) ziguna

Handik ehun bat urteren buruan, Mairuak egundaino bezala, izigarriko armada bat bildurik, Almansor beren aintzindariarekin zohazin Espainiako girixtino leku guzien funditzerat. Konpostelan sarturik, ja hiri guzia su eta sarraskitan zeramaten. Bainan Santiago Apostoluaren elizaren erretzerat abian zirelarik, ihurtzuria ihurtzuriaren gainean karraskan hor hasten zaiote eta aire gaixtoa beren erdirat erortzen. Harrituak, berehala ihesari eman ziren eta utzi zuten hiria bere gisa.

Bertze zenbat mirakuiluz ez du, noiznahi gero ere, Jondoni Jakobek sariztatu espainolen fedea, eta haren elizarat dohazinen deboziona?

Hala-hala denboraz norat zohazin beilariak bazter guzietarik hain usu, nola Santiago hortarat? Aita Sainduak dretxo eta fagore handiak beti eraxiki dituzte hango debozionarioari, eta oraino ere hek baizen ez dirote urra harat beilaz joateko botua.

- VII – Jerusaleme, Beteleme, Nazaret eta Ama Birjinaren sortetxea Nazaretetik Lauretarat aldatua

Jerusalem, Betleem eta Nazaret, horra hiru leku saindu arrazoinekin girixtinoez egundainotik errekestatuak. Gure Salbatzaile Jaunak han ibilirikako urratsak eta han utzirikako hatzak, haren denboratik beretik hasirik, izan dire hain lehiarekin miatuak eta ikusiak, hain artarekin ageriztatuak, eta hain fidelki beti begiratuak, nun, hainbertze denbora, gerlate, funditze eta nahasmenduren buruan, oraino gutiz gehienak aise ezagut baitaitezke.

Testament Zaharreko denboretan, Jerusaleme zen Jainkoaren populuaren edo Juduen hiri nausia. Jerusalemeko tenploa bezalakorik ez zen mundu guzian. Bainan Jesu-Kristo hilez geroztik, bai hiria, bai tenploa, laster eta arrunt barraiatuak izan baitziren, Jerusaleme oraikoa da lehengoaren gainean haren puskez eginikako bat. Salbatzaileak aintzinetik errana egia handia: "Harria harriaren gainean ez zela han osorik geldituko."

Girixtinoek berek, denboraz, asko egin dute Lur Saindu hetaz jabetzeko, eta toki erori heien altxatzeko; eta halere Mairu infidelak dire aspaldian alde hetako guzietako nausi. Jainko baten madarizoneaz joa eta ezin libratua, halaxe dago Jerusaleme hobenduna, eta ez dakigu noiz arteraino. Bizkitartean ez da bada mundu huntan tokirik hainbertze eta halako orhoitzapen sainduak dituzkeenik.

Zer etsenplua, Jainkoak grazia ainitz egin dioten arimentzat, ez balin badute araberako fideltasuna arta eta eskerra dohain heieri ihardesteko!

Jesu-Kristo gure Jauna lurraren gainean bizi zelarik, maiz Jerusalem ikusi eta entzun zuten. Hiltzeko bezperan, han egin zuen bere azken afaria,

eta ordenuz guri utzi bere Gorputz eta Odolaren Sakramendua. Han pairatu zuen bere Pasionea eta bere Gurutzeko heriotzea. Han ehortzia izan zen. Han piztu zen, eta pizturik hainbertzetan bere dizipulueri agertu.

Handik zen igan zerurat, eta hango etxe batean zauden Apostoluak, jautsi zitzaiotenean zerutik Izpiritu Saindua.

Geroztik, Jerusalemerat, Jesu-Kristoren tonbarat, munduaren bazter guzietarik ez dire beilariak baratzen ibiltzetik.

Btleem Jerusalemetik bi orentsuren bidean da. Han da oraino Jesusen sorlekua: harroka zilo bat, lehen jende arrotz pobreen aberen aterbe izana eta geroztik arta handirekin eliza aberats baten barnean gerizaturik daukatena.

Nazaret, Galileako bazter batean da Maria Birjinaren herria. Jerusalemetik harat bada hamar bat lekoa⁽²⁸⁾. Harat jautsi zen zerutik Gabriel aingerua Mariaren etxerat, eta Jainkoaren Semea han egin zen gizon!

Jesusek bere bizi gordea ereman zuen bizitegi pobre haren eremu berean da egina eliza bat alde hetako ederrenetarik. Bainan Jesusen, Mariaren eta Josepen etxea bera eskas da handik aspaldian. Lehenbiziko denboretarik hasirik, etxe dohatsu hura hein bat ohoratua eta begiratu hantxe zaukaten bada girixtinoek. Etorri zen ordean bertze denbora bat, zointan mairu infidelek alde hetan nausi jarririk profanatzerat baitzeramaten.

129 Iko urtean, gau batez, nehor ohartu gabe, Etxe Saindu hori bere tokitik eskastu zitzaioten zimendu xoilak han utzirik. Aingeruek airetan hartu eta oso-oso ereman zuten zazpi ehun lekoa segurik hunatago, Dalmaziako lurretarat, Tertsas deitzen den hiritto bati hurbil.

Maiatzaren hamarra zen, argia urratzean, Tertsastarrak ohartu zirenean etxe horri, bezpera aratsean ez eta egundaino, etxearen iduririk, ez egiteko gairik nehorik ikusi ez zuen toki batean. Bertzenaz ere ez zen haren obradura alde hetan usatzen zenetarik, eta dena ere batere zimendurik gabe peza oso bezala zagon xutik lurraren axal gainean.

Berria barraiatzearekin, jendea jendearen gainezka abiatu zen ikusterat; oro harrituak zagozin beren hari beha, eta gero barnerat menturatu zirenean are oraino harrituago han zakusaten gauzez. Han bazen ganbara bat bere aldrearekin, eta aldare haren gainean Ama Birjinaren zurezko irudi bat xutik bere Jesus Haurra besoetan.

Guziak hantxe galdez baitzagozin nundikakoa eta zer ote zen bada hori holakorik, Alexandre beren Jaun Apezpikua ordukotz denek eri etsia zaukatena, hor heldu zaiote ooren erdirat bet-betan sendo eta azkar.

(28) 45 km inguru

Erraten diote, gau hartan agertu zaiola Andredena Maria, eta harenganik jakin du nola den etxe mirakuiluzko hori haren Nazareteko etxea, Jainkoaren boterez orai harat aldaratua; eta egiazki hori hala dela sinets dezaten hobeki, horra nun bere ohetik arrunt sendatua igorri duen hetarat.

Tertsaseko printzea orduan gerlarat joana suertatzen zen. Mirakuiluaren berria laster helarazi zioten, eta erregeren baimenarekin lehenbailehen etorri zen egia ote zenetz ikusterat. Bere begiz ikusi eta halere ez baitzitziaion hori aski, nahi izan zuen Nazareteko bereko ere berri jakin. Lau gizon jakintsun hautatu zituen harat igortzeko, eta hetarik batto zen Alexandre apezpikua bera. Etxearen neurri, hatz eta molde guziak xehe-xehea harturik, lau gizon horiek badohazi Nazareterat. Nazareterat direnean, galdetzen dute Ama Birjinaren etxea. Hango girixtinoek nigarrez irakusten diote etxearen lekua. Harगतिक zimenduak bederen oraino han dituzte.

Badohazi miatzerat zimenduen neurri hatz eta moldeak eia xuxen dohazin hek Tertsasetik ekarriekin, eta guziak berdin-berdina atxematen dituzte. Lau lekuko horiek Tertsaserat itzuli zirenean Nazareteko argiekin, ez zitekeen gehiago duda etxe hura Ama Birjinarena zela.

Bazter guzietarik jendea debozinez eta ikusminez harat zohan, eta zurezko beiragailu batzuez behar izan zuten inguratu Tertsastarrek beren *trésor*-a⁽²⁹⁾. Bainan hiru urte eta erdiren buruan, Etxe Saindu hori aingeruek hartu eta airetan handik itsas-hegal batez gainez-gain berriz ereman zuten Italiako bazter baterat. Larunbat gau bat zen. Ainitzek ikusi zuten argi eder baten erdian, aingeruek airetan zeramatela. Italia aldeko frango jende, aingeruen kantuek atzarrarazirik atera zen kanporat eta harriturik egon mirakuilu horri beha. Etxe Saindua pausatu zen Rekanatiko oihan batean, eta inguru hetako jende guzia goiz-goizetik abiatu zen haren ikusterat.

Hala-hala, nork erran Tertsastarren bihotz-mina ikusi zutenean bezperan beren etxe maitea airetan heienganik urruntzen! Egungo egunean ere oraino, beren tokietarik etortzen direnean haren ohoratzerat, heien pleinu eta errenkura hunkigarriak aditzeakoak dire.

Rekanatiko oihanaren jabeak bi anaia ziren. Biek gogoari eman zuten behar zutela ederki aberastu heien ontasunean sartzen ziren beilarien gustuz. Bainan irabazbide horren beraren gainetik laster elgarrekin makurtu eta auzitan hasi ziren.

Hainbertzenarekin, lau hilabete nunbait han iragan zireneko, egundaino bezala, Etxe Saindua hor handik ere aldaratzen zaiote besogain harri bat hunatago, bertze jabe baten lurraren gainerat zoina Laureta deitzen baita.

(29) altxorra

Geroztik Ama Birjinaren sortetxea hantxe dago aintz artarekin eta ederki begiratu. Bera bere tokitik higitu gabe, eta bera hala-hala utziz, inguratu diozkate kanpoko lau alderdiak marbolazko edergailuz eta bertzalde egin diote eliza handi eder bat zoinaren barnean orai gerizatua baitago.

Lehenago larre eta erremutegi (?) baizik ez baitzen leku hori, geroztik da egina Lauretako hiria beila horren kariaz, Etxe Sainduaren inguruan eremu handia daukala. Damurik dire berriroski (?) alde hetako lurrak esku gaixtoetarar eroriak!

- VIII – Erroma

Erromaren izen horrek berak, nungo girixtinoari ez dio bihotza higitzen; eta nor da ahal balu bere bizian behin bederen Erroma ikusi nahi ez lukeenik?

Ez du oraikoa Erromak bere fama, bere handitasuna eta munduaren gaineko buruzagigoa.

Jesu-Kristo gure Jauna sortu zenean, munduko populu gutiz gehienek Erromari amor emana zuten. Guziak buruzagi bakar baten azpiko jarriak ziren, eta buruzagi puxant hura zen Erromako enperadorea. Hitz batez, Erroma zen mundu guziko hiri-nausia.

Bainan geroxagotzat eiki bertzelako nausitasunik bazagon Erromarentzat. Jesu-Kristoren lureko erresumak, eliza katolikoak, han behar baitzuen egin bere bildumaren ohantzea.

Izpiritu Saindua jautsi zitzaiotenean, Apostoluak ebanjelioaren bazter guzietan predikatzerat barraiatzearekin, Jondoni Petrik, ororen buruzagi gisa, Erromarat jo zuen, eta handik zuen gero gidatzen eliza guzia. Galileako arrantzari xaharrak Erroma hortarik azkenekotz enperadoreak bezenbat, manatzen zion munduari. Ohartu zen enperadorea bazter guziak beretzen ari ziozkala girixtino legeak, eta hartaz bertzerik ere bazela entzunik Erroman berean. Manatu zuen beraz girixtino atxeman ahalikako guzien hilaraztea.

Jondoni Petri eta Jondoni Paulo ere, biak noizbait atxemanak eta preso hartuak izan ziren, eta gero biak egun berean hil zituzten; Jondoni Petri buruz behera gurutzefikatuz, eta Jondoni Paulo burua ezpatatz moztuz. Zer bataioa heien odol ederra Erromako lurrarentzat!

Bi apostolu horien gorputzak ez ziren hala-hula utziak izan. Girixtinoak erne egon ziren heien zain. Burregoak aldaratu eta gaua etorri zenean, hartu eta ereman zituzten berek bakarrik zakiten toki batean ehorzteko. Toki hura zen harpe zilo bat, sartze gorde batetik lurperat puska bat barnatuz eta zabalduz zohana. Jondoni Petrik bizi zelarik maiz han zelebrazten zituen Meza eta Ofizio Sainduak.

Hiriaren sahetsean, ipar aldetikan ezkertxago, ageri da Batikaneko mendia edo bixkarra. Denbora hetan oihan edo larre bat bezala zen Jondoni Petriren harpeko mendi horren alderdia.

Bainan hala-hala, bixkar hartan berean, harpe saindu hartarik bi urratsetan bazen bertzerik ere. Neron enperadoreak hantxe zaukan bere jostetako lekua. Karrosazko partidak han jokarazten zituen. Frangotan bera bere urrezko karrosan gauaz pasaietan han ibiltzen zen, eta argitzat, ehunka girixtino biziak, bikez estalirik eta xutik burdin paxet batzueri amarraturik errearazten zituen.

Arren, handik hiru ehun urte gabe, toki hetan beretan, Konstantin enperadore girixtinoak eliza bat ederra eginarazi zuen, Jondoni Petri eta Pauloren gorputzak zauzkan harpea aldare-nausi azpitzat barne hartuz, eta inguruan lur eremu puska bat eman zion eliza horri.

Han orduan eginikako obrak, denborak berak higaturik, are handizkiago daude heien beren gainean eta hek hala-hala utziz eginak orai dakutsagun guziak. Han da Jondoni Petriren eliza famatua, gizonen eskuz egundaino nehun egin izan den, eta naski sekulan egina izan den obrarik miragarriena. Horra bi apostolu pobreen tonba... Nolakoa eta nun ote da Neron enperadorearena? Hori nehork ez daki!

Jondoni Petriren eliza horri datxikola, Neron enperadorearen jostetako eta pasaietako toki heien beren gainean dire orai, Aita Sainduaren palazio, baratze eta hariztegiak.

Lehenengo enperadore puxant heien jauregiak hiriaren bertze bazter batean hantxe daude trebes eta aspaldiko mendeaz geroz eroriak. Izigarri da asentu puska alimale heien ikustea. Handik bi urratsetan, gehientsua oraino xutik dagoena da jokari plaza bat Koliseoa deitzen dena, mendia bezain gorako harresi batzuek hetsia. Harresi haren mailetan ehun mila eta gehiago ikusliar jarriarik aise kokatzen zen. Eta plaza haren barnean hainbertze jende zeri beha egoten zen?

Paganoak loriatzen baitziren jende odolaren eta bereziki girixtinoenaren ixurtzen ikusten, enperadoreek egun guziez Erromako populuari nasaiki ematen zioten atsegin hori.

Koliseoko plaza zuten josteta izigarri hortako lekua... Batzuetan esklabak, bertze[e]tan gerletan harturikako presonierak, aldiaren ehunka eta milaka, nahi bazuten eta ez, biluzgorriturik sabre kolpeka elgarri hantxe ar-arazten zituzten, eta azkenik bizirik gelditzen zenak ere, han berean bere burua hil behar izaten zuen.

Girixtinoak zituztenean hilarazteko, ala gizon, ala emazte, ala zahar, ala gazte, ala haur, oro nahas-mahas plaza haren erdian preso eman eta, zezen, hartz, lehoin, tigre, zer nahi holako alimale, galerien azpiko karioletarik, libra-

tzen zuten goserik heien arterat. Zenbat mila girixtino martiren odolaz ez da bustia izan Koliseoko lur hura!

Erroman bezala orobat bertzetan ere, berrehun eta berrogoita hamar bat urtez, girixtino atxeman ahal guziak holaxe zituzten hilarazten; bainan azke-
nekotz halere mundu guzian girixtinotasuna emendatu eta nausitu!

Berrehun eta berrogoita hamar urte hetan, fededunak tokirik gordeenetan baizik ez zitezkeen bil elgarretarat. Erromakoek “Katakombak” zituzten beren eliza eta hilerri eta ihes lekutzat.

Katakombak dire gure mendietako mia ziloak bezalako batzu, Erromako hiriaren zati handi bat lurpez inguratzen dutenak.

Holakoetan zituzten egiten lehen denboretako girixtinoek orai guk gure elizetan egiten ditugun ofizio guziak. Han ziren preparatzen martirioaren hain gogotik pairatzerat. Lurpe hetako galerien paretak, gure etxe-paretetako armarioak bezalatsuko batzuez denak zilatuak ezagun dire oraino. Hetan zituzten ehorzten beren hilak: eta martiren errelekia gehientsuak handik ateratzen dire.

Eta oraino bertze zenbat ikusgarri eder eta bihotz hunkigarri ez dauka Erromak?

Jondoni Petriren elizaz bertzalde, Latran-goia, munduko eliza guzien Ama. Orobat Jondoni Pauloren eliza, Andredena Maria Gehienekoarena, eta bertze holako asko; xoragarri baita ikustea.

Bainan Erroman mundu katoliko guziari, guziz handi, guziz miragarri eta maitagarri zaiona da Aita Saindua, girixtino guzien Aita eta Buruzagia, munduko gizonen artean izan daitekeen majestaterik gorena... Jondoni Petriren ondokoa, Jesu-Kristok bere lurreko erresumaren gobernatzeko bere ordain hemen utzia.

Aita Saindua! Erromaraz geroz, ttiki eta handi, guziek hura nahi dute ikusi.

Arren, zer gozo sekulan ezin ahantzia, gure Aita Saindu miragarriaren ikustea! Haren oinen besarkatzea! Hartaz ikusia eta benedikatua izatea! Nun da erregerik bere manupekoez hala maitaturik?

Zer kanore luke, Aita Saindua balitz bertze munduko errege baten azpiko? Zer irriak ez lituzke merexi holako majestate bat baino gorago jar uste lukeen printzeak?

Horra zertako Aita Saindua ez daitekeen izan bere munduko bereko erregetasun bat gabe. Arren, zenbaitek hori diote sobera atzematzen, eta ondikoz orai guziek badakigu zer egin dioten. Gure Aita Saindu maitea biluzi dute bere munduko erregetasunaren ontasun eta indar guzietarik. Balentria ederra! Ohore eta zuzentasun den-mendrenik behar, ez ahal, izaten ez duena.

Aita Saindua da oraino, zuzentasunaren ohorearen, eta bere erresuma ohiko jendeen bihotzaren errege. Eta mundu guziko girixtinoetan nor liteke aski bihotz gaberik, eta aski arnegaturik, Aita Sainduaren itsutuki ez maitatzeko, haren atsekabeez ez minartzeko eta haren alde ez jartzeko?

- IX – Betharram

Baionako diosesaren baxter-baxterrean Pauetik Lurderateko bide sahetsean da Betharram. Duela zazpi ehun urteko paperetan ja aipu dire Betharrameko beilak.

Oraino aspaldiago, eta naski Mairu denboretarik laster, huna zer gertatu zen. Orai kaperako aldare nausiak daukan tokia lehen harroka bat zen, xut eta gora mendiaren paretatik ureraino heltzen zena; dena ere sasiak eta laparrek hartua.

Halako aldi batez, artzain batzuek ikusi zuten gar eder bat ateratzen harroka horren mazelako laparraren artetik. Badagozi oraino beha, eta ohar-tzen dire, su hura ban-ban-ban beti hala ari, eta hargatik laparra ez duela denmendrenik erretzen.

Zer mirakuilu ote duten bada hori, badohazi harat bererat, eta lapar heien artean atxematen dute Ama Birjinaren potret edo irudi bat bere Jesus haurra altzoan.

Laster egiten dute herriko apezari erraterat, eta berria zalu barraiatzen da. Lehenbailehen ur gaiaren bertzaldean obratzen dute harrizko aldaretto bat, eta prosesione eder bat eginik, han paratzen dute beren Ama Birjina.

Ez zen ordean hura Ama Birjinak nahi zuen lekua.

Biharamun goizean hor atxematen dute aldarea hutsa, eta Ama Birjina lehengo bere harroka eta laparretarat itzulua.

Behin baino gehiagotan berriz oraino bere aldarerat ekarri, eta nehor ohar-tu gabe, zain zaudelarik ere, beti eskasten zitzaioten handik, eta beti ohiko tokirat heldua kausitzen zuten. Ez zitzaion nehorri iduritzen toki hura haren-tzat gisa zela.

Ez da dudarik harat-hunat horietan jendea erne zagola jakiteko ote zenetz nehoven enganiorik edo gaixtakeriarik.

Azkenekotz gogoratzen zaiote hobe dutela herriko elizan ezarri. Berriz prosesionean harat baderamate, eta eliza ongi hetsirik, atetan kanpotik zain han dagozi.

Biharamun argiko ordean, egundaino bezala Ama Birjina, bere Betharrameko mendi paretan.

Beraz baitezpada han nahia zela, eta han berean kapera bat galdetzen zuela ezaguturik, berehala hasi ziren lanean.

Hasteko, mendiaren zati bat behar izan zuten zelaitu eta harrokeri hautsiz bide eginarazi, eta gero kapera bat ederra han paratu zuten.

Kapera horren parrean gaindi dohan ur handiak bazterrak xut ditu eta zola izigarri barna. Ixil-ixila, eta geldi-geldia bezala dago bide puska batean, iduri hark ere bere gisan nahi duela errespetatu toki haren saindutasuna.

Behin neskatxa bat ur hortako usinik⁽³⁰⁾ handienerat erori zen eta itotze-rat zohan. Oihuz hasten da Andredena Mariari. Jainkoaren Ama heltzen zaio. Haritz baten adarra apaltzen eta hedatzen dio eskuen meneraino, eta hari lotuz neskatxa ateratzen da ur bazterrerat.

Gero bere esker onen seinaleztat, eta mirakuilu horren orhoitzapentzat, kaperari eman zion present haritz aldaxka haren iduri bat, eta naski hura bera, hostoak oro urrez.

Mirakuilu hori bezala bertze ainitz gertatzen zen Betharramen. Eririk etsituenak noiznahi bertzek hagetan⁽³¹⁾ harat ekarri, eta bet-betan han sendaturik, berak airoski beren oinez bazohazin etxerat.

Hala-hala jendeak urrundik ere hartu zuen harat beilaz ibiltzeko menta handia. Fantziaren zati on batek segurik, denbora luzez han bide zuen bere fedearen azkartegia.

Gero hargatik heldu da higanot denbora. Higanotak ziren duela hiru ehun urte gure tokietan indar handirekin sartu eta ibili ziren protestant batzu erlisione katolikoari gerla egiteko. Eskual herrietan deus ezin irabazi izan zuten. Eskualdunen fedek beti azkarki ihardoki zioten, eta ahalkerikan baizen ez zuten higanot horiek bildu gure arbasoen artean. Hartako zen eskualdunen fama hain eder eta ohoragarri hedatu zoko eta bazter arrotz guzietarat.

Biarnoan gaina hartu zuten higanotek. Sartu ziren Betharramerat ere eta su eman zioten kaperari. Ama Birjinaren irudi saindua, doi-doia zuen apez batek hartu eta gorde auzoko etxe batean. Gero berriz oraino higanoten lotsaz handik hark berak ereman zuen Espainia Jaca-rat, nun laster jendea ohartzen hasi baitzen Frantziatikako Ama Birjina horren podoreari.

Arren, geroztik, nahiz Birjina frantsesa deitzen zuten, espainolek ez bide zaukaten gehiago guretzat; ezen hantxe omen dute oraino ohoratzen hura bera batzuen arabera Jaca-ko elizan, bertzeen arabera Tagostakoan.

Ama Birjinaren irudi mirakuiluzko hori Betharramerentzat galdua izanagatik, kapera saindua ere errea izanagatik, ez zen halere Jainkoaren boterea batere handik beretik aldaratu.

⁽³⁰⁾ amildegi, leze

⁽³¹⁾ andetan

Mirakuiluak berdin aintzina, lehen bezain usu eta handi obratzen ziren kapera errearen tokian, eta berdin aintzina, jendeak atxikitzen zion hango debozioneari. Gau gehientsuez argi-argia paratzen zen asentu barraiatuek zaukaten eremua, eta aditzekoak ziren hango boz xoragarri eta kantutuinguzkoak.

Higanoten indarrak noizbait ezdeustu baitziren, Betharramdarrek 1614ean, errege Louis XIII.aren ganik ardietsi zuten kapera berriaren egina-raztea.

Erregek, bere gustuz zituen eginarazi hango obra baliosenak, bai eta kapera-rik goraxago mendiaren paretan hain eder den bertze kapera ttikiagoko hura, San Luis bere arbasoaren izenekoa.

Urte pare baten buruan, mendi horren bizkarrean, Hauxeko (?) Artxapez-pikuak uztail erditsuan landatu zuen gurutze bat.

Handik ondoko buruilean, denbora garbi eta eder batez, eguerditan, Montaut-eko hiru gizon iratzepaile bazkariten ari ziren Betharrameri aintzinez dagon larrepata batean. Nehun ez zen hedoi bat ageri; haize den mendrenik ere ez zen. Halere aditzen dute airean harrabots izigarri bat.

Behatzen dute Betharrameko gaineko alderat. Zirimola batek han ari diote aurdikitzen gurutze landatu berria. Azkenekotz, gurutzea erortzen da lurrerat, bai eta hartan berean zirimola baratzen. Gure hiru iratzepaileak harrituak, beren jana utzirik beha dagozi oraino.

Apurto baten buruan, gurutzea han berean bera xutitzen zaiote argi eder batez inguratua, eta koro dirdira handiko bat dakarkeela gain-gaineko buruan. Gurutzearen mirakuilu horrek zioten Betharrameko kapellanoeri eman gogorat, Galbario iduri baten mendi hartan egitea. Hango estazione hunkigarrien deboziona, mirakuilu batzuek laster seinalatu zuten.

Zazpi urte hartan bixta arras galdua zuen emazteki bati, galbario hortan gora zohalarik prosesion baten ondotik, bet-betan bere bixta han itzuli zitzaion...

Geroxago, orobat, han berean emana izan zitzaion gizon inbalier, bi gal-tzar makilekin⁽³²⁾ baizik higi ez zitekeen bati, bere menbro guzien balio osoa... Eta bertze zenbat holako!

Bertzalde Betharrameko ur hegian, eta kaperaren partsuan bada iturri bat asko gaitzen mirakuiluzki sendatzeko bertutea orai artio ezagutu diotena.

⁽³²⁾ sanku, makola, makulu

- X – Bugloseko Andredena Maria eta Puy-en San Bizente Paulo[ko]-aren sortetxea

Akizetik haratxago bi orenen bidean da Buglose. Burdin bidez, Baionatik Bugloerat ez da behar bi oren baino gehiago: ezen goizeko seiak eta erdietako treinean sartuz, Buglosen jauts daiteke bederatzia gabe. Gero hargatik handik hunat hamar orenetako treinez abiatzekotz ez daiteke hango deboziona egin presatuki baizik. Beraz hoberena da arratsaldeko bi orenak eta erdietako treinen goait egotea, edo han berean, edo hunatxago San Bizente Pauloren sorlekuan.

Nehork xuxen ez bide daki noizkoa zen Bugloseko deboziona abiadura lehenbizikoa. Guk dakiguna da, duela hiru ehun urte baino lehenago ere, bazela han Ama Birjinaren potret edo irudi bat famatua.

1570eko heintsu hartan, protestant edo higanotak, Akizeko eta Marantsineko alde hetan, bertze askotan bezala, bazabiltzan eliza erretzen, atxeman ahalikako gauza saindu guzien xehakutzen, eta girixtino katolikoeri gerla egingiten.

Heien beldurrez zenbait fededunek Bugloseko Ama Birjina gorde zuten, eta haren gordegia bertze nehori irakutsi gabe hil ziren. Ama Birjina hori galdu, eta deboziona ere galdu zen. Hargatik berrogoita hamar bat urteren buruan, huna nola Jainkoak berak agerrarazi zuen gordea zagon lekutik bere Ama Sainduaren irudi preziatua.

Bugloseko larre eta ihiztoketan⁽³³⁾ gizon batek bere idiak alha zauzkalarik, idi hetarik bat bere lagunetarikan aldaratuz beti bazohakon sasi batean barna, eta handik beti marrumaz zagokon zerbaiten galdez bezala. Zer ote duen bada han idi horrek, arbola baten gainerat iganik behatzen dio gizonak, eta ikusten du milika eta milika hantxe ari zaiola jendearen itxurako zerbaiti.

Jende iduri hura intan kasik dena sartua dago; burua du doi-doia kanpoan, eta dena ere ihiek itzalixe.

Gizona jausten da arbolatik, lasterka badoha jendeketa, eta heldu da lagun multxo batekin. Oro elgarrekin, ez errexki, sasipean sartzen dire, eta ikusten dute idia han ari dela buru eta aurpegi eder bati oraino milikaka.

Abiatzen dire buru hori behar dutela handik altxatu; bainan ez dirote⁽³⁴⁾ higi. Buru hori bertze zerbaiti eratxikia dago. Bazterretarik barta⁽³⁵⁾ kentzen diote, eta bultoa barnago eta bandiago dohakote. Azkenekotz, peza oso, indarka dena ateratzen dute eta garbitzen.

⁽³³⁾ lur heze, ihitsua

⁽³⁴⁾ ez dezakete higi

⁽³⁵⁾ parta, basa, lohia

Aspaldiko Ama Birjina Buglosekoa! sekulakotz galdua uste zutena, hura eta bera dute, oso-oso, orai agertzen zaiotena. Tokiko zaharrek aise ezagutzen dute bere tronuan hala-hala jarria eta dena harri peza batean landua.

Akizeko Jaun Apezpikuak manatu zuen irudi mirakuiluzko hori, larre eta inta heien erditik ereman zezaten Puy-eko elizarat. Jaun Apezpiku horrek erran egunean, beren Ama Birjina orgetan ezarririk, abiatzen dire Puy-erat buruz. Bainan lau edo bortz ehun urratsen bidea egin orduko, uztarriko idiak bet-betan baratzen dire.

Lehenik akulo sistaka, gero arroderi gizonak lotuz, gero lauzkatuz, zerna-hi egiten dute aintzina joan beharrez. Ez idi, ez orga, deus ez dezakete higiaraz. "Jainkoa ari da, diote orduan guziek; gure Ama Birjinak hemen nahi du: bego beraz hemen."

Berehala han berean egin zioten eliza bat 1622ko Mendekoste biharamu-nean handizki estrainarazi ziotena. Eliza hura hala presaka egina, batetik xaharregiturik, bertzetik oraiko asko beilentzat ttikiegiz, duela zenbait urte, berri-berria egin dute handiago eta ederrago, toki beraren gainean.

Eliza hortarik bortzparei ehun urrats haratxago da kapera bat deitzen dutena 'Mirakuiluen kapera'; eta arras harat gabe iturri bat mirakuiluzkoa. Iturri hori han berean sortzen dena da, Ama Birjina gorde eta atxeman zuten lekuan, eta kapera da egina, irudi saildua bartatik atera eta lehenik pausatu zuten tokian.

1576ean, Bugloseko Ama Birjina galdu berri zuten hartan, Buglosetik oren erdi baten bidean hunatago, Puy-eko laborari etxe batean sortu zen San Bizente Paulo[koa], munduko miseria suerte guzien soleitzailea.

Errankina⁽³⁶⁾, saildu handi eta famatu horren etxea hantxe dago oraino ere, errelekoa bat bezala osorik hala-hala bere xaharrean beiratua.

Haren aintzinean bada haritz zahar bat, barnea hutsa, bainan azal adarrez beti fresko, eta oraino arbola gazte bat bezala hostatzen dena.

San Bizente Paulo[koa] bere haur eta mutiko denboran, abere zain, edo otoitzean, ardura haritz horren itzalean egoten zen.

Egiazki hunkigarri da etxe saildu haren eta haritz benedikatu horren xutik oraino han ikustea.

Orobat ikustekoak dire horien segidan, behinik behin, kapera bat Franzian den ederrenetarik, eta bertzalde bertze asko obra, bizitegi, lantegi, eskola, ospitale, oro jende beharrentzat eginak.

⁽³⁶⁾ errankizun

- XI – Andredena Maria Salette-koa

Mila zortzi ehun eta berrogoita seian, buruilaren hemeretzian, larunbata zen, aratsaldeko hiru orenetan, hameka urteko mutiko bat Maximino deitzen zena, eta hamalau urteko nextato bat Melania izena zuena, behi zain zagozin⁽³⁷⁾ Salette-ko mendia erraten dioten batean. Mendi hori da Grenoble alde hetan, gutarik Frantziaren bertze buruan.

Bi haurrak xirripa baten hegian jarriak zaudelarik, ohartu ziren hetarikan ez urrun bertze bixkarrean⁽³⁸⁾ jarria zagon emazte mirakuluzko bati. Nahiz arratsalde Erdiko iguzkia oraino bere ederrenean zen, hura baino argiago zen distira batek inguratzen zuen emazte hori. Haren zangoak sartzen ziren udan beti kasik idorrik zagon erreka batean.

Orduan, hargatik, nahiz agorte zen, ur xirripa garbi bat, emaztearen zango petik hasirik, bazohan erreka hura behera, eta egungo egunean oraino hura da iturri bat beti ur bera nasaiki dario[e]na, eta gaitzik etsigarrietarik asko eri sendatu dituen.

Maximino eta Melania ohartu zirenean emazte hari, burua apaldurik zagokan eta arpegia gorderik bi eskuen barnean. Nigarrez ari zen. Haurrak beren jarlekutik jeikirik hurbiltzerat abiatzen zaizko, bainan arras harenganat gabe iziturik baratzen dire.

Ez zuten egundaino halakorik ikusi, eta beren deus ezjakinean ez zitzaio- ten gogoratzen Jainkoaren Ama bera zela heien haurtasun hobengabekoari hala agertzen zena.

Hainbertzenarekin Ama Birjina han berean xutik paratzen zaiote eta huna zer erran zioten: “Ez izi, haur maiteak: zatozte aintzina. Hunat etorria naitzaizue berri eta mezu handi batzuen zueri ematerat.”

Orduan bi haurrak hurbiltzen zaizko, nexka eskuinerat, mutikoa ezkerre- rat. Ama Birjinak erraten diote: “Ene populua ez bada onerat itzultzen, ez dirot⁽³⁹⁾ nik gehiago atxik nere Seme hasarretuaren besoa.”

Gero Jainkoa bera bere Amaren mihiz mintzo balitz bezala: “Zer bada! nik zueri astean sei egun ematen, zazpigarrena neretzat galdetzen dautzuedalarik, eta zazpigarren hura ere zuek ez niri ematen! Hori zaio hori gogorki gaitzi- tzen nere Seme Jainkoari; horrek ezarri du haren besoa hain dorpe eta deusek ezin atxikizko heinean. Eta oraino bekatu hortaz bertzalde, zenbat ahopaldi itsusi eta blasmemio! Zenbat penitenziari ihes-egite eta guritasun girixtinoen artean! Jadanik hunkitzen hasiak zarezte ene Semearen besoaz zuen sasoin eta

(37) zeuden

(38) bizkarrean-en ttikigarria

(39) ez dezaket atxik

fruituetan. Gehiagoko zigorradak dagozi oraino zuen gainerat erortzekoak, ez bazarezte Jainko legean bizitzen."

Ama Birjinak bertzerik ere bi haur horieri erran zioten, bainan beharritat, batek bertzearen sekretua ez aditzeko eta sekulan ez jakiteko ere gisan. Gero handik abiatu zitzaieten mendiari gora. Haren oinek ez zuten belar ondo bat zapatzen ez higiarazten, eta iguzkitan zohalarik haren gorputzak ez zuen itzalik den gutiena egiten.

Beren hari beha xoratuak, bi haurrak bazohazkon ondotik. Melaniak gal beldurrez, pixka bat ja aintzintzen ere zuen.

Berrogoi bat urratsen buruan, Birjina Saindua, lurretik bortzpasei zehe gora airean paratzen zaiote, batean zeruari, bertzean lurrari beha, eta emeki-emeki, urtuz bezala han berean suntsitzen⁽⁴⁰⁾.

Maximino eta Melania, biak bedera etxetako sehi baitziren, arrats apalekotz bakotxa bere bidez itzuli ziren etxerat. Etxekoeri, auzoeri, haur lagun guzietan mintzatu ziren beren mirakuiluaz, eta biharamunean berean jendea abiatu zen Salette-ko mendirat heien ondotik.

Hargatik ez baitzen zuhurtzia haur horien hala-hula sinestea, eliza gizon guziak, behinik behin, luzaz gibel egon ziren, eta haste-hastetik, munduari berari aintzinduz egin ahalak egin zituzten, deus gezurrik balin bazen ere, gezurraren atxemateko.

Mundutarrek ere beren aldetik zernahi urrats eta amarru erabili zuten bi haur horiek enganatu edo beren hitzetan bederen nahasarazi beharrez. Bainan haur horien erranen egia azkenekotz orori nausitu zen.

Salette-ko mendiari, hango iturriari, hango debozioneari, Jainkoak eratziki zion mirakuiluzko botere bat nehork uka ez zezakeena. Inguru herrietako jendeek laster bere gisa utzi zuten igandetako lana, eta eman ziren arras girixtinoki bizitzeari.

Bazter guzietarik beilariak egun oroz ehunka eta milaka ziren zohazinak Ama Birjinaren agerlekurat. Agertze horren lehen urtebetetzeko igande bakarrean baziren hiruretan hogoi mila eta gehiago.

Elizak, azkenekotz, handizki onetsi zuen Salette-ko Andredena Mariaren deboziona, eta Aita Sainduak berak nahi izan zuen jakin zer ote ziren bada Ama Birjinak Maximinori eta Melaniari gomendaturikako sekretuak.

Hark berak baizik ez jakiteko moldean biek berex igorri ziozkaten sekretu hek iskribuz Erromarat; 1851n, agorrilaren⁽⁴¹⁾ hemezortzia zen Aita Sainduak irakurtu zituenean. Nigarrez hasi zen; eta gero hasbeherapen batekin hau entzun zioten erraten: "Ah! gaixo Frantzia!"

⁽⁴⁰⁾ desagertzen

⁽⁴¹⁾ abuztuaren

- XII – Lurde

Jerusalemeren eta Erromaren ondotik, ez da orai munduan Lurde bezalako leku fede-pitzgarririk. Lurde, duela oraino hogoi urte ikus, eta orai ikus, hori bera zer mirakuilua! Eta orai han dakutsagun⁽⁴²⁾ espantagarrizko gauzen hastapena, eta mundu guzia orai harat deraman lehiaren abiadura, hamalau urteko nexka pobre, nexka ahul eta deus ez jakin baten erranetik! Hori bera naturalki nola [izan] daitekeen, erran bezate mirakuiluetan sinisterik ez dutenek.

Nexka horrek Bernadeta zuen izena. Aita eta ama eiharazain behartto⁽⁴³⁾ batzu zituen, eta bera haur erixka⁽⁴⁴⁾ mendre bat zen sortzetik. Auzo herri batean atxiki zuten lehenik amañotan, eta gero artzain hamalau urte egin arte-raino.

Lehen komunionea egin ordu baitzuen, eta oraino deus ikastekoa baitzen, salbu arrosorio erraten, etxerat ekarri zuten 1858an urtarril hondarrean, Lurdeko seroren eskolarat ibiltzeko.

Otsailaren hamekan, ortzegun gizen zen, eta hameka orenetako heintsu hura. Bazkariaren egiteko egurra eskas izanez, Bernadeta amak igorri zuen ezpalketa Gaiako ur handiaren zariketarat.

Bernadetak hartu zituen bi lagun: bat bere ahizpa hameka urtetakoa, eta bertzea hamahiru urteko nexka auzoko bat.

Massabielle-ko harroken parrerat zirenean, Bernadetari aintzindu zitzaizkon bere bi lagunak, eta hetarat heltzeko ur batean gaindi behar baitzuen pasatu, hasi zen oinetakoen kentzen.

Bet-betan entzuten du haize burrunba iduri bat. Behatzen du goiti ur hegiko zurzurietarat, bainan oro geldigeldia daude. Ustez deusik ez zen, ukurtzen da berriz.

Hainbertzenarekin, berriz harrabots bera aditzen du eta oraino azkarrago. Behatzen du orduan harrokako alderat, eta harroka hark zolan baitzuen aterbe iduri[ko] zilo handi bat, ikusten du barne hura dena argi-argia; eta goraxago, bertze ziloxxa baten erdi-erdian xutik, Andre handi bat, xuriz beztu, gerrikoa zeru kolore, mantalin xuri bat burutik, arrosorio bihi xuri batzu eskuan, eta arrosa hori urre iduri bat oin bizkar bakotxean.

Andre horrek Bernadetari keinu egiten dio hurbil dakion. Haur gaixoa harritua dago. Naski bixta bide duela zerbait lanbroz edo lilluraz hartua, has-

(42) dakuskigun

(43) errotazain pobretxo

(44) maiz eri (gaixo), guti edo aski

ten da bi begieri harraskaka⁽⁴⁵⁾; bainan halarik ere geroago eta ageriago dago-ko ikusgarri xoragarri hura.

Nolazpait belauniko paratzen da, eta bere arrosorioak eskuetan harturik, hasten da ja hain laket zitzaioren otoitz haren erraten. Bere bortz hamarrekook nunbait-han erran dituenan, agerkaria irri ezti bat eginik emeki-emeki suntsitzen zaio bixtatik.

Eta Bernadeta han baitzagon aintzina bere harroka ziloari beha, azkene-kotz lagunak oihiu egin zioten higi zadien bada handik heien egurketa lagun-tzerat. Hetarat bildu zenean, ezagutu zioten zerbait gertatu zitzaioela, eta jakin artio ez zioten utzi bakerik.

Nehori ez erratekotan, Bernadeta bere mirakuiluaz mintzatu zitzaioten; bainan etxerat eta, bi nexken lehen-lehen lana izan zen amari eta auzoko guzieren denen salatzea.

Amak ez zuen deus sinetsi nahi izan, eta horiek guziak haurkeria batzu zirela, jendea gaizki mintzaraz ere zirotenak⁽⁴⁶⁾, debekatu zion Bernadetari Massabielle-ko harrokarat gehiago hurbiltzea.

Humilki haurrak amari hitz eman zion obedituren zuela.

Ondoko igandean, otsailaren 14an, Bernadetaren ahizpak, haur lagunak eta zenbait presuna larrik⁽⁴⁷⁾ ama hainbertze otoizturik, ardietsi zioten heiekin bederen joatea. Amaren baimenarekin lorietan abiatu zen Bernadeta berriz ere bere Andre ederra ikus uste zuen lekurat.

Zohazilarik, anpoila bat ur benedikatu harturik, lagunak erran zioten: "Andre hura berriz egun ere agertzen balin bazaitzu, botatu beharko diozu ur benedikatu hortarik eta erran diozu: Onekoa bazare hurbil zakizkit; gaixtokoa bahaiz, aparta hadi."

Harroka ziloaren aintzinerat zirenean, deus ez baitzen han oraino ezagun, Bernadetak erran zioten: "Eman gaiten belauniko eta erran dezagun arrosorioa."

Belaunikaturik otoitzean hasi zen bezain laster, Bernadetari begitartea argi-argia egin zitzaion denek ikusten zioten distira miragarri batez. Ezagun zuen bere Andre handia han zuela. Berehala bere laguneri oihuz hasten zaiote: "Beha! beha! horra nun den!"

Bainan bertzeek ez baitzuten deusik ikusten, berriz ere Bernadeta oihuka zagokoten: "Beha-ozue bada, horra, horra! zein ederra den! Beha-ozue zer irri ezti eta maitea egiten daukun. Agurka ere beha zein ederki ari zaikun."

⁽⁴⁵⁾ torraka

⁽⁴⁶⁾ mintzaraz ere zezaketenak

⁽⁴⁷⁾ helduk

Orduan bere haur lagunetarik batek eman zion eskurat ur benedikatua, hartarik bota zezon⁽⁴⁸⁾. Bernadeta hasten da botatzen, dioelarik: “Jainkoarenganikakoa bazare, hurbil zait!”

Ama Birjina hurbilago paratzen zaio, eta haur gaixoa loriatua berriz ere bere laguneri oihuz: “Beha! beha! begiak nola altxatzen dituen zerurat; beha, nola den nereganat apaltzen. Zer, ez duzue orok ikusten?”

Bernadeta berriz belauniko hasten da arrosorio erraten, eta erran duenean, Ama Birjina itzaltzen zaio bixtatik.

Ondoko ortzegunean, otsailaren 18an, berriz oraino agertu zitzaion eta beti toki eta itxura berean. Egun hartan Bernadetak bi emazteki zituen lagun. Zioten, menturaz arima penatu zenbait zabilala han otoitz edo meza galdez.

Emazte he[ie]k erranik, nexka⁽⁴⁹⁾ umilak bere Andre handiari eskaini zion paper bat, hartan otoi iskriba zezan zeren galdez zabilan.

Andredena Maria orduan mintzatu zitzaion Bernadetari eta erran zion: “Ez dut zuri errateko ditudanen batere iskribatzearen beharrik: xoilki zato hunat oraino hamabortz egunez. Nik zuretzat dauzkadan gozoak ez dire mundu huntakoak bainan bai bertzeakoak.”

Hitz horiek erran eta, agerkaria egundaino bezala itzali zen. Biharamunean Bernadetari aita eta ama jarraiki zitzaizkon. Hek harrokarat zireneko ja bazen han jende multxo bat.

Belaunikatu zen bezain laster haur horren aurpegi guzia berriz ere argi-argia egin zen: xoragarri zen hari beha egotea, ezik Andrearen agertzeak aldi guziz itxura bat harrarazten zion ezin gehiago loriazkoa eta xarmagarria.

Bernadetak ikusten zuen agerkaria, hark baizik, bertze nehork ez zuen ikusten. Bera hortaz harritzen zen. Bainan aski zuten jendeek Bernadetari berari behatzea haren itxura guzian klaroki ikusteko eta aise ezagutzeko agerkari zerutikako baten dirdira.

Holako mudantzarik⁽⁵⁰⁾ izaten zuela berak batere ez zakien, egundaino geroztik ere ez du jakin, eta behinere ez zaio gogoratu hari zagoela beha jende guzia.

Otsailaren hogoian, larunbata zen, Ama Birjina bortzgarren aldikotz agertu zitzaion. Aldi hartan lau edo bortz ehun ikusliar bildu ziren harenganat. Lurden eta inguru herri guzietan ez zen bertze aipurik Massabielle-ko harpeko mirakuiluaz baizen, eta Bernadeta harat zohan guziez, jendea geroago eta oste handiagoan zarraion ondotik.

(48) bota ziezaion

(49) neska-ren ttikigarria

(50) aldaketarik

Igande otsailaren 21ean, milaka ziren batzu hari jarraikiz, bertzeak aintzinduz harat jo zutenak. Igande hartan, Bernadetari Andrea bertzetan baino tristeago iduritu zitzaion, eta harpean barnaxago sartua ikusi zuen.

Bernadeta bere belaunez herrestan hurbiltzen zaio eta erraten dio: "Nere Andre Ona, zer duzu hoin goibel izateko; erraguzu otoi zer nahi zinukeen egin dezagun?" Jainkoaren Amak ihardesten dio: "Otoitz egin behar da bekatorentzat."

Gauza horien fama entzunik, eta ikusiz jende guzia bere fedea nola zuen ja higiarazten, gobernamentuko gizonak kexatu ziren. Zernahi egin zioten nexka ahul eta ahalketi horri, baitezpada zerbait malezia edo gezurretan atxeman beharrez; orobat balakatur edo larderiaz beren gosturat mintzarazi beharrez.

Bernadetaren lañotasunetik ez zuten atera ahal izan nehola ere beti egia bera eta berdina baizik; eta beren eskola eta abil-uste guziarekin, hari egin zioten gertan ez zuten irabazi ahalkeriarik eta jendeen irrikik baizen.

Jendea ere nahi izan zuten trabatu Bernadetari Grotarat jarraikitetik. Grotta edo Harpea bera debekuan ezarri zuten; bainan horiek guziak debalde izan ziren askenekotz.

Harperako bidea, hango ur-hegiak, harrokak, zarrikak, sasiak eta ur handiz bertzaldeko alorrak jendez noiznahi estaliak ziren; guziz Bernadeta harperat beharra zela zakiten hamabortz egun hetan.

Hamabortz egun hetarik, Bernadetak bi[*g*]a baizik ez zituen izan bere Andreamen agertzerik gabekoak. Bertze hamahiru[*r*]etan Ama Birjinak ez zion faltarik egin bere haurraren fede garbiari.

Astearte otsailaren 23an, Bernadeta argiko harperat heldua zen, eta ja bazen han zortzi edo hamar bat mila ikusliar. Belaunikatu zen bere ohiko lekuan; esku ezkerrean ezko benedikatu bat piztua zaukan, eta eskuinean arrosorioak zituen. Andreak orduan lehenik erran zion gauza sekretuzko bat hari bakarrik behatzen zitzaiona, eta gero bertze hitz hauk: "Zohaz, Ene Haurra, apezari erraterat, hementxe behar dela egin eliza bat, eta prosesionek hunat beharko dutela etorri."

Bernadetak harpetik lekora xuxen jo zuen Lurdeko Jaun Erretoraren etxerat, eta andreamen hitzak hari erran ziozkan. Bainan Jaun Erretorak hozkittu⁽⁵¹⁾ hartu zuen.

Asteazken otsailaren 24an, Bernadeta bere ikusgiaren artetik hasi zen lurrari musuka, eta bi belaunez zohalarik harperainoko petarra gora herrestan, entzun zioten hiru[*r*]etan erraten: "Penitentzia! Penitentzia! Penitentzia!"

⁽⁵¹⁾ askitto idorki

Berarenganik gero jakin zuten hitz horiek Andreari entzun ziozkala lehenik oihuz bezala erraten.

Ortzegun otsailaren 25ean, huna zer gertatu zen. Andreak erran zion Bernadetari: “Zohaz, Haurra, orai horko iturri hortan edaterat, eta begitartearen garbitzerat, eta gero jan zazu ur horren bazterrean den belarretik.”

Bernadetak behatzen du eskuin, behatzen du ezker, eta baitzakien ez zela harroka hetan iturririk, bere ustez abiatzen da jautsi behar duela Gave-ko ur handiraino, zoina han baitzuen hamar bat urratsetan.

“Ez hor, ez hor, erraten dio Andreak; zato hunat; iturria hementxe duzu barne huntan.” Eta eskua harpe xokoko alderat hedatuz keinu egiten dio han mia dadin.

Haurra itzultzen da; badoha harpe xokorat, eta han ez du kausitzen lur busti puxka bat baizik. Halere hartan berean aztaparez putxu bat egiten du. Putxu hori berehala betetzen zaio ur lohi-lohi batez. Ur hortarik edaten du. Hortaz beraz murruskatzen du begitartea, eta gero jaten du bazterreko belarretik.

Biharamunean Lurdeko gizon harri pikatzaile bat, hogoi urte hartan begi bat galdua zabilana, entzunik harpeko ur sortu berri horren fama, badoha harat, ur basatsu hortaz bustitzen du bere begi itsua; bet-betan horra nun bixta heldu zaion begi hartarat, eta medikuak berak aitortzen du sendatze hori egiazko mirakuilu bat dela.

Handik lehenbiziko egunetan oraino Bernadetaren putxutik⁽⁵²⁾ ateratzen zen ur hori, ez zen xirrixta mehe eta urri bat baizik; hargatik dena ere emekitto-emekitto beti emendatuz heldu zen eta garbituz.

Lurdestarrek, aintzineko tokiko berri baitzakiten, harpe idor hartan urik sor zitekeela ez zezaketen sinets. Ainitzek ez zuten aditu ere nahi ikusterat joaterik. Zenbaitek ikusi eta ere zioten, ur nigar hura deusik ez zela, eta segur agertu bezala laster agorturen zela.

Bainan harri pikatzailearen sendatze mirakuiluzkoa Lurdestar guziek begien bixtan zuten ezin ukatua eta ur haren botereaz gertatua.

Sendatze horren eskerronetan, berehala harri pikatzaile guziek elgar aditu zuten, eta harrizko aska handi bat eginik hantxe ezarri zuten harpeko ura sortzen zen tokitik beheraxago.

Aska hori urez bete zeneko, huna bertze mirakuilu bat. Lurdeko etxe batean, haur inbalier bat, bi urtetan oraino xutik abiatzekoa, hiltzen ari zen. Ja zenbaitek hiltzat ere utzia zuten.

(52) putzu-ren ttikigarria

Amak hartzen du bere taulieraren barnean, eta burutik joana iduri, badoha lasterka Harpe sainduko iturrirat.

Hila bazen hila, bertzela ere zernahi gisaz etsitua, bere haurra sartzen du leporaino askako urean. Izotz goiz bat zen. Gaixoa luzaz han atxikirik baderama hotz gogortua etxerat, eta pausatzen du bere ohakoan. Zenbait orenen buruan ohartzen dire haurrak hatsa baduela eta lo dagola.

Biharamunean, loz eta bularrez arte hartan ontsa aserik, haur hori jeiki nahia, nekez atxiki zuten ohean. Biharamunagoan, hor atxematen dute muti-koa ohetik eskapatua, jauzika hantxe dabilala sendo eta azkar.

Ama hark bere haurra harpeko ur hotz hartan sartu zuenean, baziren han ehunka ikusleak, eta guziek emazte hori oihuka gaizkitu zuten bere gogorke-riaz. Gero, hargatik, bertze oihu gisarik ere atera zen jende heien ahotik ama haren fedez eta Birjina Sainduaren botereaz!

Eta geroztik zenbat holako mirakuilu! Zenbat ehun, zenbat mila! Eta orai-no beti eta noiznahi aintzina gertatzen! Nun fedegabeak berak harrituak baitagozi⁽⁵³⁾, ainizek nahitez amor eman baitute, eta beren baitan sarturik, zinez gure fedea besarkatzen.

Ixil daude orai Harpeko iturria deusik ez zela eta fite agortuko zela hain goraki ziotenak. Oraiko orenean segurik ez du iduri oraino agortzerat dohala; ezen ehun eta hogoi mila pinta ur gutienetik egunean ematen ditu Bernadetak bere erhiz xilaturikako putxuak.

Andreak erran hamabortz egunak hola-hola iragan ziren, bai mirakuiluak, bai heien ikusleak geroago eta gehiago emendatuz zohazilarik.

Hargatik, gero ere egun guziz Bernadeta bazohan bere harperat. Bainan agerkari ohikoa ez zuen gehiago ikusi, salbu bertze hiru aldi: martxoaren 25ean, gero Bazko biharamunean, eta azkenekotz uztailaren hamaseian.

Martxoaren 25eko hartan, Andredena Mariaren Anontziazioneko besta egunean, egundaino baino ikusgarriago eta ederrago agertu zitzaion Bernadeta bere Andrea.

Bernadetak galde hau egin zion: "Otoi orai bederen, ene Andre Ona, otoi erradazu bada nor zaren zu, otoi erradazu zure izena."

Behin, bietan egin zion galde hori, eta Andreak deus ihardetsi gabe behatzen zion irri ezti eta maite batekin. Hirugarren aldikotz galde bera egin zionean, Ama Birjinak, bere esku ordu arteraino junt zauzkanak berexi zituen, arrosoriak beso eskuinerat lerraraziz. Gero bi besoz ezti-eztia egin zuen goratze eta behehitze bat. Zeruari beha paratu zen. Eta oraino berriz eskuak elgarri juntatuz hau erran zuen: "Ni naiz Notagabe Kontzebitua!"

⁽⁵³⁾ baitaude

Horra Lurdeko Ama Birjina agertu izan zeneko mirakuiluak. Horien egia baino hobeki frogaturik ez da munduan gure denboretako gertakarietan.

Gauza espantagarri horien kariaz, Bernadeta eta haren burhasoak, nahi izan balute aise aberastuko ziren, eta ez dire aberastu. Bernadeta mundu hau sekulakotz utzirik, serora egin zen, eta bizi da zerutiar bat bezala urrungo komentu batean⁽⁵⁴⁾.

- XIII – 1875ean, Jubilau urte sainduan, Lurderat eta Betharramerat egin ginuen beila

Sekulan ezin ahantzizko egunak guretzat 1875eko Bazko biharamun eta hirugarren hek! Lurden ginen hamar bat mila beilari, Baionako diosesaren bazter guzietarik harat bilduak: denak gizonak; erdiak eta gehiago eskualdu-nak.

Gure Jaun Apezpikuak oihu eginik, hura harat zohala, eta eia bere diosesako gizonetan bazenetz hari jarraiki nahirik; bortz edo sei mila Eskual Herri xoiletik bildu ginen harenganat.

Burdinbidez ez da gaitz horrelako bidaia baten egitea. Burdinbideek orden ez dute hunkitzen Eskual Herriaren hegaltto bat baizik. Baigorrik, Aldudek, Garaziko herriek urrun dituzte burdinbideak. Zuberoko zokoetarik abiatzea are gaitzago da.

Halere bazter horietarik guzietarik, hamarka, hogoika, ehunka atera ziren gizonak, eta zer gizonak! Ikustekoak ziren bidean zohatzila, beren fededun kopeta hein bat gorarik, beren gurutze gorria papoan, arrosorioak eskuan, gehientsuak oinez, beren hamar, hogoi lekoen egiteko. Bederen horiek ez zuten eskualdun odolik ukatzen.

Baigorriar, aldudar, garaztar eta zuberotar gutiz gehienek, oinez egin zituzten beren 60, 70, 80 kilometr[o]ak, batzuek Baionako gararaino heltzeko, bertzeek Puyoo-rat eta bertze zenbaitek Pauerat eta Lurderat bererat bil-tzeko.

Oinezko beilari horietan baziren zenbait 70 urtez goitikoak. Adin hortako batto Donapaleutik Lurderainoko jua-jinean oinez baizik ez zen ibili. Orobat santangraziarretarik batek, Bazko igandetik asteazken arrats artean, 74 urtetan, oinez egin zituen bere 87 kilometr[o]ak Lurderat bererat eta bertze hainbertze etxerat eta biharamun goizean goiz alorrean zen iraulden ari...

(54) Nevers hirian

Adin bertsuko Baigorriar batek, bizkar eta errainak dolorez makurtuak izanagatik, Baionarainoko bere 55 kilometr[o]ak, bai hara[te]koan bai etxera[te]koan, hark ere oinez egin zituen.

Anhauztarrena da ederra. Beren Jaun erretora aintzineko, herriko gizon higi ahal guziak beilari ziren, eta oro oinez Baionako harat hunateko 120 bat kilometretan. Bide guzian otoitzean eta kantaz ibilirik, asteazken arratseko hamar orenetan, Ama Birjinaren litaniak errepikatuz heltzen ari ziren Anhauzeako plazarat. Han berean arratseko otoitza elgarrekin egin eta erretiratu ziren beren etxeetarat.

Bazko biharamun arratsaldean, hiru orenetako, guziak Lurden ginen. Gero zen ikustekoa gure prosesionea. Lurdeko garatik harpe saindurat baita, urrats onez, oren erdi baten bidea segurik, halere bide handia eta karrikak ez ziren aski zabal gure aise kokatzeko. Metan eta sorkan bezala ginohazin⁽⁵⁵⁾ otoitzean eta kanta errepikaz, gure herri nausietako banderekin eta gure hirurehun apez xuriz jauntziekin.

Grotarat heltzen ari ginelarik, gure Jaun Apezpikua eta Tarbesekoa, biak bildu ziren gutarat. Ordukotz iguzkia sartzerat zohan. Harpearen aintzinean bazen aldare bat, eta sahetseko etxe ttikiaren kaskoa baliatu zen prediku leku-tzat.

Lehenik entzun ginuen prediku bat frantsesez Aita dominikano batek eman zuena, zointan eskualdunen fedez eta fede haren ohoreaz asko erran baitzuen. Prediku hori akabatzearekin, gure Jaun Apezpikuak aldarerat iganik, eman zaukun Sakramendu Sainduaren benediziona.

Ja iluna zen osoki, eta hamar mila beilarik, bakotzak gure argia eskuan ginaukan. Handik harpeko mendiari gora abiatu ginen lerroz lerro eta kanta errepikaz⁽⁵⁶⁾ prosesionean. Grotaren gaineko elizaren ingurua eginik, hola-hola hedatu ginen Lurderako bide zabalean, gero bete ginuen hiriko karrikarik luzeena, eta azkenekotz koka ahal guziak batera bildu ginen plaza nausiaren barnerat. Han akabatu zen gure gauazko eta argidun prosesionea.

Batzu joan ziren beren deskantsuaren hartzeko tokietarat; bertzeek lo egin baino nahiago izan zuten gau hura guzia beilatu Basilikan berean. Eta hainbertze jenderen artean ez oiher bat, ez den gutieneko desordre bat!

Gauerditik goiti, Basilikako hogoi eta bortz aldare[e]tan, gure Jaun apezak hasi ziren beren mezen ematen, eta lehen mezatik hasirik, mahain sainduetan, komunioneak ez ziren baratu nunbait han zazpi orenak artio.

⁽⁵⁵⁾ gindoazen

⁽⁵⁶⁾ bozak eman ahala

Goiztiri dohatsu hartan, ez zen hango debozionearen parerik. Orduan ez ginuen bertze deusez pentsatzen gure Jainkoaz, gure Jainkoaren Amaz eta gure arimez baizen.

Bihotzeko bakeak, amodio Jainkozkoak, Maria Birjinaren agerlekuan gine-la orhoitzeak, gure salbatzaileaz gozatzeak, batzuek bertzeeri han ematen ginuen ikusgarri hunkigarriak; horiek guziek ezartzen gintuzten bertze mundu baten erdian bezala oro loriatuak.

Zortzi orenetan ginuen meza nausia. Biarnesek hango galbario bixkarrean, eta eskualdunek Harpearen aintzinean; ez zen eta denak betan koka⁽⁵⁷⁾ zitez-keen tokirik. Ez gare orhoit egundaino meza batean hain gogotik, hain biho-tzez kantaturik. Ez gare orhoit egundaino prediku batez orduan bezala inarrosiak eta hunkituak izanik.

Bezpera arratseko predikariaren leku beretik mintzatu zitzaikun eskuaraz, aita benediktano bat, sortzez eta suharrez egiazko eskualduna, bainan zeru-tiarren bizirik sailduena, eta sailduen bizitzeko molderik garratzena ereman beharrez, mundutik berex jarria.

Eskualdunen fedez eta fede haren ohoreaz, nahiz bezperan ja arrotz batenganik zerbait entzunak ginen, gure Don Agustin zen aditzekoa gauza beraren gainean, bereziki gogoratzen zitzaionean fede hori nunbait galtzen duten zenbaiten zorigaitza: “A! eskualdunak, zertako utz Eskual Herria? Hemendik nehorat gabe hain gostuan eta hain ohorezki bizi zintezketelarik. O, eskualdunak! maita, maita zazue Eskual Herria; zaudezte hor berean, zau-dezte fermu zuen fede ederrean. Nehun ez zaitezketete Eskual Herrian egonez baino urusago, eta nehundik ez zohazkete zerurat segurkiago.”

Hitz horiek ez ditugu han ginenek sekulan ahantziko, baitakigu nola ginen hura mintzo zitzaikularik haren gainerako arrazoinaz argituak, harri-tuak, eta denak azkenekotz nigarretaraino hunkituak.

Huna gero akabantzan, beila handietako usaiaren arabera eginarazi zauz-kigun⁽⁵⁸⁾ oihuak edo aklamazioneak; hark lehenik, eta guk guziek betan haren ondotik errepikatuz oihuka:

“O Maria, maita, begira, salba zazu Eliza!”

“O Maria, maita, begira, salba zazu gure Aita Saildua!”

“O Maria, maita, begira, salba zazu Frantzia!”

“O Maria, maita, begira, salba zazu Eskual Herria!”

Ez daiteke erran, gure bihotzak orduan han nola ziren eta ez da dudatzeko gutarik aintzek bi egun hetan Lurden izan dituzten inarros aldi loriagarrieri zor izanen dutela beren salbamendua.

⁽⁵⁷⁾ sar zite(z)keen

⁽⁵⁸⁾ zizkigun

Astearte eguerdi heinean ginuen harpe saindutik gure partiada. Handik ahal ginuen guziek Betharramerat jo ginuen.

Betharrameko kaperak ez gintzakeen koka. Hedatu ginuen hango galbarioko bixkarreraino, nun emana izan baitzen Sakramendu Sainduaren benedizio-nea.

Gero abiatu ginuen etxerat, harateko bide berez eta harateko molde beretan. Etxerat-eta guziak gauza bati ohartu ginuen: batere ez ginela nekatuak; bai ordean erran daitekeen baino gehiago gustu hartuak eta loriatuak.

- XIV – Meza sainduko otoitzak

(Meza Saindu aintzinean)

Zure aldare Sainduaren oinetan ahuspez emanik, adoratzan zaitut, O Jainko guziz boteretsua.

Sinesten dut entzuterat nohan meza dela Jesu-Kristo zure Semearen Gorputzaren eta Odolaren Sakrifizioa.

Sinesten dut Sakrifizio hau dela Galbarioko hura bera, aldare hunen gainean orai, odol ixurtze eta hiltze berririk gabe, bainan hango botere eta merezimendu guziekin ofreitzerat dohatzuna⁽⁵⁹⁾.

Si la raie du *passo* leur semble bien gardée par d'adroits rechasseurs, ils lancent leur balle parfois en parabole plus ou moins élevée jusqu'au fond de la place, où les retourneurs L L ont besoin d'une grande vigueur et de justesse de coup pour la ren-

— 8 —

voyer en deçà de la raie du *passo*, même jusqu'à un point quelconque du mur du *rebot*.

Sur ce mur, ainsi que dans l'intervalle de ce mur à la raie du *passo*, la balle renvoyée de si loin produit quelquefois des effets qui la rendent imprenable à ceux du *rebot*. Mais d'ordinaire, elle leur arrive si belle que le relancement n'en devient que plus formidable.

Dans ces superbes va-et-vient de la balle d'une extrémité de la place à l'autre, il arrive un point où un joueur, soit d'un camp soit de l'autre, juge qu'il peut percer par un coup bas, ou raide, ou roulant, la ligne du *passo*, qui est toujours le point de mire des combattants. Alors les petits coups font merveille, et M et N et O, d'un côté, et S et T, de l'autre, n'ont qu'à se bien tenir.

Les rechasseurs ou défenseurs de la raie du *passo*, N, O, S et T, doivent être toujours des joueurs émérites et mûris par l'âge, ainsi que le retourneur intermédiaire M, de l'*entre fond*.

Le rôle le plus brillant est sans contredit celui du repousseur. Il peut être jeune, celui-là. Il lui faut une grande souplesse de reins pour relever et lancer du même coup des balles qui l'obligent parfois à se coucher par terre. C'est lui qui, d'ordinaire, fait le plus grand jeu, et ce sont ses beaux coups qu'admirent et applaudissent le plus ceux qui ne connaissent pas à fond le mérite, la finesse, et les ruses de certains coups plus réduits, où la balle ne doit pas être parfois lancée à un mètre. Il est des cas où le plus superbe repousseur commettrait une maladresse en ne se bornant pas à cela.

Les retourneurs L L du fond sont constamment tenus à faire un grand jeu à cause de la grande

— 9 —

distance que leur balle a à parcourir pour franchir la ligne du *passo*, pour éviter aussi qu'elle tombe entre les mains et à la portée des défenseurs adverses de cette ligne. Leur coup exige une vigueur formidable pour percer cette raie là.

Nous avons maintenant à traiter les questions si intéressantes du changement de camp, et des chasses.

Nous avons déjà observé que le parti qui occupe le rebot a là une position plus avantageuse que le parti qui a le but et occupe le fond.

Avant de commencer la partie, c'est à croix ou pile que l'on décide quels sont ceux qui doivent les premiers être maîtres de cette position.

Supposons que le sort favorise les Espagnols P, Q, R, S, T.

Pour les Français qui sont au but et au fond, il s'agit de déloger les Espagnols de cette position privilégiée et de se mettre à leur place.

Ils ne le peuvent qu'au moyen des chasses.

Une balle qui est arrêtée (*Fig. 4*) dans l'espace intermédiaire entre la raie du *passo* et la ligne de front du carré du rebot est proclamée *chasse*, et un marqueur attitré s'empresse de marquer ce point d'un trait ou d'y placer une branche de chêne. Cette chasse n'est encore pour aucun des deux camps ni *quinze* gagné ni *quinze* perdu.

Si, avant qu'aucun des deux camps n'ait *koanté*, il se fait deux chasses, les Français ont conquis le rebot et les Espagnols vont au but.

Si l'un des partis a déjà *koanté*, une seule chasse suffit pour imposer ce changement de camp.

Regardez maintenant les *Fig. 4* et *5*. Supposons

— 10 —

que c'est le cas d'une seule *chasse*, qu'on appelle *chasse de quarante*.

Jusqu'à ce que l'un des partis ait gagné ou perdu cette *chasse*, la raie du passio est transférée à la ligne de cette *chasse*, et il suffit au repousseur de faire franchir cette ligne pour gagner la *chasse*, gagner le point, et de quarante où il était arriver au jeu complet.

Mais si un des adversaires massés devant cette ligne est assez adroit pour refouler la balle *du bon* ou l'arrêter roulante de son gant avant qu'elle n'ait dépassé la *chasse*, c'est ce dernier qui a gagné le quinze, et par conséquent aussi le jeu, si c'était lui qui fût déjà au point de *quarante*.

La *chasse* une fois ainsi résolue, la raie du passio se trouve rétablie là où est le butoir.

Quand ni l'un ni l'autre camp n'a encore *quarante*, on ne change de côté que quand il y a deux *chasses*.

Quand il y a deux *chasses*, on commence par lutter sur la première; et une fois sa ligne annulée, cette ligne est transportée là où est la deuxième *chasse*. Après celle-ci, la raie est rendue au butoir.

Une fois qu'on est familiarisé avec ces notions, particulièrement avec celle des *chasses*, le plaisir d'assister à une partie au rebot s'en trouve décuplé.

Avant de terminer ce petit traité, disons quelques mots sur les juges (en espagnol *jueces*), sur les chasseurs, les crieurs, les marqueurs et les parieurs.

Avant la partie, chaque camp choisit 2 ou 3 juges parmi les spectateurs. Ces juges sont des hommes d'une probité reconnue, presque toujours d'anciens joueurs de rebot. Ils ne peuvent

— II —

guère, sans manquer à la courtoisie, refuser le mandat qu'on leur offre ; mais aussi ils ne sauraient l'accepter s'ils engagent quelque pari dans la partie.

Quand un point, une chasse, ou quelque autre cas du jeu se trouve en litige, le chasseur du camp réclamant crie « *Aux juges* » ou « *Jueces* ». Alors les quatre ou six juges disséminés dans les couloirs FF (fig. 1) et près du *rebot*, s'assemblent chapeau bas. S'il s'en trouvait d'assez mal appris pour se tenir alors couverts, il serait de règle de siffler leur mépris des usages et leur impolitesse. Debout et rangés en cercle au milieu de la place, ils délibèrent à voix très basse, et parfois très longuement. Nul ne doit s'en approcher, ni joueur ni spectateur, excepté le crieur qui, le béret à la main, attend à quatre pas d'eux la sentence qu'il doit proclamer. Cette sentence est sans appel, et le joueur qui s'en plaindrait serait hué de tous.

Quand, sur le point en litige, les voix sont égales de part et d'autre, le crieur reçoit l'ordre d'aller quérir un nouveau juge qui tranche la question. En Espagne, c'est l'*alcalde* ou maire qui a titre pour cela, et qui, sur un signe respectueux du crieur, descend de son siège et se rend vers les juges avec qui il échange d'abord un salut et délibère sur le différend.

C'est vraiment beau, saisissant, solennel.

Dans les grandes parties de *rebot*, il y a deux *chasseurs*, c'est-à-dire, deux hommes spéciaux, anciens joueurs, chargés de marquer les chassés. Chaque camp nomme ordinairement le sien, et ils sont tenus à une exactitude scrupuleuse sur l'endroit où ils doivent tracer leur trait : et comme ce trait tracé par terre ne se voit guère de loin,

— 12 —

ils déposent une branche de chêne sur la même ligne, près de la raie latérale de la place.

Il y a, en outre, un compteur de points et de jeux qui crie d'une voix sonore et claire chaque quinze et chaque chasse, et, à chaque jeu, la situation de la partie et l'état respectif de chaque camp.

Parfois, l'étendue de la place, et la foule qui bruit ou clame comme la mer, rendent nécessaires deux crieurs, qui se renvoient au loin le même mot.

Il y a des moments, cependant, où cette foule devient muette et haletante d'attention et d'admiration. C'est quand un quinze se trouve longuement disputé, c'est pendant les nombreux va-et-vient d'une balle qui vole d'une extrémité de la place à l'autre, tantôt en superbes paraboles, tantôt sifflant en ligne droite et basse comme un boulet, alors surtout qu'après un coup fourré qui l'a fait bondir par terre et qu'elle semble ne pouvoir plus être relevée, on la revoit dans les airs roulant avec une force renouvelée. Quand un pareil quinze enfin est terminé, c'est dans toute la foule des hourras, des applaudissements, un délire d'enthousiasme dont il est difficile de se faire une idée.

Mais voici que du haut du clocher paroissial sonne l'*Angelus* de midi. Le jeu est immédiatement interrompu : joueurs, juges, chasseurs, spectateurs ne font qu'un cœur et qu'une âme pour prier la Mère de Dieu, et manifester publiquement leur foi. Nous avons vu des dissidents, émus d'un pareil spectacle, se lever tête découverte et rester ainsi respectueux et immobiles jusqu'à la fin de la prière.

A Saint-Jean-de-Luz, où tout ce qui est bon se

— 13 —

fait grand, deux clairons municipaux, au coup de midi, s'avancent vers l'intérieur de la place et sonnent au champ, pendant que l'*Angelus* retentit et que le peuple, tête découverte et debout, récite sa prière.

Ainsi s'affirme encore de nos jours l'antique foi des Basques jusqu'au milieu de leurs jeux. Il est vrai que le jeu de paume, surtout celui dont nous parlons, est d'une noblesse et d'un caractère national qui l'élèvent bien au-dessus de tous les autres jeux vulgaires.

Le cardinal Lavigerie, qui a tant illustré notre pays, aimait naguère à honorer, à encourager par sa présence sur le jeu de paume de Cambo notre grand jeu national, et cet intermède de la prière d'un peuple vaillant et fort, au milieu d'un si beau spectacle, l'émouvait toujours profondément.

Il n'y a que quelques rares Basques abâtardis, renégats, et absolument dégénérés qui osent affronter le mépris public en affichant une attitude irrespectueuse pendant cette manifestation religieuse.

Toute partie de paume, quelque modeste qu'elle soit, est toujours l'objet de paris plus ou moins considérables, d'abord entre les joueurs eux-mêmes, et aussi entre les spectateurs, ou même d'autres gens qui n'y assistent pas. Les enfants parieront au moins 5 cent. ; entre amis de la même localité, on gagera les frais d'une consommation à l'auberge ou pendant la partie même, où les rafraîchissements sont souvent nécessaires. Dans les parties interprovinciales ou internationales, on engage des centaines et des milliers de francs.

Depuis quelques années, à Buenos-Ayres, au

— 14 —

Brésil, en Espagne, il s'est formé des associations qui spéculent en grand sur le jeu de paume. Elles ont à leur solde des joueurs cotés, dont les gages fixes ou paiements varient depuis trois mille jusqu'à trente mille francs par an. Ces compagnies engagent soit entr'elles, soit avec des sociétés d'occasion, des parties dont la gageure de provocation s'élève parfois jusqu'à cinquante mille francs, sans compter ce qui se parie parmi le public.

Nos joueurs basques français, qui résident dans le pays même, ne sont pas des acteurs vivant de cette profession. Ils jouent plutôt en amateurs libres, exerçant d'autres professions, et occupant même quelques uns de hautes positions; car il est honorable dans nos pays d'être un bon joueur de pelote.

L'étranger qui aura étudié ce petit traité, aura, lundi 27 août, aux fêtes basques de Saint-Jean-de-Luz, l'occasion d'apprécier un jeu dont les notions prises ici lui auront révélé le mécanisme et l'ingénieuse beauté.

FIN

« Notice sur le jeu de paume au rebot »

FIGURES
AUX
PAGES
SUIVANTES ⁽¹⁾

⁽¹⁾ Les figures qui suivent ne sont plus à l'échelle indiquée au dessus de la feuille. H.D.

Fig. 1. — Plan horizontal d'une place de rebot : 110 m. long, 18 ou 20 m. large. A, mur de rebot de 4 à 7 m. haut (voyez Fig. 7). B, mur facultatif du fond de la place d'environ 4 m. de haut. C, butoir fixe pierre ou bois. D, pavé du carré du rebot. E, raie ou ligne du passo. F, couloir entre la place et gradins. G, des spectateurs. H, issues.




Fig. 2. — Limites de la place seule et positions des joueurs. Camp espagnol : p, q, r, s, t. Camp français : K, L, M, N, O. Positions ordinaires au commencement d'une partie ou d'un point. Les deux camps changent de terrain ou de côté par l'effet des chasses.




Fig. 3. — Divers coups gagnant le quinze, ou bien devenant chasse. 1, balle retournée du fond et arrêtée entre J et A de la fig. 1. C'est gagné par L de la fig. 2. 2, balle arrêtée dépassant à peine la ligne du passo : quinze gagné par le joueur du rebot. 3, balle arrêtée entre E et J de la fig. 1 chassée.



4, balle roulant par terre repoussée par p (fig. 2) et sortant de la limite latérale de la place, est aussi chassée au point même d'intersection.

Fig. 4. — Plusieurs des points où peuvent s'arrêter les chasses. Il suffit que la balle s'arrête ou soit arrêtée à même 0 m. 01 c. de la ligne du passo. Deux chasses dans un seul jeu produisent la permutation des 2 terrains entre les 2 camps.




Fig. 5. — Cas d'une chasse de quarante. Par l'effet de la chasse qui serait par exemple en S (voir fig. 4) la raie EE du passo se trouve transférée là où a été arrêtée la chasse S.





Fig. 6. — Cas de 2 chasses. Ici les chasses supposées en S et T (fig. 4) ont transporté la raie du passo, la 1^{re} en EE très près du rebot, la 2^e en E'E' près de la ligne du butoir.



Echelle de 4 millimètres pour 1 mètre


Fig. 7. — 1^o Rebot vu de face, 2^o Rebot vu de profil. Il est interdit au seul buteur de toucher ailleurs que dans le carré et la partie du mur correspondant à ce carré, limité par les lignes perpendiculaires Z.



La balle ou coup 1 est l'insaisissable pic ras, 2, est le pikondo, ou presque pic difficile à prendre, 3, est le paret ou mur facile à relever, et 4 ainsi que 5 plus facile encore. Voyez au dessin du

profil les divers effets de repoussement du mur. Ainsi les parètes 5 et 7 tombent hors la ligne ou limite du carré. Pour le buteur c'est faute. Pour les retourneurs c'est bon, même en 8. Dépasser le mur par exemple en 6 devrait être faute partout.

Fig. 8. — Ici se trouve figuré le coup appelé errebot (rebot). C'est celui qui, lancé par le buteur ou retourné de plus loin, frappe d'abord le mur. Le repousseur a ordinairement beau jeu avec ces balles qui lui viennent à la volée. C'est avec ces balles qu'il fait les plus grands coups. Les balles refilées du rebot jusqu'au mur du fond y produisent les mêmes effets souvent agrandis. Dépasser le mur du fond est compté bon en certaines localités, faute en d'autres. Ce devrait être faute partout.



Donibane Lohizuneko pilota partida errebotekoa ⁽¹⁾

Biba Donibane! Ez da nehun Eskual Herrian besta ederragorik egiten. Hasteko larunbat arratsean Jondoni Joane alegrantzi[a]zko sua, hango zere-
moniak, nehun ez bide du parerik. Igande goizeko eta arratsaldeko ofizioak
ere nehun baino ederrago dire eliza handi eta super hortan, eta populu guziak
sorkan hetara du lehia. Han da han egiazko eliza besta, osoki erlisionezkoa,
eta egun osoa Jainkoaren eta Patroin handiaren ohoratzen deramatena; beren
burua ere ez dute hortan donibandarrek gutiago ohoratzen; hala diote han
suertatzen diren jende arrotz, jende argitu, eta gure fede katolikotik kanpo
bizi direnek berek.

Biba Donibane! Ezen nehun ez da besta astelehen eta astearte hain eskual-
dunik eta hain alegerarik egiten. Hoinbertze arta eta lehiarekin, hoin euskal-
dunki herriko besta bat arrimatzen duten buruzagiek edertzen dute tokiaren
fama eta itxura guzia.

Deusek ez du hala edertzen herriko besta bat, igandez kanpo, nola erre-
boteko partida batek. Ordu zen noizbait eta nunbait, bi urte luzeren buruan,
ikus ginezan holako partida bat; plekako⁽²⁾ joko horrek, beti gauza bera, jen-
dea asetzen hasia baitu.

Astelehenean, Donibanen jokatu den partidak izan du aldarte⁽³⁾ ederrik.
Izan da joko bat bederatzi aldi adostu izan dena. Partida hastean [e]uri xehe
batek plaza eta bereziki errebot barne harri pikatuzkoa bustirik, atertu ondo-
an ere nekez xukarazi⁽⁴⁾ ahal izan dute barne hura, nun erreferaria ez baitzi-
tekeen higi lerratu gabe.

Hola-hola egin dituzte lehen sei jokoak, frantsesek bat eta espāñolek
bortz. Uste ginuen espāñolek arrunt, edo bederen aski zalu bazeramatela par-
tida. Otharre, ordukotzat berotzen hasia baitzen, eta lagunak ere hautak bai-

⁽¹⁾ 'Eskualduna', [472. zenbakia] "Eskual Herria" saila, 1896-07-03.

⁽²⁾ Pilotan, pareta bati kontra

⁽³⁾ une, memento

⁽⁴⁾ idorrazazi, lehortu

tzituen, sartu zen bere jokorik hoberenean. Handik goiti frantsesek berdindu zuten partida eta segidan irabazi hamabi joko lerroan⁽⁵⁾ eginik.

Azken galtzeko bi jokotaraino xoragarriki ari izan da español Mankoa; bainan ez zen hanbat ongi lagundua eta gertatu ere zaizko bizpahiru ixtripu joko galaraztekoak. Ikusliar soberakinek ere, plazaren zolako bi izkinetan zenbait aldi bere joko ederra trabatu izan diote. Bainan nundik egin holako[e]tan aski jarleku, plaza nahi den bezain handi izanik ere, harat biltzen den jende ostearentzat? Ez ziren hurbiltzeko[rik] ere aski bi sahetsetako zazpi edo zortzi mailetako barrerak⁽⁶⁾.

Erreferatik⁽⁷⁾ ehun metretan plaza-zolarat, handik berriz erreboterat⁽⁷⁾, pilotaren hiru, lau, askotan bortz aldi zorrotz⁽⁷⁾ eta lore airetan⁽⁷⁾ hola ikus-tea eder zaiku deneri, bainan ederrago zitzaizkigun paso marraren⁽⁷⁾ bi alde hurbiletan errexaxariak⁽⁷⁾ eta artekoek⁽⁷⁾ egin dituzten jo zalu eta adretak. Agustín españolak eta Ganixon saratarrak ez dute parerik hortako: hoiien sist eta sast bipilak⁽⁷⁾ nahiko gintuen kintze aldi guziez ikusi.

Erreboteko partida horiek diren baino are ere ikusgarriago eta atakatuago litezke, plazak berak balire orai erraterat gohazin kondizioneakoak.

Behinik behin ez liteke behar plazarik lauetan hogoita hamar metraz luze-akorik; lauetan hogoieta ere aski litezke ainitz herritan. Bainan halako plaza batek behar lituzke baitezpada bi burutako paretak zazpi, zortzi metra hein hortako goratasun berdinekoak eta paretaren pasatzea beti falta.

Plazaren zolako holako paretaren bixtan da plazaren luzetasunari eman lezokeela⁽⁸⁾ hogoi bat metra gehiagoren balioa.

Zolako erreturnariak⁽⁷⁾ orduan bigarren errebot batetik bezala ihardok lezoke erreferarik gaitzenari, eta kintze gehientsuen trenkatzeko lana liteke⁽⁹⁾ orduan paso marrakoeri edo artekoeri sistako bipil zenbaiten igortzea. Errexaxarien jokoak orduan luke menta⁽¹⁰⁾ usua eta ederra.

Sarako bestak lehen hain eder ziren denboran orhoit gare hango plaza ederean, erreferari handi batzuek, Herriko Etxea bera gainez gain pasatuz, orduko eskularruez berez egiten zituzten paso alimaleez⁽¹¹⁾. Zer ez zuten eginen oraiko xisterekin? Bainan nor zen haundiko landa hartan pilota holakoen erreboterat itzultzeko, onetik⁽¹²⁾ segurik?

(5) segidan

(6) jarlekuak

(7) Erreboteko jokoko hitz teknikoak

(8) eman liezaiokeela

(9) bukatzeko lana litzateke

(10) arrakasta

(11) erraldoiez

(12) onerat (?)

Maiz gertatzen ikusten ginuena zen: erreferaren pilota sartzen etxe haren beraren leihoetarik barnerat edo hango arku azpietarar, eta hartan kintzea akabo, kintze aise hala erreferak irabazia. Jats, hazpandarra, bezalako erretur-nari bat zola hartan izanik ere, askotan nehundik ezin balia haren jokoa.

Oraiko xixtera jokoarekin, erran dugun zolako paretarik gabe, ez dateke plazarik aski handirik, eta holako pareta batekin jo guziak barnean daude berdin indarrekin: eta pilotari bakotxak han hobeki balia detzake bere ahal eta karkula suerte guziak.

Badu hogoi eta zenbait urte Urruñako errebot laburrean, bortz frantses hoberenak, bortz espagnol hoberenen kontra, jokatu zela egundaino ikusi den partidarik bihurriena, erreboteko eta zolako bi paretan gainetik zohakeen joa beti falta. Ez zen han lore joiterik⁽⁷⁾; bizpahiru gizabeteren heinean burutik buru zabilkaten⁽¹³⁾ xixtuz pilota, nun ez baikinuen erdietan gure aintzinean pasatzen ikusten ere. Paso marrakoek bazuten segur lan egun hartan eta behartzen zitzeien erne izaitea. Halere damurik ziren bi buruetako paretak uste gabezko jo batzuentzat apalegi, bertzenaz ez zen izanen hango jostetaren parerik.

Diogu berriz ere, erran dugun heintsuko luzetasunarekin plaza batek pareta gorak balitu bi buruetan, erreboteko jokoa jadanik hain eder dena, doble ederrago liteke, eta pilotari-gai gazteek halako batean gostuz ikasten ari litezke.

Balitz nunbait holako plaza bat, ikusteko liteke han partida hau: lau xahar hoberenak hogoita bat urtez azpiko erreferari batekin; bertze lau xahar adin bereko erreferari gazte batekin, ezen ordu da gazte hoiak, soldadugorat heldu gabe, ager ditzen erreboteko partida handietan, oraiko xahar horiek gazte zirelarik agertzen hasi ziren bezala.

⁽¹³⁾ zerabilten

Laborariak, ez oraino etsi ! irakurrazue hau ⁽¹⁾

Joan den 'Eskualduna'-n aipu zen ogiaren eraiteko sasoinik hoberenaz. Dio, Vilmorin-ek, urrian edo hazilean erain ogia nausi dela mozkin emaiten.

Sei ehun urtez Espainia gehienaren jabe egotu ziren mairuek herri hautan utzi sineste bat da: abendo beherapenean litekeela hoberenik ogiaren eraitea.

Hargatik denbora nolakoa den!

Aurtengo sasoina segurik, ogirik ezin eginik deramagu orainokoa: etsigarri dela ere diote ainitzek.

Ez oraino etsi laborari maiteak: huna etsenplu bat gogoaren altxagarritzat har dezakezuen.

1856ean edo hamazazpian, Kaskoina⁽²⁾ zena, denbora hartako pilotari famatua; pilotari, itzain eta laborari kasko gaitzekoa Hazparne Oihartirian zen etxetiar hemezortzi ehun liberetako aferman⁽³⁾.

Bertze itzain batek jo zion aferma bi mila liberetaraino, eta Kaskoina atera zen Oihartiritik, itzaingoa utzi gabe ostaler sartzeko.

Lur handiak eta gizenak zituen Oihartirian, Hazparneko karrikaren alde batean, eta bere idi ederren ongarriz eta lanez gain-gainetik zauzkan. Negu hartako haren harbiak ez zuen parerik.

Oihartiritik ondoko Jondoni Martinetan atera behar zelakotz, egin zuen bere buruari behar ziola hango lurrari arte hartan, ahalikako mozkinik gehiena ebaki⁽⁴⁾.

Denbora hartan Hazparnen bikari nintzen eta Kaskoinarekin ainitz atxikitzen nuen.

⁽¹⁾ 'Eskualduna' [495. zenbakia] 1896-II-II).

⁽²⁾ Paratzailearen oharra: 'Kaskoina' erabiltzen du hemen Zaldubik, baina Hazparneko inguruetan 'Gaskoina' izengoitiaz deitzen zuten, delako pilotari guziz famatu hura. Funtsean, ostatuak ere 'Gaskoina' dakar. H.D.

⁽³⁾ alokairua

⁽⁴⁾ etekina atera

Sekulan [beti] orhoituko naiz, Hauste eguna zen, eta Elizako ofizioen ondotik, Garizumako lehen baruraren ahanzten nindabilan eguerdi aintzinean errege bidean, harat eta hunat, Oihartiriko alor sahetsean.

Alor hartako harbia ordukotz jana, ogi eraiten ari zen Hauste egun hartan gure Kaskoina. Erran zautan, uste zuela oraino ogi errekolta on bat bil lur hartan orduan erainik ere, bertzenaz ere goizago erainez lurra gizenegiz ogia ondu gabe eroriko zitzaiola toki hartan.

Orhoit naiz ogi hura uztailean ederrik eta lastoz frango gorarik, bildu zuela Kaskoinak hamar bat egun doi-doa bertzeek baino berantago.

Ogi hura bildu eta, Kaskoina hor doa Ostubilako etxetiarrarekin Baionarat Miarrizko⁽⁵⁾ arto kasta⁽⁶⁾ laster jiten den bat baita, hartarikako haziketa.

Arto hura ogi alor hartan ber-berean erain zuen aboztuaren hiruan. Joan zen Nabarrangoseko⁽⁷⁾ merkaturat: handik ekarri zituen hirur idi zahar pare, mehez, xutik doi-doa zaudenak.

Artoa laster eta usu sorturik Kaskoinak lehenik idi horien bazka ferdetzat zaukan.

Uda ederrak emanik, arto hori uste baino ederrago baitzohakon, Kaskoinak ematen zioten nasaiki bere idieri bakanduz eta hondo hoberenak handitzerat utziz alorrean.

Hirur idi pareak larruak atxik ahala gizendu zitzaizkon eta irabazi ederrean saldu zituen.

Abendoko hilabetean ehun erregu⁽⁸⁾ arto bihi, erran dugun arto horren berexkunde ondoetarik bazituen Kaskoinak bere aldategi berriko selaururat bilduak. Ostubilako etxetiarrak ere nihauri erakutsi zauzkidan nunbait han bertze hainbertze.

Erran behar da : uda halakoa izan baitzen.

⁽⁵⁾ Miarritzeko

⁽⁶⁾ mota

⁽⁷⁾ Navarrenx

⁽⁸⁾ erregu bat = 28 pinta edo litro.

Donibaneko erreboteko partida ⁽¹⁾

Hots! noizbait bederen, noizbait Frantzia alderdi huntan, Lapurdi huntan, mila zortzi ehun eta larogoita hamazazpian, agorrilaren hamaseian; —kasik kasik balio ere bailuke erratea zenbatgarren mendean— Donibane Lohizuneko plaza handian, jokatu da, aspaldi ikusi izan den erreboteko partida ederretarik bat.

Denborak zituen ez ginuela gure alderdi hautan erreboteko partidarik ikusi. Bide dire asko gure oraiko gazteetan zer den ere ez dakitenak erreboteko jokoa...

Erreboteko jokoa, gure arbasoen joko eder, handi, famatua; eskualdunen egundainoko joko eskualdun berezia; jende ospeen aintzinean ohorezki joka zitekeen bakarra; kaskoin, erdaldun edo arrotz nungo nahikoek egundaino ikasi ahal izan ez duten jokoa; eskualduna indarrez, zalutasunez, antzez, eta buruz zer den erakusterat ematen duen jokoa, gure herri hautan bere gisa utzia zagon zenbait urte huntan⁽²⁾, plekako jokoa ainitzek nahiagoz.

Plekako joko hori, bere ederrenean ere, zer da errebotekoari edo laxoari berdinkatzeko⁽³⁾? Beti pareta handi bati jo eta jo eta beti jo; beti pareta horri buruz, beti elgarri giblez edo saihetsez. Jokoaren erdia denek beti paretari eginaraz; pareta jokoz nausi, eta gero beti jo berak edo berdintsuak, guziz kintze iraunkorretan; buruzko antze guti; oraiko asko zaharrek diotena: plekako jokoa, lehengo denboretako haur jokoa, kaskoin jokoa! Horra zeri emana den oraiko gure gazteria, nehun deus ederragorik edo ikusgarriagorik ez balitz bezala.

Gure hondar errebotlariak zaharregitu dire eta heien ondokorik ez zaiku nehundik ageri. Akabo saratarren ohorea; akabo hazpandarrena; akabo kanboarrena eta ezpeletarrena.

Joan den asteleheneko partida hori ikusi dutenek erran dezakete, plekako jokoa zer gauza hitsa den errebotekoaren aldean.

(1) "Donibane Lohizuneko erreboteko partida". 'Eskualduna' [532. zenbakia] 1897-08-27.

(2) aspaldi huntan (?)

(3) konparatzeko

Murde Goyeneche Donibaneko auzapeza behar zen, partida horren jokarazteko orai gu garen bezalako pilotarizko ezerian⁽⁴⁾.

Hamar errebotlari behar, eta biga baizik ezin hatzeman frantsesik! Bat Larralde saratarra, bere berrogoi eta gehiago urterekin, partida guzian, errebot paret apal eta pik⁽⁵⁾ ondotarik, pilota beti plazaren zola-zolaraino erreferatu⁽⁵⁾ duena: eta Ziki berriz, Ziki, zer botaria! Zer beso zorrotz eta zuzena! Erran daiteke hark ereman duela partida.

Bertze zortzi pilotariak espaiñolak ziren. Lapurdirentzat zer ahalkea, halako besta handi batekotzat! Arrotz herrietarik, eskualdunak zer garen ikusterat etorriarik hainbertze jende handien aintzinerat agertzeko; Jaun apezpikua bera holako partida baten ohoratzerat behin jinen eta bi pilotari frantses baizik ez hemengorik, eta zortzi espaiñolek erakutsi behar, hek direla hek legezko eskualdunak! Horra beraz zertaratuak garen.

Partida hortan bezalako jo harat-hunat eta plaza burutik plaza bururakorik guti ikusi da. Paso marrako eta errexakoek lana frango izan dute: loriatu gaitu heien adrezia erneak.

Damurik plaza zolako etxeen paretak ziren hain desbardin, eta denak ate eta leiho. Izan balitz han pareta bat errebotekoaren negurri berekoa, jostetak izanen ziren kintzeak ezin hondarreratuz, eta partidak doble iraunen zuen.

Izan da joko bat zointan adostu baitire bederatzi aldi: lau, bortz aldi adoste hori maiz gertatu zaiote.

Jaun apezpikuak, nik dakidan norbaitek erakutsirik⁽⁶⁾, bazakizkan⁽⁷⁾ erreboteko jokoaren harat-hunat guziak; bai xaxak noiz eta zertako diren, bai nola kuantetik jausten den jokoaren tretera. Loriatua zagon gorabehera horieri beha: dio oraino ez zuela sekulan pentsatuko bazitekeela munduan holako joko noblerik.

Erran behar da, gauza guziak jaun apezpiku baten beraren gustukoak eta ohoratzeakoak ziren.

Lehenik, plazan sartzeko musika: Harispe jeneral zenaren 'xazur'⁽⁸⁾ eskualdunen martxa edo aire xoragarria.

Gero jaun auzapezaren agur eta ongi etorria jaun apezpikuari bere kargudun lagunekin, eta harat bilduak ziren bertze asko jaun handirekin.

⁽⁴⁾ eskasean (?) nahikarian (?)

⁽⁵⁾ Errebote jokoko hitz teknikoak

⁽⁶⁾ Zaldubi bera dela apezpikuaren argitzailea errateko molde bat.

⁽⁷⁾ zekizkien

⁽⁸⁾ Jean-Isidore Harispe, Maréchal (1768-1855), 'Chasseurs basques' delakoen aitzindaria.

Hamar pilotariak, plazan sartzearekin, presentatu ziren bi lerrotan, jaun apezpikuaren aitzinerat, agur egin zioten denek batean, eta jaun apezpikuak benedikatu zituen.

Partida erditsutan zelarik jo zuen eguerdik. Bi tronpetek jo zuten sagarako airea eta jaun apezpikuak, bera xutiturik, ikusi zuen plazako jende guzia, eta pilotariak ere, joko utzirik Anjelusaren erraten xutik eta buru-has. Hunkitua zen bihotzeraino; erran zioten bere aldekoek, hori zela eskualdunen usaia. Kasik uste izateko zen harentzat elizako ofizio batean zela.

Huna bertze gauza bat, miragarri izan zaikuna: zortzi pilotari espainoletan bi aldetako hoberenak eta aintzindariak, biak beso motxak: bat Billabonako manko famatua, bertzea Irun, joileetan [izan] daitekeen bihurriena, duela urte bat pilota ukaldi batek beso ezkerria hautsirik, geroztik beso hura bi aldi moztua izana.

Eroriko bat eginik beso moztuaren alderdirat Irunek izan du goibeldura bat, nun beldur baikinen ez zela gehiago on izanen bere jokorat itzultzeko. Geroztik egin du jokorik bipilena, nun bertzeek sei eta hark batere izanik, altxatu baitzen bederatzi jokotarat.

Erran lezakete zenbaitek jostatzeko partida bat zela: eta bi alderdiek elgar aditzen zutela. Zer eginen zuten gehiagorik, egin ahalak zinez egin izan balituzte, eta elgar xehakatu nahiz ari izan balire?

Elgar aditze hortaz aspaldion, plekarien gainean ere bada asko errankizun.

Denek diotena hau da: asma ahalikakoak egin behar litezkeela⁽⁹⁾ Eskual Herri guzian, erreboteko edo laxoko jokoaren berriz pitzarazteko: bertzenaz eskualdunen ohoreak egin du.

⁽⁹⁾ liratekeela

Larresoroko kantu berriak ⁽¹⁾

Aire huntan:

Xo ri ñu a no ra zo az bi he ga lez ai ri an
 re mi ut ut re si ut ut re mi fa mi re mi ut (bis)
 ut ut fa fa fa sol fa mi re sol fa mi re ut si
 re mi ut ut re si ut ut re mi fa mi re mi ut

Urriaren hamaseian, igande egunean,
 Baionan apez xahar bat egoiten den etxean,
 Mutiko tzar bat sartu zen zaku bat bizkarrean.
 Mutikoak zer ote du zaku horren barnean?

Huna zer zuen ixilka zakuan ekarria:
 Birjina Dolorosaren antzo⁽²⁾ hunkigarria.
 Amak Semea daduka altzoan hil berria.
 Hura besoz Jesus atxikiz, triste dago jarria.

Mutikoak apezari hauxe zion erasi⁽³⁾:
 “Zuri ekartzeko dut hau Habren⁽⁴⁾ nihaurk erosi.
 —Zer derasak⁽⁵⁾ mutikoa, ez ahal duk ebatsi?
 —Ez, Jauna, ez naiz ohoina; behar nauzu sinetsi.

⁽¹⁾ ‘Eskualduna’ [597. zenbakia] 1898-II-25.

Paratzailearen oharra: bertso hauek Larresoroko Ama Birjinaren irudiaren ohointza eta berriz kausitzea kontatzen digute. Gertakari horrek bertze bertso batzuk ere sortarazi zituen; ikus: “Larresororaren agurra beren Ama Dolorosari itzuli zaiotenean”, ‘Larresoarra’ izenpetua, ikus ‘Eskualduna’ [613. zenbakia] 1899-3-17. H.D.

⁽²⁾ irudi (statue)

⁽³⁾ Zerbaite erran, hala edo hula, ez beharbada osoki xuxena.

⁽⁴⁾ Le Havre hiria ote da (?)

Amerikano zen baten puskak ziren han saltzen.
 Hazpandar bat ondokotzat utzirikan hila zen.
 Saindu hau aditu nuen inkantean kridatzen⁽⁶⁾.
 Bortz liberaren oihura niri zautan gelditzen.

Apezak mutikoari Birjina hartzen dio;
 Haren eskuetan utziz gaizki egin bailiro⁽⁷⁾.
 Ebatsia balinbada jabea kausi diro.
 Bila dabilalarikan, ai ! ager balakio !

Zenbait egunen buruan mutiko hura bera,
 Bi jandarmek zeramaten preso tribunalera.
 Etxe bat arroboturik, gauaz sartuz barnera.
 Bertze hobenik baduen ageriko ote da?

Orduan apez xaharrak entzuten du jendetan,
 Larresoron han daudela jendeak nigarretan,
 Birjina Dolorezko bat galdurik egun hetan.
 Norbaitek ebatsi deie Elizako heipetan⁽⁸⁾.

Apezak mezutzen dio hango Jaun Ertorari,
 Birjina harek diola hartu ebasleari.
 Hek galdu dutena dela joka liro⁽⁹⁾ zernahi.
 Berehala igor dezon⁽¹⁰⁾ norbait haren bilari.

(5) 'erasi' aditzaren forma trinko bat.

(6) oihukatzen

(7) gaizki egin bailezake

(8) heia = aterbea, teilatu azpia

(9) joka lezake

(10) igor diezaion

(11) beti egon bedi

Leo XIII. Aita Sainduaren otsaldia ⁽¹⁾

Lurreko jendakien goiti-beheitiak
Jainkoaren eskuak dabilzka⁽²⁾ guziak ;
Handienak apalduz, goratuz ttikiak ;
Zuzen nun den daki haren zuhurtziak.

Klodobe⁽³⁾ errege zen sortzez paganoa ;
Alamanekin zuen gudu bat gaixtoa ;
Ezin trenka baitziron⁽⁴⁾ etsaien lerroa,
Otoiztu zuen oihuz Kristauen Jainkoa.

Klotildaren Jainkoa, otoi hel zakizkit ;
Etsai hau jotzen badut, zure naiz oraitik,
Girixtino natzaitzu eginen gogotik,
Ez dut Frantzian nahi Jainkorik zu baizik.

Klodobek otoitz hori egin dueneko,
Soldadu uzkurrenak⁽⁵⁾ sutan jartzen zaizko.
Heien oldarra nehork ez du atxikiko ;
Etsai hilez bertzeak ihes doazko.

⁽¹⁾ Adema-Zaldubiren oharra : "Frantziaren bataioko XIV. mendeburukotzat egina, latinetik lokabiziki (libroki) eskuararat itzulia." 'Eskualduna'-k Adema-Zaldubi hil ondoko urtean publikatu zuen, ikus [I120.zenbakia] 1908-09-25. Otsaldia = agintaldia (?)

⁽²⁾ darabiltza

⁽³⁾ Clovis-en bataioa: 498ko abenduaren 25ean. Kantika hau sailka dezakegu beraz 1898an edo 1899an.

⁽⁴⁾ ezin bentzu baitzezakeen

⁽⁵⁾ kemen gutien dutenak

Erremisko⁽⁶⁾ elizan sartzen da errege :
 Girixtino Klotilda zuen ja andere.
 Apezpikuak dio emaiten hau lege
 Adoratu idolak oro detzan erre.

Apaldu duenean Klodobek burua :
 Heldu zaio alderat Jaun Apezpikua :
 Eman dioenean bataio saindua,
 Errege han dagoko besarka lotua.

Erroma kendu nahiz Aita Sainduari,
 Auzo gaitzak zitzaizkon usu gerlan ari,
 Pepin frantses erregek hek jorik bi aldi
 Emendatu ziozkan lurak Erromari.

Angelesa Frantzian sarturik nausi,
 Gizon aski azkarrik ez baitzaiten⁽⁷⁾ kausi,
 Neska batek zituen gudutan errautsi,
 Koro galdua ere erregeri jauntzi.

Hamalau mende huntan Klodobez geroztik,
 Zenbat ongi datorren haren bataiotik !
 Jainkoak berak dauka Frantzia besotik,
 Deusek zoratu gabe, egon dadin xutik.

Egoadi⁽⁸⁾ girixtino jendaia suharra :
 Ez zakala gal hire ohore zaharra :
 Begira zak Fedea eta haren karra :
 Hark derauk⁽⁹⁾ idukiren betiko indarra.

Beretu baihinduen Jesusek aspaldi ;
 Haren etsaier buruz beti bihur hadi.
 Denek elgar maite-ta denek elgar adi :
 Batasunak orotan indarra dik handi.

⁽⁶⁾ Reims

⁽⁷⁾ ez baitzitekeen kausi

⁽⁸⁾ egon hadi

⁽⁹⁾ dik (dauk)

Klodoben bataio urtebetetzeak
Aurten ditu Frantzian eder ohoreak,
Batai'harri hartarat bil beitez osteak,
Berriz indar har dezan han gure Fedeak.

Quelques règles de la prosodie ou art poétique basque ⁽¹⁾

1.- Les Basques n'ont jamais fait de vers qu'en couplets réguliers destinés à être chantés ou même déclamés comme dans les pastorales.

2.- Le Basque ne reconnaît ni vers libres ni vers blancs. Il n'a égard qu'au nombre de syllabes, fussent-elles longues ou brèves. Les hiatus dans les mots qui se succèdent, même aux hémistiches, sont seulement tolérés.

3.- Les rimes dans les vers basques ne vont pas seulement deux par deux: elles doivent être les mêmes dans toute la durée de la strophe même la plus longue. Quand il y a lieu de faire croiser deux rimes différentes ces deux mêmes rimes croisées, et pas d'autres, doivent régner dans tout le couplet.

4.- Dans les vers qui se terminent par deux voyelles **ea**, **ia**, **oa**, **ua**, **ea** par exemple ne peut pas rimer avec **ia** ni avec **oa** ni avec **ua** et réciproquement.

5.- La même finale d'un verbe, non au participe, telle que **naiz**, **dut**, **zen**, **dio**, **zion**, **duzu**, etc., ne peut pas se répéter comme rime dans le même couplet.

6.- Les Basques sont friands de la rime riche: la rime suffisante leur suffit à peine.

7.- Deux couplets à la suite ne devraient jamais être de même rime et même de rime peu différente.

8.- Les mesures des vers sont aussi diverses dans le basque que dans toutes les autres langues, elles dépendent de l'air ou musique adoptée par le poète.

⁽¹⁾ 'Eskualduna' [608. zenbakia] 1899-02-10. Chapeau de l'article : « L'Eskualduna du 20 janvier [1899, NDLR] nous a donné, sous la signature de 'Paristarra', une fable ou apologue en chanson basque: 'Arraina eta bere umeak', qui est une des meilleures compositions basques de notre temps. Voilà ce qui s'appelle composer selon toutes les règles de la vraie prosodie basque. Nous voulons à cette occasion exposer ici même les plus élémentaires au moins de ces règles. »

Il y a des vers de quinze pieds avec hémistiche entre les 8ème et 7ème pieds. Il est mieux d'en faire deux vers de 8 et de 7 de rime différente se croisant avec les rimes des vers pareils subséquents, comme dans l'hymne latin *Pange lingua gloriosi...*

Le vers basque le plus usité, l'alexandrin basque, est de treize pieds, avec hémistiche au 7ème. Les Basques d'Espagne l'appellent **zortziko**, — huitaine — et l'écrivent en huit lignes, le couplet de vers de cette mesure, 7 et 6, qui se compose ordinairement de quatre vers.

Il y a aussi des chants composés de véritables hexamètres semblables à l'hexamètre français.

Les vers de onze et dix pieds alternés ont l'hémistiche après le quatrième pied et ils doivent avoir deux rimes différentes croisées.

L'hémistiche dans le vers basque est soumis à des règles plus sévères que dans toute autre langue. Il équivaut à la fin d'un vers. Ainsi, entre les deux mots **aita** et **ona**, il ne peut y avoir d'hémistiche ni entre **maite** et **zaitut**.

9.- Les vers au-dessous de dix pieds n'exigent pas la coupure fixe de l'hémistiche. Nos poètes basques ou bardes de campagne n'ont pas besoin qu'on leur enseigne ces règles. Les plus illettrés d'entre eux les observent naturellement, instinctivement.

C'est à l'usage de certains compositeurs lettrés, habitués à la prosodie française ou espagnole, que nous publions ces notions particulières et spéciales à la prosodie euskarienne.

Dans un prochain numéro de l'Eskualduna nous signalerons comme éclaircissement divers morceaux de poésie basque, où tel ou tel numéro des susdites règles se trouvent violées.

Nous recommandons aux amateurs de conserver le présent article.

('Eskualduna' [6II. zenbakia] 1899-03-03)

Dans un des derniers numéros de l'Eskualduna, nous avons publié une ébauche de notice sur la prosodie ou art poétique basque...

Ce travail nous était depuis longtemps réclamé par divers amateurs et aspirants versificateurs du pays, ainsi que par maints philologues bascophiles étrangers.

On nous en a su gré plus que nous aurions osé nous y attendre. Mais aussi on nous engage à recommencer avec un peu plus de développement, ce qui nous semblait suffire comme simple ébauche. Est-ce un vrai traité sur la matière qui nous serait demandé?... Nous ne savons si nous suffirons à la tâche... Essayons et recommençons:

Nous avons commencé ce travail en indiquant 9 règles principales en vigueur depuis des siècles dans la poésie populaire basque: règles dont, pour notre honneur national, il importe de maintenir mieux que jamais la tradition.

Il est bien à présumer que ces règles de la versification basque ne remontent guère au delà du XIIe siècle, et il est probable aussi que les chansons de geste de cette belle époque et particulièrement quelques hymnes rimés de l'Église leur servirent de modèles.

Les tercets monorimes du *Dies irae*, les quatrains de *Jesus dulcis memoria*, les stances du *Lauda Sion*, surtout les deux dernières, avec la même rime riche répétée quatre fois, durent infiniment plaire à l'oreille des Basques, et cette monorimie que dans ces temps reculés ils adoptèrent pour leurs chants régionaux, a été religieusement maintenue comme essentiellement populaire jusqu'aujourd'hui.

La poésie est une des choses qui tiennent le plus aux fibres intimes d'une nation. Chaque race a la sienne, chaque idiome surtout y accuse sa distinction. Le Basque trouve dans ses chants un des éléments de son patriotisme; pourquoi en modifierait-il les lois pour imiter l'étranger? N'a-t-il pas déjà par ailleurs assez fusionné avec les ravisseurs de son originalité, de ses droits et de ses libertés?

Depuis quelques années, cependant, il se manifeste une fâcheuse tendance vers un modernisme exotique. Des compositeurs, doués certes d'ailleurs d'un vrai souffle poétique, en prennent trop à l'aise avec la vraie et traditionnelle prosodie basque, et parfois se font couronner dans les concours: l'aveu et des protestations nous en sont venus même du côté de l'Espagne où pourtant Iparagirre fut un maître si correct.

Le contact, l'influence, l'habitude des littératures ambiantes ne devrait pas nous faire ainsi désapprendre les règles de notre art poétique euskarien; moins encore devrions-nous encourager certaines reproductions ou traductions serviles de romances attendries et trop connues des poètes qui ne sont ni de notre langue ni de notre sang.

Nos bardes ou bertularis illettrés de campagne sont, sans qu'ils s'en doutent, malgré les incorrections qui échappent à leurs improvisations ou à leur manque de soin, les plus sûrs observateurs des règles de la versification basque: on dirait qu'ils y procèdent en vertu de quelque don atavique, sans aucune étude d'une pareille prosodie.

Parmi eux, le meilleur modèle à citer, dans ces derniers temps, est le vieux Otchalde de Bidarray. C'est également sans étude, sans même avoir entendu jamais énoncer à d'autres, que chaque Basque, dès son jeune âge, pourvu surtout qu'il ne sache aucune autre langue que la sienne, conjugue si correctement son verbe si prodigieusement savant et si ingénieusement compliqué dans ses combinaisons.

Nous n'avons rien à apprendre aux poètes basques de nos villages: ils ne font que les fautes qu'ils sont impuissants ou trop négligents à éviter: que ne sont gentils à soigner et à limer leurs hâtives compositions?

Ils ont pourtant conscience de leurs fautes; car dans les concours d'improvisation, par exemple, il n'est pas rare de les voir souligner eux-mêmes par leur quelque geste de dépit ou quelque grimace de mécontentement, alors même qu'ils savent combien le jury qui les juge et le public qu'ils amusent, leur sont indulgents.

Pour les compositions écrites avec préparation et loisir, toute indulgence envers les violateurs des règles serait absolument condamnable.

Entre une pièce médiocre de pensées, mais de facture correcte, et une autre de souffle plus poétique, mais irrégulière et fautive comme versification, la préférence devrait être donnée à la première. Les admirateurs de la seconde se borneraient à dire: "Que n'est-elle écrite en prose!"

Or, cette prose elle-même, s'imagine-t-on quels soins elle exige pour se produire dans toute la beauté de sa perfection? Il en est qui l'estiment, au moins d'aussi savant et délicat manquement que la meilleure versification; car la phraséologie basque, sans rien changer aux lois qui depuis plusieurs milliers d'années régissent cet idiome, est susceptible d'un perfectionnement indéfini.

C'est particulièrement pour les compositeurs lettrés basques habitués à d'autres langues, aux dépens peut-être de ce qu'ils devraient savoir de la leur, que nous avons entrepris d'exposer les règles traditionnelles de l'art poétique euskarien.

1ère règle.- La versification basque n'admet pas les vers libres se succédant sans mesure régulière ou sans rime.

2ème règle.- Toute poésie basque en vers doit se composer de strophes ou couplets réguliers avec ou sans refrain, destinés à être chantés sur un air qui en règle les mesures et les cadences. Bien des Basques ne savent s'inspirer et composer qu'en chantant.

3ème règle.- Le vers basque est syllabique et non métrique, c'est-à-dire qu'il se règle non d'après la valeur des syllabes longues et brèves, mais selon leur nombre seulement. Les hiatus dans la rencontre des mots, même aux hémistiches, sont tolérés. Les élisions ne sont admises que le moins possible et seulement dans la rencontre de deux mêmes voyelles et dans quelques autres cas où elles font un heureux effet.

4ème règle.- Les rimes dans les vers basques ne vont pas seulement deux par deux; elles doivent être de même son dans toute la durée du couplet, quelque multipliés que soient les vers de ce couplet.

5ème règle.- Quand il y a lieu de faire croiser deux rimes différentes, ces deux mêmes rimes croisées doivent continuer jusqu'à la fin de la strophe. La

richesse de la rime est très recherchée dans les vers basques, et souvent elle s'impose.

6ème règle.- Deux voyelles ne s'élidant jamais en basque dans le même mot, deux et même trois voyelles successives constituent autant de syllabes distinctes. Dans les vers qui se terminent par deux voyelles, comme **ea**, **ia**, **oa**, **ua**, **ea** ne peut pas rimer avec **ia**, ni avec **oa**, ni avec **ua**, et vice versa.

7ème règle.- Deux strophes à la suite ne doivent pas être de même rime ou aussi de rime peu différente.

8ème règle.- Dans les vers de dix syllabes et au-dessus, la césure ou hémistiche est de rigueur, elle doit marquer une suspension de sens soumise elle-même à certaines règles plus rigoureuses dans le basque que dans aucune autre langue. C'est comme si les deux parties du vers coupées par la césure constituaient deux vers distincts: en effet, les Basques d'Espagne écrivent d'ordinaire en deux lignes chaque vers comptant plus de dix pieds.

9ème règle.- Les mesures des vers sont aussi variées en basque que dans les autres langues. Leurs nombres de pieds, leurs cadences, leurs hémistiches, le nombre de vers de chaque couplet sont déterminés par l'air sur lequel ils doivent être chantés.

(‘Eskualduna’ [613. zenbakia] 1899-03-17)

La versification la plus usitée, la plus classique, la plus commune aux sept provinces basques est le sept-six de 13 pieds, coupé par l'hémistiche entre le septième et le sixième pied. Son similaire en français est, pour le mouvement rythmique, tout ce qui se chante sur l'air du cantique si connu:

Je mets ma confiance— Vierge, en votre secours ;
Servez-moi de défense.....— Prenez soin de mes jours ;
Et quand ma dernière heure.....— Viendra fixer mon sort,
Obtenez que je meure.....— De la plus sainte mort.

Il y a ici huit vers à rimes croisées, au lieu que dans le basque il n'y en aurait que quatre, les quatre de 13 pieds, mais les quatre rigoureusement de même rime. Les Basques d'Espagne les écrivent en huit lignes, comme s'il y avait huit vers:

Gernikako arbola.....— da bedeinkatua
 Euskaldunen artean— guztiz maitatua :
 Emanta zabaltzazu— munduan frutua
 Adorätzen zaitugu.....— arbola santua.

Voilà ce que les Guipuzcoans, très épris des originalités de leur dialecte plus coutumier pourtant de licences grammaticales que notre labourdin, observent toujours rigoureusement, en l'appelant leur **zortziko**, ce qui veut dire à huit vers ou huitain en français.

Dans les strophes de cette mesure-là, la même rime répétée huit fois serait un luxe de fantaisie qui n'offre guère d'exemple. Cela n'aurait rien d'irrégulier. Mais au moins les quatre vers de 13 pieds doivent être rigoureusement monorimes.

Eskualdunen ona eta ohorea bilatzen duten gizon argitu guziek diote, eskualdunak behar lukeela beti egon eta agertu eskualdun, utzi gabe galtzerat bere aztura eta berexkida zaharrak; ez baitu deus orai artio irabazi bertze edozoin jende arrotzen iduriko edo meneko jarriz. Itsusten eta mendratzen baizik ez du bere burua heien jestu, moda, mintzaia eta berrikeriak ederragotzat hartuz.

Lapurdiko seme bat, gaztean pilotari eta plazagizon eder izana, urte luzez urrun toki arrotzetan egonik, berriroski Eskual Herrirat itzulia, entzun dugu nardatua mintzatzen, hemen gaindika ikusi dituen eliza besta batzuez. Jaun horren lehen hitza zen: “Debruak joan du Eskualduna”.

Eliza batean, kantika frantsesak, predikua ere frantsesez. Besta hiru egunetan nehun kasik erreboteko partidarik gehiago jokutzen; orotan pleka eta pleka baizik ez. Mutikoxka batzu karta frantsesekin jokotan eta frantsesez mintzo; handiagoko batzu kaskoin herrietan bezala girletan; bertze andana bat ostatuan frantsesez kantu errepikan. Herriko plazaren erdian, dantza frantsesik baizen ez: dela polka, dela maxurka, dela eskotix, eta purtzilkeria,

herri handietan hiriko musika batekin; tikiagoetan xirribika edo klarinet soinu; eskualdunen leheneko tanburin eta xirula alegera hura nehun ez gehiago ageri, ez eta irrintzinarik ere kasik nehun.

Erran dugun jaun horrek herri batean galdegin ditu mutxikoak; xirribikari xahar bat, hain xuxen bazuten jotzen zakitzana⁽⁴⁾: ez zen gizon gazte bakar bat han eskualdun dantza hortan piko baten ere ematen zakienik. Hiru hogoi urtez goitiko bi mugertar atera ziren, behari guziak harritu baitziren eta loriatu heien jauzi eta urrats nobleen ikusteaz. "Ez da beraz, zioen, ez, ez da gehiago ez Lapurdin ez Baxenabarren gazteria eskualdunik." Denik ere Xuberon, hobekixago dauzkate lehengo josteta zaharrak.

'Eskualduna' [II08. zenbakia] 1908-07-03

Espainia alderdiko eskualdunak azkarkiago atxikiak dire beren arbasoen denboretako ohidura guziera. Donostiako hirian, beren bestarik handienetan, Bestaberriko profesionean berean, armadako musikaririk ederrena baino lehenago eta buruzagiago daukate beren danbolina eta xilibitua. Hau aintzin-aintzinean, gero da musika osoa. Eliza bestetan kanpoko jei guziaz arta handia du herriko alkate jaunak. Dantzak berak, haren manuaren meneko dire. Dantza hek gureak ez bezalakoak dauzkate; gehienak eta ohorezkoenak mairuen denborako eta bertze aspaldiko gerlen eta gertakari handien orhoitgarriak dituzte, eta hainiz gisetakoak.

Frantziako dantzak han gaizki ikusiak eta debekatuak ere litezke; jende xehea bera asalda laite⁽⁵⁾. Iguzkia sartuz geroz, dantzatik etxerat helduak ez litezkeen neskatxak segur harrikatuak laizte⁽⁶⁾.

Erran gabe doha Espainiako eskual herrietan ere ez dela pilota partidarik gabeko bestarik. Gutti beharrez han ere, asko herritan nausitu zaiote plekako joko, gurea baino oraino sorjesagoa⁽⁷⁾, ezker sahetseko bigarren pareta batekin neke baita hala falta baten egitea guziz ezkerrekoentzat, beti jo, eta jo berak, kintzeek ez dute han akabatzerik plekari lehertueri hatsak eskas egiten diotenean baizik.

Hala-hala, hango jendea asea bide da orai plekako joko hortaz, eta errebotean lehen bezala artzen hasiak omen dire pilotariak, erreboteko plazak oraino oso dauzkaten tokietan.

(4) zekizkiena

(5) asalda liteke

(6) lirateke

(7) itsusiago, traketsagoa askoz ere

Frantzian, maizenik segurik, plekariak sahetseko paretarik gabe artzen dire Espainian baino meritu gehixagorekin: bainan halere, behinik behin esku huska, eskasa hain urrun; pareta hain zabal eta gora, beti kasik joak eder, indarra adrezia baino nausiago; ixtripuz baizik kintzea ezin trenka; horra esku huskako plekaren edertasuna, eta gu horri beha zoratuak egoten! Bertzerik ez izanez.

Badire ere plekariak joko hortan fama ederra eta jornal handiak ja irabazi dituztenak.

Xisteraz pleka ari direnek, zafra gaitzagoak, eta ikusgarriagoak dituzte; eta zein urrun eta zein zorrozki! Damurik dire horien joen erdiak falta, sobera atxikiak direlakotz; xistera luze horren barnean bi punpa frangotan eginik, 'berges'⁽⁸⁾ jujatuak izan behar litezkeelakotz. Halere orainokoan on hartuak zaizkote guziak. Atxiki arras lasterrik baizik ez daiteke haizu [izan].

Pleka artez horrek gure gazteriari galarazi dio erreboteko jokoaren gustu eta antze guzia. Lehen plaza batzuetan ez zen haizu pleka artzerik. Eder zen orduan ikustea zenbat pilotari ateratzen zen Saratik, Hazparnetik, Ezpeletatik, Kanbotik, Zuraidetik, Ahetzetik, eta bertzetarik, erreboteko jokia zelakotz bakarrik onetsia.

Orai ez dugu halako pilotari ederrik, zaharrik eta lehenekoen hondarrik baizik: direnak ere ongi estimatzen baititugu. Horiek joanez geroz, egin du gure Eskual Herri alde huntakoaren ohoreak.

Hargatik ez gauzke hola. Eskual Herrian ez daiteke [izan] behar bezalako bestarik erreboteko partidarik gabe.

Nun dire ordean, eta zer ari dire gure mutil gazte gehienak? Igande eta besta egunetan han omen daude ostatuetan edo zokotan: ez da hanbat zainart⁽⁹⁾ izan behar hortako. Pilotari ohi zahar batek zioen berriki: "Oraiko gazteek odola arno bilakatua dute".

Halere ez ginuke etsitu nahi; bainan zer egin? Diote zenbaitek, oraiko xisterekilako jokia errebotean gaitzegia dela. Nork bihur pilota erreferak urrunegi edo ezin hartuzko tokirat igortzen duena? Hala-nola plazaren zolako burua dena zoko eta izkina, dena leiho eta teilatu denean?

Batzuen arabera behar litezke faltatzat ezagutu errefera aldetik 90garren metra pasa lezaketen jo guziak: ordean hori liteke errefera aldekoeri beren indarraren kentzea.

Huna, gutiz gehieneri, zer zaioten hoberenik: ez litekeela behar erreboteko plazarik, zolako buruan, bedere[n] bortz metra gorako pareta bat gabekorik.

⁽⁸⁾ hiztegi teknikoa

⁽⁹⁾ kementsu

Aski laite⁽¹⁰⁾ orduan plazak ez dezan izan 90 edo 85 metra baino luzetasun gehiago.

Erreferatik ehun metra eta gehixagotarat lohazkeen pilota guziak pareta horrek plaza barnean atxik letzazke, zola hartako erreturnalariaren⁽⁸⁾ menean, eta orduan liteke, bi buruetako, artetako, errexaxako⁽⁸⁾ eta paso marrako⁽⁸⁾ pilotarien josteta zinez emendatua eta guziz usu atakatua.

Urruñako errebota liteke molde eta neurri arras onekoa, zolako pareta gorago balu. Pareta hori madrigaz⁽¹¹⁾ eta taulaz ere liso eginik, frango laite, eta pilotari zenbaiten arabera hobe baizik ez, hark goraxko hartu pilota ez dadin sobera urrun errenbolia⁽⁸⁾.

Badire zurginak holako baten egitea beren gain har lirotenak 250 libere-tan, oro berek forni, eta oraino merkeago, zerbitzatu eta materiala berentzat geldi: ezen taulazko pareta horrek abantail hau ere badu: plazaren nahi den heinean ezar baititeke eta gero nahi denean kentzeko errexa baita.

Bertzalde, mutikoeak arras gaztedanik ikas dezaten erreboteko joko handia, herrian ontsaxko direnek, guziz buruzagiek eta apezek ere elgar adituz, behar liozkete⁽¹²⁾ eman igande guziez ofizio artetan, ez bertzela, ar aldi bakotzeko pilotak eta xisterak, pleka hargatik ez artzekotan.

Euskalduna [II09. zenbakia] 1908-07-10

Noiztenka, eta bereziki eliza bestan, 17 urtez azpiko bizpahiru mutiko plazaren buru batetik, bertze bizpahiru bertze burutik, behar litezke, ederka⁽¹³⁾ bederen arrarazi, zoinek luzekiago harat-hunat pilota onean ibil holako kintze bakotxean.

Hobekienik jokatzan denari litzaioke hamar edo hogoi liberako sari bat eman, eta hobe oraino bi hobereneri. On ere liteke behari ongixko [bat] holako[e]tan bil balakiote ikastiar gazte horieri plazarat.

Bada josteta txarragorik dirua aise, eta behar gabe ere, nornahik ematen dionik. Arren⁽¹⁴⁾, hau gauza beharra da: egintza edo obra on beharrenetarik da gazteriarren oneski libertiaraztea; eta hortaz kasu ari ez direnek ez dute girixtino adimendurik.

⁽¹⁰⁾ litzateke

⁽¹¹⁾ (?)

⁽¹²⁾ lizkieke

⁽¹³⁾ démonstration

⁽¹⁴⁾ beraz

Herri eta jende aberatsek egingen ahal dute oraikotik emaitza ederrik, gure pilotako ohorea altxatu nahi duten mutikoeri. Hargatik ez ginezoke⁽¹⁵⁾ gazte bihi bati kontseila pilotako jokoaren bere ofizio guzitzat hartzerik; bertze bizimodu eta irabazbide ohikoak lehen baitire.

Denboraz aitoren semeak ziren, eta gure orhoitean oraino etxe hobereneta-
tako seme eta nausiak berak, igande eta bestetan pilotan artzea ohore zitzaio-
tenak.

Sarako besta bezpera batez, Mixel Hauziartz handiak, Enperadoreari zion ongietorri egiten bere etxean; eta gero, besta biharamunean, Batista Kaskoina, itzaina, bainan pilotari famatua, zuen jarrarazten ohorezki bere mahainean. Arratsaldean aldiz, biek jokoa egin, ari izan ziren errebotean, eta partida Kas-
koinak zuen irabazi.

Lehen ez zen pilotaririk pagatzen. Partida handi batean agertzea orori eder zitzaien. Desafioa handiago eta ihardoki nahiago, bazohazin berek jokatzen zuten diruaren irabazteko edo galtzeko menturarat.

Joan dire denborak. Orai, hargatik, herriz kanpotik, guziz Espainiatik ekarrazten diren pilotarieri zuzen da eman dakioten beren gastu eta gal bideen saria eta zerbait gehixago ere artze saritzat. Orobat zuzen da jarleku edo barrerak beren gostuz ezarri dituzteneri paga dakioten behar dena; edo egon hetan jarri gabe.

Erreboteko partida bati beha osoki gustu hartzekotz, jakin behar dire joko eder horren lege eta gorabehera guziak. Huna premiatsuenak.

Partida egiten da hunenbertze jokotarat; maizenik hamahiruetarat. Jokoak baditu lau kintze: lehena kintze, bigarrena trente⁽⁸⁾, hirugarrena kuant⁽⁸⁾, laugarrena jokoa⁽⁸⁾.

Bi alderdiak kuantean berdintzearekin, biak jausten dire trenterat eta oihi egiten da ados. Hori, joko berean gerta daiteke behin baino gehiago[tan].

Pilota bat baratua denean paso-marraren eta erreboteko eskasaren artean, horri erraten zaio xaxa⁽⁸⁾ edo arraia⁽⁸⁾.

Nola hobe baita errebotean izatea botako alderdian baino; botako edo plazaren zolako alderdikoek egin ahala egiten dute erreferaz jabetzeko. Horta-
tako behar dituzte bi arraia joko berean; bainan batek edo bertzeak kuant balin badu, orduan kuanteko arraia bakarra aski da zolakoen erreferarat eta erreferakoen zolarat aldaratzeko.

Alderdi bakotzeko pilotariak lau edo bortz dire: Botako alderdian, botaria; zola urruneneko erreturnaria; hoiien bien arteko bat edo biga; eta paso-marra-

⁽¹⁵⁾ ez geniezaioke gazte bihi bati aholkatu

ko edo hurbileko bat edo biga. Errebot alderdikoak ere lau edo bortz dire: erreferaria askotan lagun batekin; eta bertzeak paso-marra arte hartan errexa-xari.

Botariari dohako ahalaz bota gaitz eta zorrotz apalaren erreferariari sakatzea, edo pik, edo pik-ondo edo leherraraztea⁽⁸⁾.

Erreferariak behar du erne egon, eta azkar bezain zalu izan, pilotaren bederen paso-marraz harat igortzeko. Handik ez badiote itzultzen, kintze du.

Zolakoez harat igorri guziak behar dituzte paso-marraz hunat itzuli ahalaz xaxa egiteko gisan: errebot barneraino itzulia han baratzen bada, kintze dute; baina erreferariak huts eginez, pilota handik ateratzen bada, erreferatua balitz bezala da eta lau metretan arraia.

Erreboteko jokoan herrestan dohan pilota ona da baratzen den edo duten ponturaino.

Arraia bakotxa erreferan sartu denarentzat paso-marra balitz bezala da; hura pasa eta paso da pilota.

Askotan jo ttiki eta labur batek, guziz herrestarat igorriak, balio du jorik handienak baino gehiago.

Erakaspén hauetarik ezagun da erreboteko jokoak plekakoaz bertzerik dela. Laxoko edo luzeko jokoak errebotekoaren lege bertsuak ditu: botan du diferentziarik handiena.

Jokoaren harat-hunat horieri beha dagonak behar du beraz erne egon; hala-hala, zer atsegina hori jokoak ezagutzen duenarentzat! Ezagutza behar dena ez dutenek ez dute prezatzen jo eder eta harat-hunat urrun dabilzan hetarik baizen. Suediako errege, berriki Miarritzen zelarik, erreboteko partida bat Frantziako eta Espainiako pilotari hoberenek jokatu izan diote Getariako plazan, eta ainitz eder atzeman du partida hori.

Bera ere gaztetik indarkako eta adreziatzko zernahi joko handitan trebe izana, ez omen zuen uste bazitekeela nehun gazteentzat erabiltze hoin ederrik eta gizonkiaren ariziarik⁽¹⁶⁾ hobeki dohakonik. Zioen oraino: "Eskualdun gazteria pilotari hautarik juja balin badaiteke, paregabea da munduan". Plekako partida bat gero, hargatik, ez zitzaion hurbiltzeko ere hain ikusgarri iduritu. Bere erresumarat itzuli denean, ereman du berekin pilota, eskularru eta xistera parrasta bat, bai eta liburutto bat gure erreboteko jokoaren esplikazioneekin; nahi bailuke Suedian ere hemen bezala pilotan ar dakizkion gazteak.

Badu jadanik zenbait urte Parisen, Angeleterran eta Belgikan, gure Eskual Herriko pilota partidak hain eder atxemanik, zoinek hobeki ikas, ari direla pilotan.

⁽¹⁶⁾ gizakiak eman dezakeen gehiena

Pleka bai, aise ikas dirote; bainan nekez hetan atera daiteke behar bezalako errobotlaririk. Eskualduna da bakarrik sortzeak emanik hortako aski antze duena, bai besoz, bai zalutasunez, bai begiz, bai indarrez, bai buruz eta asmuz. Eskual Herria da egundainotik, eta agian beti izanen ere pilotaren Ama.

Frantziako eta Espainiako eskualdun guziek, zer ezagutza eta esker onak ez diotzote zor jaun Anton Abadia zenari! Hark zakien hark eskualdunen ohidura zaharren balioa eta edertasuna. Zenbatenaz ere eskualduna atxikia baita bere arbasoen erlisione, mintzaia, lege, aztura, jei, joko, josteta eta libertate edo fueroeri, hanbatenaz zitzaion gorago ezartzekoa jendaiarik handienen erronkan⁽¹⁷⁾.

Horra zerk zion gogoratu holakoetan beren burua hobekienik agertzen zuteneri prima edo ohorezko garhait sarien ematea.

Sari horietan handiena erreboteko pilota partida batentzat zuen. Erreboteko plaza aski handirik ez zen tokietan, bera plekari azkar izana zelakotz, plekarieri ere ematen zioten prima ttikiagoko bat. Bere azken egunetan gaitzi zitzaion erreboteko jokoa utzia izatea, berak horren fagoretan hainbertze egin eta. Plekako partidarik baizen ez zuten herrieri ahalkerik ez eman nahiz, bere xede eta gogoaren kontra, aintzina zohan bere emaitzetan; ez zuen hargatik uste herri aipatu zenbaitek beren aspaldiko ohoreari hola uko eginen zutela beren eliza bestetan beretan, eta ilungia horrek hainbertze iraunen ziotela.

(17) mailan

Eskualtzaleen Biltzarrari ⁽¹⁾

Jaunak,

Bagare biltzarre huntan zombait eskualdun, gure eskuarari eta gure eskualduntasunari hein bat atxikiak. Eder zaiku eskualdun izatea, eta hala garela, guziz gure mintzaiaz erakusterat ematea.

Eskuara da gure hizkuntza legezkoa⁽²⁾, gure-gurea, ama bat bezala maite duguna. Eskuarak eta gure fedea derakarkigute gure ohorerik handiena. Horiek gabe gauza guti gintezke, munduan hainbertze gurea balio ez duten mintzaietako jendeen artean.

Jakintsun handi direnek diote, oraiko jendeen mintzaietan eskuara dela zaharrena; harrituak ere daude nola hizkuntza bat hoin ederra, asmatua izan zen aspaldian iraganak diren mende zahar hetan, eta nola oraino guk daukagun herri bakar hautan.

Badu hiru mila urte segurik, eskuara munduaren alderdi zaharretako mintzaia bide zela. Behinik behin Asian, Armendian, Gazpiako itsasoaren inguruetan, Iberia zahar orai Georgia daritzonaren lurrean. Han gaindika dire mendi batzu deitzen direnak Ararate, Elburu, kasko guzia urte osoan elur duena, Gorazkoi, Gorazpe, Titigora, Handi...

Uren izenak oraino gehiago dire; huna zenbait: Urmea, Ural, Uholga, Urdaba, Urup, Uraso, Sara, Salata, Ulumba, Kur, Kharats, Zoria, Iberur, Ibai-ri, Mandagora, Karape, Karagaitz, Kaikur, Kabura, Jatsarte, Ekiur, Harridun, Gazpia, Erniur, Eder, d'Ihabea, Atzkur, Ardizkur, Ararur, Albur, Aral, eta holako bertze asko.

⁽¹⁾ 'Eskualduna' [847. zenbakia] 1903-09-18. 1903ko buruilaren 16an, Adema-Zaldubi kalonjeak, eta biltzarraren buruzagiak egin duen hitzaldia.

⁽²⁾ naturala, eskubidezkoa

Eskuaraz deitzen diren herriak ez dire gutiago: Abara, Agara, Alapa, Aldu, Algerdi, Alzaz, Alzketa, Anzira, Aragona, Arhaitz, Ardatza, Ardibil, Argaitz, Arraga, Artza, Astara, Asurdi, Atalas, Aterria. 'A' hortaz hasten diren izenentarik zenbait bakar dire horiek munduaren zoko hartakoak, oro aipatu behar bagintu⁽³⁾ luzegi lohake⁽⁴⁾ denbora.

Espainia, lehen Iberia zen deitzen, naski aixtian aipatu dudan Iberri hartarik etorririkako jendeek izen hori, eta Aragonarenat ere Aragoari emanik. Hemen orai ez dugu erakustearen beharrik Iberi hortako mendi, ibai, aran eta herri gehienek beren izen zaharrak segurik eskuarak eta eskualdunek emanak zituztela.

Gauza bera erran daiteke Frantziaren alde huntako hegal huntaz, nun baitire Baigorri (Bigorre), Atur (Adour), Eliberi (Auch), eta urrungo ere Illiberi (Le Narbonnais), Andura (La Sône), Biithurri (Bourges) eta ainitz holako.

Izen eskuara horiek, egungo gure eskuarekin eman ginetzazkeen bezal-bezalako horiek, arabez eskualdunek emanak ziren Frantzia oraino sortzekoa zelarik, eta eskuara mintzo zen mende hetan. Uropeko⁽⁵⁾ oraiko mintzaien hazia oraino eraitekoa zen.

Eta zer! hainbertze mende orai arteraino iraun duen ondoan, hainbertze munduko nahasmendu, gerla eta jendeen arteko itzulika guzien erditik, hain eder eta berberarik atera izan den ondoan, gure eskuara hau behar dela galdu eta suntsitu, gure oraiko denbora labur hautan! Eta ahalke hori behar dugula guk iretsi! Ez balinba!

Akabo beraz eskualdunen ohorea! Ez balinba!

Akabo beraz eskualdun jendea bera! Ez balinba!

Ondikotz hargatik egia baita, gure eskuara galduz, eskualdunak ttikituz goazi, nornahik jauzi egiten du jadanik gure gainerat. Jadanik Arabako herria, eskuara utzirikan, erdaldun apal jarria da. Ai, nola bozkaria gintezkeen xuti baladi oraino!

Nabarra ere ilunpe beretarat erortzen ari da: erdalduna bere eremurik handiengan nausitu zaio. Altxa hadi Nabarra, iharrosatzik⁽⁶⁾ hire gateak, Nabasko aspaldiko gateak!

Hala-hala loriagarri da ikustea, nola gipuzkoarrak eta bereziki bizkaitarrak bermatzen diren beren eskuararen oso, eta menturaz berexegi, atxikitzerat. Don R. Azkue apezka bezalako eskualtzale kartsu bat behar liteke gure

⁽³⁾ bagenitu

⁽⁴⁾ lihoake

⁽⁵⁾ Europako

⁽⁶⁾ inarros itzak, astindu itzak

zazpi eskual-herrietarik bakotxean. Bainan nun dire Bizkaiak bezalako diruak eman detzazketenak, eskuararen begiratzeko eta irakatsarazteko?

Frantzia alde huntan, ez gaude segur estakururik gabe. Bai Lapurdin, bai Baxenabarren, bai Ziberoan, eskuarak oraino gaina dauka, guziz jende xehearen artean. Hiru herri alde horietan, ez da bat, eskuara galdua duenik; bai, bainan hiruetan galtzen ari.

Dela burdin bide, dela jende arrotzekilako nahasteka, dela errient kaskoin eskuararik ez dakitenen eta eskuara hastio dutenen eskola, dela asko gazte frantses agertu nahiagoen ergelkeria; gure hemengo eskuara ere badoha: Frantsesak itotzen ari du: eta oraino nolako frantsesak! Irri egingarri baita, jende eskolatuez kanpo gure eskual-herrietan derabila[te]n frantsesa; eta ahalkegarri baita, ainitzek eskuaraz mintzatzeko duten ahalkea.

Orai bereziki badugu Frantzia aldeko Eskual Herri huntan errenkura⁽⁷⁾ handiagorik. Huntaratuak gare, nun gure herri aldetako arrotz kargudun batek debekatu baitiote apezeri, eskuara baizik ez dakiteneri eskuaraz mintzatzea. Lehengo libertate, zuzen guzien kontra ebatsi dauzkigutenen ondotik, ez ginuen, arabez, bertze deusen beharrik, Frantziako legeez nahi eta behar baino gehiago tinkatuak izateko. Lirudi⁽⁸⁾, Frantzia bera hastiarazi nahi laukutela⁽⁹⁾...

Debeku hori hautsarazi beharrez, eskualtzale aitoren seme batzuek egin dituzte egin ahalak prefet bati buruz, ginakielarik guziek deus ez zezaketela ardiets halako gizon batenganik. Eskuara elizetan haizu nahiaren nahiz, apalik jarri ziren haren aintzinean, eta sobera umilki ere mintzatu haren balakatzeko. Hark aldiz lehenik ele leun gero ezetz ilun. Azkenekotz eza baizik ez zuten ardietsi, hobe baitzitekeen ez baliote hainbertze ohore eta agur egin, zen bezalakoari.

Arren, gu eskualtzale gauzkatelakoetarik ainitz ere, ez ote gare hobendun gure ahulkeriaz eta gure iraupen eskasaz? Lehenik su eta kar, gero epel eta uzkur; ezin iraun hastean ginuen ekarritasunean⁽¹⁰⁾: aurten guziz denak behar gintezke sorkan bilduak hemen aurkitu, eskuarari egina zaion guduan, haren alde gure buruen agerian erakusteko.

Joan dire, eiki, denborak, gure eskuararen eta gure eskualdun aztura zaharren garbi eta oso mundu huntako jendaien artean begiratzeagatik, aipu izan baitzen gizon jakintsun batzuen bilkuran, eskualduneri beren berebertasuna-

(7) arrangura

(8) iduri luke

(9) liguketela

(10) elkartasunean, emankortasunean (?)

ren⁽¹¹⁾ emaitiaz, berex beren gisa eta libro bizi zitezen, Andorrako Errepublikan bezala.

Orai da galdegintza, eian denbora laburrik barnean izanen den gehiago eskualdunik, eskuararik eta Eskual Herririk. Guri dago horri ihardestea bilzar barne huntarik.

Gure eskuara debekuan ezarri nahi dutenek berek ohartarazten gaituzte, jadanik beren esklabotzat gauzkatela, zapatu[z] gogoak ederki. Ordu da bihur gaizkion⁽¹²⁾ laido horri, eta egin detzagun egin ahalak gure eskuara amari bizi berri baten emaiteko.

Hemendik aintzina, ez gaitezen mintza eskuaraz baizik, eskuara dakitenekin. Badakit ohitza hori ez zaiotela berehala errex izanen askori, eta nahitez eta uste gabe, erdararat lerraturen direla. Halere, huts hortarat ez erortzeko xede zina hartuz, usaia edo usu-aria laster hartua liteke eskualdunen artean beti eskuaraz mintzatzeko. Batek bertzea huts egitean ohartaraziz, hala-nola edo keinu batez, edo hobeki, eskuaraz erdarari pulliki ihardetsiz, usaia hori hobeki oraino finka liteke gure artean.

Hemendik aintzina, haurteri ttikitik eskuara, bereziki eskuara, erakuts dezotegun⁽¹³⁾: ez sehirik har eskualdunik baizik, eta heieri ez utz eskuaraz baizik haurteri mintzatzea.

Zazpi edo zortzi urtetako haurteri, burhasoek frantsesez ere edo españolez ele egitea ez liteke gaizki. Frantsesa edo española ez dugu batere arbuia-tzen; on eta eder ere zaiku bi erdara horietarik batean bedere[n] trebe izatea. Mintzaia bat baino hobe dire bi[g]a; hargatik, guretzat bego beti eskuara lehen eta nausi. Eskolak hor dire erdararen behar den bezala irakasteko. Jende eskolatuen etxez kanpo, eskola onetan baizik ez da ikasten behar den bezalako frantsesik, ez espāñolik. Halere damurik errient kaskoin batzu igortzen baitauzkigute Eskual Herrirat, ezen frantximant bilakatzeak ez dio on hanbatik egiten eskualdunari.

Eskualdun hurrek, frantses katixima ikasi behar badute, ikas bezate; hargatik ez dadiela bihi bat izan eskuarazkoa ikasi gabekorik, ez eta ere bere goizarratsetako otoitzak eskuaraz eginen ez dituenik.

Eskualdun fededunek ez bezate ereman elizarat, liburu latin eta eskuararik baizik. Bainan, elizatik kanpo ere, liburu eskuarak behar litezke bai ixtoriozkoak, bai jostatzeakoak, diren baino gehiago. Guri, orai hemen garen bezalako eskualzaleeri, lagoke liburu horien usu argitaraztea.

(11) azkatasunaren, independentziaren

(12) bihur gakizkion

(13) erakuts diezaiegun

Berriketari edo kazeta eskuarak baditugu, bai Frantzian, bai Espainian: hoiien irakurtzaile izan gaitezen guziak, utziz, hargatik, bazterrerat eskualdunen fedeari laido egin lezoketenak.

Fedearen hedariaren gutunak ere eskuaraz eginak hain dire ikusgarri eta hunkigarriak, nun guziek atseginekin behar baikinituzke irakurri agertzen diren aldi guziez.

Lot beraz denak besarka eskuarari, orai eta hemendik aintzina, traba guziera bihurtuz. Eta guk, apez eskualdunek, bertze nehork baino kar eta arta gehiagorekin berma eta sustenga gure mintzaia sakratua, erlisionearen gure arteko begirale eta lagun maitagarria.

Déroulède ⁽¹⁾

Frantziako gizonetan bihotzez hoberena
Lurrez gabetu baitute, zer zen haren hobena ?
Gizon makurrentzat beti hobendun da zuzena.
Ez ote da goresteke hola hobendun dena ?

Lurreko jendekietan ez bide da bihirik
Eskualdun jendea bezain libro bizi nahirik.
Derouledak, eskualdunak zer diren ikusirik,
Atsegin du bizitzerat guganat etorririk.

⁽¹⁾ Déroulède Paul (1846-1914) hil zenean, bi bertso hauek, 'Eskualduna' astekariak, publikatu zituen 1914ko otsailaren bian, "Asteko berriak" sailean [1399. zenbakia]. Bertso horiek 1902an Adema-Zaldubik paratu zizkion Déroulède-ri, ikusterat joan zitzaizolarik Donostiarat, han baitzegoen Frantziak desterratua. H.D.

Biba Bidarra! ⁽¹⁾

(Airea : Donostiako kalean)

Baionako Jaun Apezpiku hain maite dugunari
 Hogoï eta bortz urte hautan gutartean denari
 Pertsu hauk egun eskaintzean, diot Jesus onari :
 A ! laguntzazu jarraikitzen luzaz bere lanari !

- 1- Jainkoa lagun, pertsu berriak nahi nituzke moldatu,
 Bidarrain egin eliz-ikertze aipagarria laudatu.
 Dadin berria heda denetan zer zen orduan gertatu,
 Huna eskualdun gazte bipilek⁽²⁾ zer duten behar kantatu.
- 2- A ! hemeretzi ehun eta bortz, urte deitoragarria,
 Hik zorigaitzez deraukuk⁽³⁾ eman lege ahalgegarria :
 Oraitik dela Elizaganik berexten gure Herria,
 Frantziak beraz duela hartzen bizimolde bat berria !
- 3- Frantziarentzat aspaldidanik ohoretan handiena,
 Bere omena urrun hedatu dion hegal azkarrena
 Ez zena ote mundu guzian ekartzen duen izena
 Eliza Saindu gure Amaren alabarik zaharrena ?
- 4- Izen bat ona ezin hobea zituela zinez galdu,
 Herri pagano salbai erronkan zela betikotzat sartu.
 Beldurtzeko zen ez balitz nehor kinka hits hautan oldartu
 Elizetako ate hausterat zauzkuteneri⁽⁴⁾ bidaldu !

⁽¹⁾ Gure Herria, 1931ko Martxo-Apirilean

⁽²⁾ kementsuek

⁽³⁾ diguk

⁽⁴⁾ zizkigutenei

- 5- Anitz egintza eder izan da gure Frantzia maitetan,
Bainan guzier nagusi dena da Eskual Herrian berean :
Bidarraitarrak betidanikan azkar baitire Fedean,
Beldurrik gabe dire paratu *baioneten* aintzinean !!!
- 6- Ez dea zinez paregabea Bidarraik jasan gudua ?
Hortaz zerauku⁽⁵⁾ ederki mintzo gure Jaun Apezpikua ;
Irakur ongi Jaun horren letra bazterretan aipatua,
Ikus nola den oroz gainetik Bidarraiz izendatua !
- 7- Dezagun hemen igor agur bat Apezpiku berriari
Jainkoak berak eman deraukun⁽⁶⁾ nagusi argituari,
Diogularik : zu bezalako gizon ernea gidari,
Lotsarik gabe Kristauek dugu so egiten geroari !
- 8- A ! hemeretzi ehun eta sei ! hire martxo beltz dorpeak
Ditik ekarri, soldadoekin, eliza-miatzaileak !
Bainan aintzindu zitzaizkotek⁽⁷⁾ herriko zahar-gazteak !
Martxoko lauan nola lo egon, Bidarraiz, hire semeak ?
- 9- Banintz, Bidarraiz, hire *Otxalde*, boza hemen altxatzeko,
Harek eginen zuen bezala pertsu hauen apaintzeko !
Ez banaiz ere aski koblarari hire ongi laudatzeko,
Bihotzik aski badiat beti hire haurren maitatzeko !
- 10 - Bidarraitarrak, ate ondoan, xutik dagozi lerroka,
Arras iduri mendi gainetik lerratu zombait harroka !
Horrela egin harri-hesia daiteke ote kordoka ?
Ez da ez jinik aski soldado horri lotzeko borroka !
- 11 - Itxura horrek bezainbat ditu soldado guziak lazten⁽⁸⁾,
Hoier bezala karguduneri zainetan hotz bat emaiten
Hor ikusteak lehoin horiek kopeta gora egoiten,
Gero direnez denak jauziko ez dutelarik erraiten !

⁽⁵⁾ zaigu

⁽⁶⁾ digun

⁽⁷⁾ zaizkiek

⁽⁸⁾ *peur, angopisse, effroie*

- I2 - Ustez den aski jiteko bera denen larderiaterat,
Aintzindari bat abiatu da Bidarraitarren alderat ;
Zonbat den laster delako jauna itzuliko gibelerat,
Lerroetarik delakotz jali norbait horri mintzatzerat !
- I3- Eskual Herrian ez bide gira beti errex izitzeko,
Horra Bidarrain gizon xahar bat etsaiari bihurtzeko ;
Nahiz ezpata duen ikusten, ez da lotsa hurbiltzeko,
Diolarik boz idor batekin : "Zer duk hemen egiteko"?
- I4- Deusik ez duke segur aditu erranak zaizkotenetan,
Bainan ikusi su-pindar batzu xaharraren begietan !
So samur horrek zion garbiki : "Etorri haiz debaldetan ;
Ehiza⁽⁹⁾ beldur aurki hadien laster gure zangopetan?"
- I5- Aitzindaria da eta zalu berriz bere tokiratu,
Lagunetarat heltzearekin boza zitzaion azkartu ;
Handik diote Bidarraitarrer begi bihurritz behatu,
Eta erranez legea dela, bazter daitezen manatu.
- I6- Zer dik balio horiek legez hiruetan hertsatzea⁽¹⁰⁾?
Errex zerauka[k]⁽¹¹⁾ fededuneri uko eginaraztea ?
Ez daukek⁽¹¹⁾ behin ardietsirik imitario hastea !
Hiretzat, gizon, Bidarraitarren hortik bazterrareztea !
- I7- Entzunagatik : « Leku, nahitez, legearen izenean ! »
Han berberean daudeze denak tieso⁽¹²⁾ beren hatzean !
Aldi guziez, elgar tinkatuz, manuaren aditzean,
Dute iduri erro eginak omen azpiko lurrean !
- I8- Aintzindaria, zer gisaz joka horien urrun kentzeko ?
Imitario egileekin eliza hortan sartzeko ?
Ala duk ote manu emanen *baionetaren* hartzeko,
Hori xixpetan⁽¹³⁾ landatu-eta jenden kontra itzultzeko ?

⁽⁹⁾ Ez haiz

⁽¹⁰⁾ bortxatzea nolabait

⁽¹¹⁾ daukak (?)

⁽¹²⁾ tinko

⁽¹³⁾ fusiletan

- 19- Harriturikan zaudezte orai hori gertaturen denez,
Erho ez dena hein hortan abre izan ahal ditakenez !
Ikusiz eiki ! hein hortaratzen, griñarik gabe gizonetz,
Nago Satanek ifernu zolan hanbat herra darionez !
- 20 - Abrekeria, oi ahalgea ! itsuski da bururatu,
Barka, Bidarra ! dituztelakotz hire haurrak setiatu !
Frantses soldado batzu dire, bai, Frantseser buruz bultatu,
Dituzte asko, nork uka hori ? *baionetez* odolztatu !
- 21- Han zituztena Bidarraitarrek eskualdun makil azkarrak ?
Ez, *baioneter* zabal dituzte paratu beren bularrak !
Etsaia dea xederat heldu ? A ! soldadoen oldarrak
Ez ditu-eta durduzarazi gure fededun suharrak !
- 22- Itsaso gaixto hasarretuan uhainak dire saltatzen,
Harrokak hagin zuriz estaliz heien gainean xehatzen !
Harroken pare Bidarraitarrak ez ote zauzku agertzen ?
Animo handi hoin pairakorrak nola dituen edertzen !
- 23- Nahi badituk lehoin horiek tokitik higiarazi,
Komisario *Jourdan* gogorra, tiroka behar duk hasi !
Hortaratzea ezin mentura, oro ilun badoazi,
Eskual Herrian zer gizon diren dutelarikan ikasi !
- 24 - Hamar egunen buruan berriz jin da Komisarioa ;
Hogoi jandarme, anitz soldado, zer daite ondorioa ?
Herriko jaunek dute galdata : O ! ez bila herioa !
Khean itoak, lasterka denak : horra imitariora !
- 25 - Oi gertakari miresgarria, izana Eskual Herrian !
Ez duk parerik, zer ohorea ! nehun Frantzia guzian !
Bidarraitarren omen ederra, habil hegalez airean !
Biba Bidarra ! dezagun kanta, ezagutza bihotzean !

1906ko Martxoa. **Zaldun**⁽¹⁴⁾

(14) Paratzailearen oharra: "Zaldun", "Zaldubi" ote da? Hura dela uste dugu gehienek, Bidarrain egona baitzen erretor (1860-1872), hango hizkuntza eta lapurtera erabiltzen baititu hemen gure ustez nahitarat, eta bereziki berak formatuak zituzkeen haur, gazte eda adineko batzuek holako balentria burutzea ez ahal baitzaion itsusi! Ez guri ere, funtsean. H.D.

Curiosités de synonymie basque-japonais ⁽¹⁾

Pendant la guerre russo-japonaise on a souvent parlé des ressemblances frappantes de la langue japonaise avec la langue basque. Ces similitudes extraordinaires d'une multitude de mots, de leur caractère et de leur physiologie ont fait l'étonnement de certains linguistes; et elles ont particulièrement intéressé beaucoup d'amateurs à qui le vrai parler basque est surtout familier et naturel. Aux sons de l'idiome nippon, à cet extrême orient séparé de nous par tant de peuples aux langages si différents de notre eskuara, nous croirions entendre notre labourdin, et cela seul est un phénomène qui mérite d'être étudié.

Or voici un travail que je présente à la curiosité des bascophiles sur ces ressemblances peut-être très fortuites du basque et du japonais, mais où je reconnais devoir décliner toute prétention à thèse scientifique.

C'est une simple collection de mots que seul probablement j'ai cueillies avec une scrupuleuse fidélité de transcription, en de nombreux documents, notamment dans un dictionnaire japonais-anglais imprimé à Tokyo.

Ce sont des mots sans doute, et rien que de mots. La grammaire japonaise est loin d'être aussi savante dans ses règles et ses combinaisons que l'euskarienne. Le japonais ne compte, pour ainsi dire, ni nombre, ni genres, ni cas, ni personnes; il est l'imprécision même, mais les Nippons s'entendent quand même au moyen de leurs accentuations et inflexions de voix différentes, et mêmes leurs mimiques expressives.

La langue japonaise diffère essentiellement du chinois, elle est polysyllabique et susceptible de flexions.

Dans ses ressemblances avec le basque nous avons à constater une chose absolument étrange. Etant donnés des termes identiques aux deux langues japonaise et basque, leur sens ou signification est presque toujours différente.

⁽¹⁾ 'Semaine de Bayonne, Variétés.' Xabier Alzibarren oharra: "Zaldubik 1906ko uztailaren Iean sinatua eta zazpi ataletan argitaratua da artikulu edo lan luze hau. Ez da geroztik berriz argitaratu, ustez, baina luzeegi izanez, lehen atala baizik ez dugu emango, ondoko seietan garatuko duenaren plana erakusten duena. 7. atalaren bukaeran data eta sinadura : Bayonne, 1er juillet 1906. »
Ikus ere : 'Lapurdum' [11. zenbakia] 2007-12-10.

Ainsi **aho** qui veut dire bouche en basque, veut dire idiot en japonais. Aita en basque est père; en japonais, c'est **aitaï** particulier. Le basque dit **ama** pour mère, le japonais dit **ama** pour le pêcher, arbre fruitier. Le basque **anaia** frère, le japonais dit **anaia** pour guide. . . Ces exemples tirés du commencement de la lettre 'A' seulement, seront multipliés dans les premières colonnes de la terminologie ci-après. Le mot japonais **tori**, qui se prononce là-bas un peu comme le souletin **tchori**, peut être cité comme ayant la même signification d'oiseau dans les deux langues.

Outre le demi millier de mots qui figure dans ma nomenclature avec leur signification tant en basque qu'en japonais, il y en a des milliers qui remplissent toute une large colonne à côté, et dont l'air et le semblant seuls sont indéniablement basques, quoique n'ayant de sens qu'en japonais. Il n'y a aucune autre langue dans le monde qui reproduirait ces sons-là en dehors de l'eskuara.

De nombreux noms de la géographie du Japon et de la Mandchourie sont remarquables par leur eskuarisme prononcé, et surtout par les significations adéquates de leurs sites, monts, eaux, ou natures exprimés; or combien n'en est-il pas disparu par déformation ou extinction dans le cours des siècles?

Devant cette indéniable particularité on a supposé que, bien avant les Nippons, aux temps par exemple des anciens Aïnos, quelque colonie basque ibérienne aurait habité ces îles volcaniques, à la recherche des métaux précieux recelés dans leurs cratères éteints et dans les cours d'eaux aux sables abondants en pépites d'or, raison des migrations des Basques de tous temps. *Auratae scrutator Iberus arenae.*

Une nomenclature spéciale sera réservée ici à ces noms géographiques si intéressants.

Le Basque Navarrais saint François Xavier, arrivé au Japon en 1550, avait dans sa langue maternelle des éléments qui lui avaient déjà pendant dix ans servi pour les Indes. Le Japonais fut pour lui un dialecte nouveau dont les sons lui étaient encore plus familiers dès son enfance. Dans ses deux résidences préférées d'**Amangutchi** et de **Méhako**, ses succès d'orateur qui lui firent attribuer le don des langues, avaient peut-être leur grande part dans l'excellence de sa diction basque.

Des missionnaires basques envoyés au Japon se signalent aujourd'hui par leur aptitude particulière à apprendre la langue nippone et à la parler avec une correction et un naturel qui émerveillent les indigènes lettrés eux-mêmes.

Il y a trente ans, notre insigne et bien aimé compatriote Mgr Mougaburu, aujourd'hui archevêque de Tokyo, arriva au Japon ignorant la langue du pays. A l'hôtel, où le Préfet Apostolique était venu le recevoir, une servante lui remit un paquet disant en son japonais rapide: "**Ori bakari da**". Il me semble comprendre ce langage, dit le jeune missionnaire; elle a dit qu'elle n'a que cela à

me remettre: **Hori bakharrik da**; en basque: **Hori**, cela; **bakari da**, seulement es (ce que j'ai). —C'est juste ce qu'elle a dit, s'exclama l'ancien, étonné que le nouveau venu sût si bien déjà le Japonais: et cependant ce n'était là qu'une rencontre fortuite de mots communs aux deux langues.

Encore tout nouveau au Japon, le P. Lissarrague, autre basque, fait aussi merveille déjà à l'académie de Tokyo, où son accent basque le fait parler comme un parfait indigène.

Quoique la présente curiosité littéraire n'ait rien de scientifique, on a jugé qu'elle pouvait être utile, et qu'elle ne devait pas être perdue. Je livre ce travail pour le peu qu'il vaut dans son insuffisance de premier jet que d'autres corrigeront.

J'ai tenu à ne pas inutiliser les rares et courtes leçons que Mgr Mougaburu, dans sa haute amitié, avait daigné me donner sur le Japon, en son dernier passage à son pays natal.

Jesu-Kristoren Pasionea ⁽¹⁾

Azken afaritikan gauari behera⁽²⁾,
Jesus ateratu zen otoitz egitera.
Oliben baratzean, hantxe dago bera...
Bet-betan horra nun den erortzen lurrera.

Zerk aurdiki ote du Jesus Jauna hola ?
Agonian ahuspez horra nun dagola,
Bere heriotzea bistarat zaiola
Izerdiarekilan dohako odola.

Bere agoniako kalitza kiratsa
Iretsi behar-eta o, zonbat den lotsa !
Munduko bekatuak betan eta baltsa !
Nola baita lehertuz arnotzen mahatsa.

Judas bere Nausiaz ixilka zokotan,
Juduekin ari zen aspaldi tratutan,
Hoita hamar pezeta horra zenbatetan
Saldu duen Judasek Jesus arrats hortan.

Soldadu tropa baten bera aintzineko,
Heldu da Judas, eta, ez huts egiteko,
Nori ere musu bat emanen baitako⁽³⁾,
Hori da seinalea, hari lot bekizko⁽⁴⁾.

⁽¹⁾ RIEV aldizkariko edizioko oharra (mars-avril 1908-2ème année N°2) : "Ce cantique encore inachevé et non corrigé est tiré de feuillets détachés dont plusieurs étaient écrits au crayon. On n'a pas voulu laisser se perdre parce qu'il s'y trouve des passages qui sont réellement fort bien."

⁽²⁾ Errateko manera bat da urrats handi bati buruz abian delarik.

⁽³⁾ baitio

⁽⁴⁾ lot bekizkio

Baratzean sarturik jada gau beltza zen,
 Jesus bere lekuan dute atzematen.
 Musu maltzur bat dio Judasek ematen.
 Jesusek: "Aixkidea, zer ari haiz hemen ?"

Ihes abian ziren denak harrituak.
 "Har nazazue" dio Jesus amultsuak.
 Hedatzen diozkate besoak, eskuak.
 Orduan lotzen zaizko laster soldadoak.

Jerusalem barnerat orai deramate ;
 Gauak gauari presan jujatu behaute⁽⁵⁾.
 Kaifasen tribunala osteka da bete ;
 Jesus pasoka, thuka, hantxe dabilkate⁽⁶⁾.

Bertze Apostoluak juanak ziren ihes,
 Bakarrik zen jarraiki Jesusi Piarres.
 Ezkaratetik beha han zagon beldurrez,
 Zer ote zuten bada eginen Jesusez.

Kaifasen neskatoa zitzaion ohartu :
 "Errazu, Jesus horren laguna zare zu."
 Piarresek egiten dio juramentu,
 Ez duela hark Jesus nehun ezagutu.

Piarresek Nausia ukatu orduko,
 Gauerdiko oilarra kantuz hasi zako.
 Jesusek ja errana gogorat dohako :
 "Oilarrak jo gabe nauk hik gaur ukatuko."

Ohartzen da Nausia beha dagokola,
 Behatze hark jo dio bihotzaren zola,
 Badoha handik laster, nigar dariola,
 Piarres gehiago ez daite kontsola.

⁽⁵⁾ behar dute

⁽⁶⁾ darbilte

Kaifasek: “Nor haiz?” dio Jesusi galdatzen.
Jesusek : “Ni Kristo naiz” dio ihardesten,
Denak dire orduan oihuz abiatzen :
“Ez haiz, hi, blasfemio egile bat baizen.”

Lekukoak mintzatzen abiatzen dire ;
Gezurrian aurkituz, bai ixiltzen ere.
Aintzina oihuz daude guziak halere :
“Hiltzea merezi du, ez barka batere.”

Gurutzean hiltzea duela merezi,
Kaifasek igortzen du Jesus Pilatusi.
Pilatuz hori baitzen gobernuko nausi,
Horren baimena behar zuten ardietsi.

Zertan ote den bada Jesusen hobena,
Pilatussek nahi du berak jakin dena.
Bilatu eta deusik ezin atzemana :
“Nik, ez, horren hiltzea, ez dezaket mana.”

Guziek berriz oihu : “Bai kondena zazu ;
Zesar enperadorek etsai gaitz bat hau du,
Hunen alde bazare, guardia emazu :
Ezen zure kargutik hark kenduko zaitu.”

Orhoiturik hiltzerat kondenatuetan,
Libraraz dezakela batto egun hartan :
“Barrabas ala Jesus, zoin da bi hoietan,
Hots, behazue⁽⁷⁾ erran, zoin libra dezadan.”

“Libra zazu Barrabas.” “Ordean Barrabas
Gizon hiltzaile bat da ; nik hura libraraz !”
“Bai libra zazu hura, eta hau hilaraz ;
Bertzenaz Zesarrekin etsai zare arras.”

⁽⁷⁾ behar duzue

San Joanes Batista Salhakoak ⁽¹⁾

(Errefau hau lehenik kantari berexiek)

Joanes Salha, haurren Apostolua,
Jende xehearen ongile kartsua,
Hain lorios orai zerurat altxatua,
Izan zaite laudatua.

(Guziek lehen koplak hori bera errepika, haste huntan eta segidako koplak arte guzietan)

Bai mundu guziak, Joanes Batista Salha,
Sainduen erronkan⁽²⁾ ohora zaitzala ;
Gu ere zerurat hel baginte, oxala !
Bermaturik oro zu bezala.

San Joanes Salharen lehengo burhasoak,
Eskualdunak ziren, Ziboz⁽³⁾ Salhakoak
Gu balin bagare haren odolekoak,
Izan gaiten bihotz berekoak.

⁽¹⁾ Paratzailearen oharra: Saint Jean-Baptiste de la Salle (1651-1719). H.D.

'Eskualduna' [III.0. zenbakia] 1908-07-17.

Adema-Zaldubi beraren oharra:

"Kantika hunen airea ezagutua da girixtino eskoletako Freretan (Anaietan) ibili direnez (*Oui, je le crois, Elle est immaculée...*) Ez daiteke kanta aire hortan baizik; aire hori, bere ederrez, Frerek berek berexi izan dautate, kantika hau galdatzearekin. Ziboz edo Ziboroze (frantsesez : Sibas) Atharratzeren auzo herri ttikitto bat. Han da San Joanes Batista Salharen aitaseen Salha jauregia. Oraino han begiratuak diren ageri zaharretarik dakigu nola 1482an, Arllande Salha, orduan Burgonian erregeren zerbitzuan zenak, herrirat behin etorri-eta, bere sor jauregiko ahaide guziak mundutik joanak eta bazterrak zorretan hatzemanik, saldu zituen bere hemengo ontasunak. Geroztik, Erremintzen (Reims) erregek kargu zer-bait emanik, han aldebat bere egoitza finkatu omen zuen. Denbora hartarik beretik dire segurik, hemen geldi eta han haste, haren jende kiaren ageriak."

⁽²⁾ mailan

⁽³⁾ Euskara batuan : Aloze-Zibozze-Onizegaine.

Haurrean aingeru, gaztean oi zoin garbi,
Bere lagunekin beti maitagarri ,
Aberats emaile, beharrei urrikari,
Gero bera deus gabe zen jarri.

Gazterik jakintsun apezta-ta hasi zen
Nekazalen⁽⁴⁾ haurren eskolarat biltzen.
Jende xeheari guziz emana baitzen,
Heien aita zuten orok deitzen.

Osagarriz ahul, egun osoz nekean,
Gauaz oren luzez zagon otoitzean.
Urte gehiena zeraman barurean,
Gorputzaren mainen⁽⁵⁾ beldurrean.

Nahiz duen hanbat bihotz eta bertute,
Etsaiek maiz gerla egiten diote,
Hek eginik ere laido bai eta kalte,
Berdin ditu bihotzetik maite.

Saindu amultsua zure ondokoetan
Zu zare oraino bizi heien baitan,
Haurren altxatzea erakaspén onetan
On da guziz zure eskoletan.

Oi Jan-Batist Salha, gure saindu maitea,
Otoi lagun zazu eskualdun jendea ;
Iduk⁽⁶⁾ dezan beti azkar bere Fedea,
Aspaldiko bere ohorea.

(4) laborari

(5) mainatu = guriki altxatu/ gastatu/ *cajoler*/ *dorloter*

(6) atxik